ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2009ko martxoaren 16a > Astelehena > VII. urtea > 225. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Integraziorako bidean lehen urratsa beti da tokian tokiko hizkuntza ikastea"

**Huma Jamshed**
ACESOP elkartea > 09



**ARETXABALETA**
**Kultura plana jarriko du abian Udalak herritarrekin batera** > 11

**ARRASATE**
**Ezustekorik ezean, gaur onartuko dituzte udal aurrekontuak** > 14

**ARRASATE**
**Aurten 'La corte del faraon' zarzuela antzeztuko dute** > 15

**FUTBOLA**
**UDAk 0-2 irabazi eta lehenengo jarraitzen du sailkapenean** > 22

**OÑATIKO DUATLOIA** > XVIII. EDIZIOA

# Frantziarrek eskuratu dituzte duatloiko lehen bi postuak

**CAPOFERRI** Lehen zortzi kilometroetan aurrean jarri eta txapela jantzi zuen Nicolas Capoferri frantziarrak

**DEBAGOIENDARRA** Ander Agirre bergararra izan zen debagoiendar onena; lasterketako bederatzigarrena

**EMAKUMEA** Inma Ruiz gernikarrak egin zuen emakumeen arteko denbora onena zapatuan > 29-30

## G2a

### 'Miserableak', denborarekin ondu egin den bergarartutako musikala

*Miserableak* musikalaren itzulerak aurreikuspen guztiak gainditu zituen: pilotalekua bi bider leporaino beteta, txalo zaparrada ugariak eta une hunkigarri ugari.

Hasieran urduri irten ziren arren, aktore eta musikariek berehala erakutsi zuten luze eta ondo prestatutako lanak emaitza ezin hobea jasotzen duela; eta halaxe izan zen. > 29-30



**ADIN GUZTIETAKOAK** Ikuskizunean bergarar askok esku hartu zuten, ume, heldu zein nagusiek. JOSETXO ARANTZABAL

**EKONOMIA** > INBERTSIOAK

## Elcoro, Txinara begira

Elcoro Taldea Txinan proiektuak egiteko sarea zabaldu nahian dabil > 06

**EZAI** > FUNDAZIOA

## Politika publikoak hobetzeko

Sortu berri duten Ezai fundazioaren helburua da ikerketa proiektuak sustatzea zientzia sozialetan, batez ere kooperatibetan. Horretarako, ikerketak egiten dituzte; eta erabaki politikoak hartzeko ahalmena dutenei azaltzen dizkiete ikerketen ondorioak. Arrasaten, Garaia gunean dauka bulegoa Ezaik. > 03

**AZPIEGITURAK** > AHT

## Induspeko tunelean, lanean

Eskoriatza eta Aramaio arteko tunela egiten hasi dira astean > 04

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**ARGITALPENA** > HISTORIA

## Antero Apaolazaren biografia

Gaur, astelehena, aurkeztuko du Jerardo Elortza oñatiarrak Antero Apaolazaren gaineko biografia Donostian, Jaurlaritzak daukan egoitzan. Apaolazak botika izan zuen Bergaran eta Antzuolan, eta idazlea ere izan zen. > 31

**GERTAERA** > ISTRIPUA

## Oñatikoa da Eibarren obus eztandan zaurituetako bat

Egubakoitzean Arraten (Eibar) jazotako obusaren eztandaren ondorioz, bi gizon oso larri daude Barakaldoko Cruces ospitalean. 36 urteko gizona, esku bat galdu duena, Oñatikoa da; eta besoa galdu duen 50 urteko gizona, berriz, eibartarra. Biek erretura handiak dituzte eta larri daude Crucesen, aireztatze mekanikoak lagunduta. Horrekin lotuta, Ertzaintza egubakoitzean gertatutakoa ikertzen dabil, eta ez du baztertzen 1936ko armak gordetzeagatik zauritutakoak akusatzeko aukera. Arduragabekeriaz jokatzea eta zauriak eragitea, eta baita armak biltzea leporatu diezaiekete. > 05



Korrikako kamisetak opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**EKONOMIA SOZIALA** > EZAI FUNDAZIOA

# Politika publikoak hobetzeko proposamenak egiten ditu Ezaik

**IKERKETAK** Ezairen helburua da ikerketa proiektuak sustatzea zientzia sozialetan, batez ere kooperatibetan

**POLITIKA** Erabaki politikoak hartzeko ahalmena dutenei proposamenak egitea da ikerketen ondorioa

**DOKUMENTUAK** Iritziak jasotzen dituzte 'Position paper'-etan eta hedapen sare batean bidez zabaldu

**DEBAGOIENA** Ibarrean ekonomia sozialak duen garrantziarekin eragin zuzena dute proposamenek

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Krisia, gainbehera, ekonomia globala… horrelako berbak sarri entzuten ditugu azken aldian, baina bada mundu zabaleko ekonomiari baino ekonomia sozialari gehiago erreparatzen dionik. Arrasaten, Garaia gunean egoitza duen Ezai fundazioak, esaterako, aztertzen du politika publikoak ekonomia mota horretan dun eragina. Fundazioko kide Errukane Aperribaik eman dizkigu azalpenak.

Ikerketak egitea helburu duen fundazioa da Ezai. "Gure helburua da sustatzea eta zuzentzea ikerketa proiektuak zientzia sozialetan eta batez ere zuzenbide kooperatiboan eta enpresa antolaketan", esan digu.

Ezairen helburua da ekonomia sozialari dagozkion politika publikoak hobetzea. "Ikerketetan oinarritzen gara politika publikoak hobetzeko eta politikan erabakiak hartzeko ahalmena dutenei proposamenak egin ahal izateko", azaldu digu. Honen esanetan, "politikariek hartzen dituzten erabakiek eragin zuzena dute gure eguneroko bizitzan: dirulaguntzek, legeek…".

**KOOPERATIBISMOAN ZENTRATUTA**

Ekonomia sozialaren alde egiten dute lan, batez ere kooperatibismoan zentratuta. "Ekonomia sozialari buruz berba egiten dugunean dihardugu behar batzuk asetzen dituen ekonomia batetaz. Horren barruan daude kooperatibak, sozietate mugatuak, elkarteak, fundazioak eta mutualitateak; egitura demokratikoetan oinarritzen diren ekimen ekonomikoak; enpresa jarduera duten elkarteak. Horietara bideratuta egiten ditugu ikerketak eta proposamenak".

**IKERKETAK LAN LERRO NAGUSI**

Ezairen lan lerro nagusiak bi dira: ikerketak garatzea eta *Position paper* direlakoak. Ikerketak gehienak zuzenbide kooperatiboari buruzkoak dira Euskal Herri, Espainia, Europa edo Latinoamerika mailakoak. "Inguruan badugu zuzenbide kooperatiboaren gaineko jakituria eta hori probesten dugu", dio Aperribaik.

Ikerketak behar batetik sortzen dira; Mondragon Taldeko kooperatiba batetik, Mondragonetik bertatik, beste erakunde edo fundazio batetik… "Esaterako, esaten digute badagoela lege bat eragozten duena erakunde ekonomiko bat sortzea eta kendu edo aldatu behar dela eta guk aukeratuko dugu ikerlari bat edo aditu talde bat araua aztertzeko". Adituak izan litezke ekonomia sozialeko enpresa mundukoak, unibertsitateetako irakasleak, kooperatiba ikerketarako institutuetako kideak edo politika arloa ezagutzen dutenak.

**IRITZIAK 'POSITION PAPER'-ETAN**

Ikerketetatik edo beste esperientzietako dokumentuak dira *Position paper* direlakoak. "Iritzi eta proposamenak jasotzen dituzte politika publikoak hobetze aldera. Zabaltzen ditugu gure hedapen sare baten bidez erakunde publikoetara, aldizkari berezituetara, ikertzaileei, ikerketa institutuetara…". Aldizkari berezituetan ez ezik publikatu izan dituzte Europako Batasuneko webgunean eta beste webgune batzuetan ere.

Ikerketak Ezaik kudeatzen ditu eta *Position paper*-ak Ezaik kooperatiba mugimenduaren laguntzarekin. Izan ere, adituek egiten dituzten proposamenak eztabaidatu egiten dira.




Errukane Aperribai Garaia gunean dagoen Ezai fundazioaren bulegoan, hainbat argitalpenekin. IRATI AGIRREAZALDEGI

Errukane Aperribairen esanetan, "Proposamenak era askotakoak izan daitezke: lege bat aldatzea, lege berri bat sortzea, dirulaguntza lerro bat ateratzea… Lege bat alda liteke, esaterako, zergak aldatzeko eta hobekuntza ekonomikoak izateko".

**ERABAKIEK GUREAN ERAGINA**

Materiala kooperatiba mugimenduen esku utzi ostean, eurak arduratzen dira harreman instituzionalaz. "Garrantzitsua da jakitea gure proposamenak kontuan izan dituztela edo gure webgunea kontsultatzen dela".

Ezaitik esan digutenez, "kontuan izanda gure ibarrean ekonomia sozialak eta batik bat kooperatibismoak duen garrantzia, proposamenek eragin zuzena dute. Guk ez dugu bereziki bailarara begira lan egiten baina hartzen erabakiek eragiten dute".

EZAIK ESKU ARTEAN DITUEN PROIEKTUAK

## Lanbide heziketako Europako tituluen baliozkotzea

Lanbide Heziketako Europako titulazioen baliozkotzearen gaineko proiektu bat bukatzen dihardute. Europako hainbat erakunderekin eta hango dirulaguntzarekin egin dute, batzuek hezkuntza mundukoak eta besteak kooperatiben ingurukoak eta saiatuko dira logistikako eta garbitasuneko tituluak baliozkotzen. Oso lotuta dago Europa osoan titulazioa berdina izan dadin egiten den ahaleginarekin.

## Gogoeta fundazioen lanaren xedeen eta onuradunen gainean

Fundazioen xedeen eta onuradunen gaineko gogoeta egiten dihardute dirulaguntza pribatuarekin. Fundazio baten lanaren onuradunak zein diren edo izan daitezkeen pentsatzea da asmoa. Espainiako legearen arabera publiko orokorra da onuradun eta Europako beste herrialde batzuetan proposatzen da publiko zehatza ere izatea; aukera biak ematen dira eta Espainian bakarra.

## Brasilgo kooperatiba legearen eta hemengoaren alderaketa

Lege alderaketa egiten dihardute hemengo kooperatiba legearen eta Brasilgoaren artean hango unibertsitate baten eta gobernuaren laguntzaz. Brasilgo legea diktadura garaikoa da eta gaur egun lege horren arabera eratuta dauden kooperatibek ez dute zerikusirik hemengoekin. Ari dira antolatzen zabor biltzaileak, laborariak… baina kooperatiba legean ez dute kabidarik eta euren lana arautzea da asmoa.

## Proiektu gehiago Jaurlaritzako laguntzekin eta aportazio pribatuekin

Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzako dirulaguntzarekin bi proiektu egiten ari dira: *Lan-zuzenbide kooperatiboa: gogoeta eta proposamenak* eta *Bazkide langileei edo lan-bazkideei galerak egoztea: irizpideak.* Bestalde diru aportazio pribatu batekin eta Europa mailako kooperatiba elkarte batenarekin aukera dute lantzeko talde kooperatiboen inguruko politika publikoetarako proposamenak.

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Hasi dituzte Aramaio eta Eskoriatza bitarteko Induspe tunelaren lanak

Eskoriatzako Mazmela auzotik Aramaiora bitartean egingo dute tunela, eta 5,58 kilometroko luzera izango du; hiru biaduktu izango ditu



AHTko lanak aurrera doaz Eskoriatzan eta Aramaion (argazkian). ARRITXU BARRUSO

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari Mikel Cabiecesek hedabideen aurrean agertu du hasiak direla dagoeneko Abiadura Handiko Trenaren Eskoriatza eta Aramaio bitarteko lanak egiten. Induspeko tunela (2.224 metroko luzera) da zulatzen hasi direna, Eskoriatzako Mazmela auzoa eta Aramaio lotuko dituena.

**HIRU BIADUKTU**

Bi bideko tunela izango da eta Eskoriatza eta Aramaio bitarteko tramuak osotasunean 5,58 kilometroko luzera izango du. Horrez gain, hainbat elementu izango ditu bere baitan: GI-3343 errepidearen, Zarimutzen eta Uriartearen gaineko biaduktu bana (471, 261 eta 282 metrotakoak, hurrenez hurren); eta bi noranzko tunelak Uruburu-1, Uruburu-2, Mazmela eta Induspen (475, 460, 384 eta 2.224 metrotakoak, hurrenez hurren). Horrez gain, Aramaion trenak geldi egoteko postu bat (PAET) egitea ere aurreikusita dago (1.195 metrotako luzera izango luke horrek eta Aramaioko lurretan egongo litzateke, hain zuzen ere).

**SISTEMA BERRITZAILEA**

Induspeko tunela Eskoriatzako lurretan hasiko da eta Aramaion bukatu. Bi noranzko tunelak 2.224 metrotako luzera izango du eta 85 metro koadroko ingurune aske bat. Tunelak zeharkatuko duen lurra arbela, lutita eta kareharriz osatuta dago.

Espainiako Gobernuari dagozkion AHTko lanen kudeaketa daraman ADIF enpresak egunotan jakinarazi du tunel horren hondeaketa egiteko Austriako sistema berria erabiltzen dabiltzala; horretarako makina berezi bat ibiliko dute.

Lehenik eta behin, bobeda hondeatuko dute; horren ostean drainatzea egiteko asmoa daukate. Lan horiei iragazgaitze lanek jarraituko diete eta tunelaren estaltzea izango da hurrengo lana. Tunela bukatzeko, elektrizitatea, seinaliztapena eta komunikazioak ere osatu beharko dituzte.




**Juan Migel Dorronsoro** > Frantziskotarra

# "Gizartean balio handiak eskuratu ditugu; eta beste batzuk ahaztu samar daude"

**JASONE ZABALA** > OÑATI

**Juan Migel Dorronso frantziskotarra da eta berarekin jardun dugu Asis Sareari buruz hitz egiten: besteak beste, sarea zer den eta bertako helburuak zeintzuk diren azaldu dizkigu.**



Juan Migel Dorronsoro, Bidaurretako konbentuan. MIREIA BIKUÑA

**Noiz sortu zen Asis Sarea, eta zertarako?**

Pasa den urteko urriaren 25ean sortu zen Arantzazun. Bertan egin zen lehenengo aurkezpena eta harrez gero hasi da zenbait lekutara zabaltzen. Honen oinarrian bi gauza daude: lehena da, uste bat; hau da, guk uste dugu gizartean balio handiak eskuratu ditugula, eta beste batzuk ahaztu samar daudela; bestea da, Asisko San Frantziskok bizi izan zuenak gaur egun duen zeresana.

Bi gauza horiek kontutan hartuta hasi dugu Asis Sarea proiektua. Eta martxan jarri dugu iruditzen zaigulako, gaurko gizon eta emakumeek espiritualtasuna berreskuratu behar dutela hobeto bizitzeko. Horretarako Asisko San Frantzisko hartu dugu erreferentzi moduan, berak lagundu diezagukeelako jendeak dituen hutsune espiritualak betetzen.

**Zeintzuk dira proiektuaren ardatzak?**

Lau ardatz daude: alde batetik, galdetu eta bilatu; fedearen aldetik begiratuz gero esango genuke jainkoaren bilaketa; bigarrenik, umiltasuna; hau da, norberak bere bizitza aztertu eta bere mugak zeintzuk diren jakin; hirugarrena, bakarrik ez gaudela jakitea, hau da, guretik zerbait ateratzea besteen alde egiteko; horrek esan nahi du, bizitza jaso dugula eta bizitza eskaintzeko dela; eta azkenik, elkartasun edo anaitasuna; bilaketa honetan ez gaudelako bakarrik.

**Zergatik pentsatu zenuten Asis Sarearen gunea Oñati izatea; eta zein da orain arteko balorazioa?**

Arantzazun hasi zen frantziskotarrak aspaldidanik daudelako bertan eta nonbaiten hasi beharra zegoelako. Hain zuzen ere, urriaren 27an ospatzen da mundu guztian Asisko Espiritua deitzen dena: duela 25 urte erlijio guztietako ordezkariak bildu ziren Asisen, eta hori ospatzen ari ginela iruditu zitzaigun une egokia zela Asis Sarea Arantzazun aurkezteko. Balorazioari dagokionez, oso ona izan da; 800 pertsona baino gehiagok izena eman dute Asisko gutuna jasotzeko, eta hori da sare honen lotura. Helburu inportanteena ez da zenbatek eman duten izena; baizik eta bakoitzak, ahal duen edo nahi duen moduan; hau ez da erakunde bat.

**Zer egin behar da Asis Sareko kide izateko?**

Bakarrik helbide bat eman, ahal izanez gero elektronikoa eta ez dutenek, helbide arrunta; ondoren, hilero jasoko dute Asisko gutuna deitzen dena etxean, eta gutun horretan gogoeta gaiak, otoitz gaiak eta irakurgaiak daude. Ondoren, hilean behin, azken eguenean, hainbat lekutan egiten ditugu topaketak: elkartasunean otoitz egiten dugu eta gogoeta gunea ere bada. Edozein izan daiteke kide; ez da ez adinik ezta erlijiorik kontuan hartzen; gainera, apirilean beste puntu batzuetara ere zabalduko da Asis Sarea: Gaztela Leon ingurura, Valladolid aldera eta baita Santanderrera ere.

---

**etxeko leihotik**



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Ezinbestekoa da gauzak bereizten jakitea

Eguenean, bazkaltzen nengoela, etxeko leihotik ikusi nituen Ertzaintzaren bospasei furgoneta Arrasateko erdigunera sartzen. Arraroa egin zitzaidan, baina beste barik. Gero jakin nuen Arrasate bihurtu dela berriro hedabide eta botereen pultsua irudikatzeko herria.

Nazkatuta nago horrekin; aurretik ere hori bizitakoak gara. Heriotza batek daukan samin guztiak ez du edozer gauza justifikatzen; eta edozer gauzak ez du heriotza bat justifikatzen, jakina. Nazkagarria da; suari indar handiagoa ematea da hori, giroa kakaztea beste behin.

**"Euskal Herriko gizarte zabala ez da muturrekoa, baina hala nahi dute batzuek"**

Batzuk obsesionatuta daude giro txar handiagoa sortzearekin, gauzak muturreraino eramatearekin eta iritzi publikoari gauza txiki, arruntak direnak neurri barik *anplifikatu* eta *tremendistak* direla erakustearekin. Eta helburu horien artean dago sinbolo bihurtu ei den Arrasateko alkatetza kentzea ere, jakina.

Hala, hedabideak eta aspaldiko pultsuak muturreko iritziak bultzatzen dihardute. Badirudi Batasunaren aldekoa izanda ezin dela ETArekin kritikoa izan, edo beste muturrean EAJren edo PSE-EEren jarraitzaile batek Alderdien Legearen kontra egin edo presoen oinarrizko eskubideekin bat egin ezin dezakeenik. Halakoa ez da Euskal Herrian bizi den gizarte zabala, baina halakoak bihurtu nahi gaituzte eta horretan dihardute ahalegin handiarekin.

**> Fronteak sortzea**

**Gauzak bereiztea gero eta zailagoa izan dadin lan egiten dute batzuek, fronteak egon daitezen. Presoen oinarrizko eskubideak betearazteko eskatzea edo ETArekin kritikoa izatea ez dira bateraezinak, nahiz eta hala esaten duten**

**> Arrasate, jomuga**

**Herrialde bateko edo Estatu oso bateko arazoak eta gorabeherak ez dira konponduko Arrasaten gertatuko denarenaren arabera. Baina, hala jokatzen dute, krisia eta bestelako eskandaluak ahaz ditzagun-edo**

---

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

# Amnistiaren Aldeko Mugimenduak presoen argazkiak kendu izana gogor salatu du

Azaldu zuten Euskal Herriko elkartasunak errepresioa garaituko duela, eta herritarrei presoen alde egiteko eskatu zieten

**I.B.** > ARRASATE

Joan den eguenean Ertzaintzak Arrasateko presoen argazkiak Portaloitik kendu izanaren aurrean, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak hainbat salaketa egin ditu. Lehenik eta behin, jakitera eman dute salatzen dutela Ertzaintzak izandako jarrera: "Entzutegi arrotzen aginduei men eginez, Arrasateko seme-alaben argazkiak kentzen ikusi" zituztelako "harrokeria handiz".

**ELKARTASUN HANDIAGOA**

Horri gehitu diote zenbat eta euskal preso politiko gehiago egon, "orduan eta elkartasun handiagoa eta argazki gehiago izango direla Euskal Herriko txoko guztietan; baita preso politikoen aldeko mobilizazioak" egingo dituztela ere.

Azaldu zuten, baita ere: "Azken euskal preso politikoa etxean izan arte, amnistiaren aldeko borrokak ez du etenik izango. Behin eta berriz kolpatuko gaituzte, baina herri honetan dagoen elkartasunak errepresioa garaituko du; eta elkartasuna balore indartsua da, inongo gobernu, polizia eta espetxe politika baino indartsuagoa".

Bukatzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak herritarrei dei egin zien Euskal Herriko bazter guztiak euskal preso politikoen aldeko mezuz betetzeko eta horren alde egiteko.

---

**GERTAERAK** > ISTRIPUA

# Oñatikoa da Eibarren obus eztandan zaurituetako bat

Egubakoitzean 36 urteko oñatiar batek eskua galdu zuen Arraten (Eibar)

**I.B.** > BERGARA

Egubakoitzean Arraten (Eibar) gertatutako obusaren eztandaren ondorioz, bi gizon oso larri eraman zituzten Crucesko (Barkaldo) ospitalera. Biak oso egoera larrian daude: 36 urteko oñatiarrak esku bat galdu du; eta 50 urteko eibartarrak, besoa. Horrez gain, biek erretura oso garrantzitsuak dituzte eta tratamendu handia behar dute.

Une honetan Crucesko ospitalean daude ingresatuta, airez-tapen mekanikoak lagunduta.

**AKUSATUAK IZAN DAITEZKE**

Ertzaintza egubakoitzean Arraten (Eibar) gertatutakoa ikertzen dabil, eta ez du baztertzen 1936ko armak gordetzeagatik zaurituak akusatzeko aukera. Kasu horretan, arduragabekeriaz jokatzea eta zauriak eragitea, eta baita armak biltzea ere leporatu ahal izan diezaiekete.

**Juan Migel Dorronsoro** > Frantziskotarra

# "Gizartean balio handiak eskuratu ditugu; eta beste batzuk ahaztu samar daude"

**JASONE ZABALA** > OÑATI

**Juan Migel Dorronso frantziskotarra da eta berarekin jardun dugu Asis Sareari buruz hitz egiten: besteak beste, sarea zer den eta bertako helburuak zeintzuk diren azaldu dizkigu.**



Juan Migel Dorronsoro, Bidaurretako konbentuan. MIREIA BIKUÑA

**Noiz sortu zen Asis Sarea, eta zertarako?**

Pasa den urteko urriaren 25ean sortu zen Arantzazun. Bertan egin zen lehenengo aurkezpena eta harrez gero hasi da zenbait lekutara zabaltzen. Honen oinarrian bi gauza daude: lehena da, uste bat; hau da, guk uste dugu gizartean balio handiak eskuratu ditugula, eta beste batzuk ahaztu samar daudela; bestea da, Asisko San Frantziskok bizi izan zuenak gaur egun duen zeresana.

Bi gauza horiek kontutan hartuta hasi dugu Asis Sarea proiektua. Eta martxan jarri dugu iruditzen zaigulako, gaurko gizon eta emakumeek espiritualtasuna berreskuratu behar dutela hobeto bizitzeko. Horretarako Asisko San Frantzisko hartu dugu erreferentzi moduan, berak lagundu diezagukeelako jendeak dituen hutsune espiritualak betetzen.

**Zeintzuk dira proiektuaren ardatzak?**

Lau ardatz daude: alde batetik, galdetu eta bilatu; fedearen aldetik begiratuz gero esango genuke jainkoaren bilaketa; bigarrenik, umiltasuna; hau da, norberak bere bizitza aztertu eta bere mugak zeintzuk diren jakin; hirugarrena, bakarrik ez gaudela jakitea, hau da, guretik zerbait ateratzea besteen alde egiteko; horrek esan nahi du, bizitza jaso dugula eta bizitza eskaintzeko dela; eta azkenik, elkartasun edo anaitasuna; bilaketa honetan ez gaudelako bakarrik.

**Zergatik pentsatu zenuten Asis Sarearen gunea Oñati izatea; eta zein da orain arteko balorazioa?**

Arantzazun hasi zen frantziskotarrak aspaldidanik daudelako bertan eta nonbaiten hasi beharra zegoelako. Hain zuzen ere, urriaren 27an ospatzen da mundu guztian Asisko Espiritua deitzen dena: duela 25 urte erlijio guztietako ordezkariak bildu ziren Asisen, eta hori ospatzen ari ginela iruditu zitzaigun une egokia zela Asis Sarea Arantzazun aurkezteko. Balorazioari dagokionez, oso ona izan da; 800 pertsona baino gehiagok izena eman dute Asisko gutuna jasotzeko, eta hori da sare honen lotura. Helburu inportanteena ez da zenbatek eman duten izena; baizik eta bakoitzak, ahal duen edo nahi duen moduan; hau ez da erakunde bat.

**Zer egin behar da Asis Sareko kide izateko?**

Bakarrik helbide bat eman, ahal izanez gero elektronikoa eta ez dutenek, helbide arrunta; ondoren, hilero jasoko dute Asisko gutuna deitzen dena etxean, eta gutun horretan gogoeta gaiak, otoitz gaiak eta irakurgaiak daude. Ondoren, hilean behin, azken eguenean, hainbat lekutan egiten ditugu topaketak: elkartasunean otoitz egiten dugu eta gogoeta gunea ere bada. Edozein izan daiteke kide; ez da ez adinik ezta erlijiorik kontuan hartzen; gainera, apirilean beste puntu batzuetara ere zabalduko da Asis Sarea: Gaztela Leon ingurura, Valladolid aldera eta baita Santanderrera ere.

---

etxeko leihotik



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Ezinbestekoa da gauzak bereizten jakitea

Eguenean, bazkaltzen nengoela, etxeko leihotik ikusi nituen Ertzaintzaren bospasei furgoneta Arrasateko erdigunera sartzen. Arraroa egin zitzaidan, baina beste barik. Gero jakin nuen Arrasate bihurtu dela berriro hedabide eta botereen pultsua irudikatzeko herria.

Nazkatuta nago horrekin; aurretik ere hori bizitakoak gara. Heriotza batek daukan samin guztiak ez du edozer gauza justifikatzen; eta edozer gauzak ez du heriotza bat justifikatzen, jakina. Nazkagarria da; suari indar handiagoa ematea da hori, giroa kakaztea beste behin.

**"Euskal Herriko gizarte zabala ez da muturrekoa, baina hala nahi dute batzuek"**

Batzuk obsesionatuta daude giro txar handiagoa sortzearekin, gauzak muturreraino eramatearekin eta iritzi publikoari gauza txiki, arruntak direnak neurri barik *anplifikatu* eta *tremendistak* direla erakustearekin. Eta helburu horien artean dago sinbolo bihurtu ei den Arrasateko alkatetza kentzea ere, jakina.

Hala, hedabideak eta aspaldiko pultsuak muturreko iritziak bultzatzen dihardute. Badirudi Batasunaren aldekoa izanda ezin dela ETArekin kritikoa izan, edo beste muturrean EAJren edo PSE-EEren jarraitzaile batek Alderdien Legearen kontra egin edo presoen oinarrizko eskubideekin bat egin ezin dezakeenik. Halakoa ez da Euskal Herrian bizi den gizarte zabala, baina halakoak bihurtu nahi gaituzte eta horretan dihardute ahalegin handiarekin.

**> Fronteak sortzea**
**Gauzak bereiztea gero eta zailagoa izan dadin lan egiten dute batzuek, fronteak egon daitezen. Presoen oinarrizko eskubideak betearazteko eskatzea edo ETArekin kritikoa izatea ez dira bateraezinak, nahiz eta hala esaten duten**

**> Arrasate, jomuga**
**Herrialde bateko edo Estatu oso bateko arazoak eta gorabeherak ez dira konponduko Arrasaten gertatuko denarenaren arabera. Baina, hala jokatzen dute, krisia eta bestelako eskandaluak ahaz ditzagun-edo**

---

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

# Amnistiaren Aldeko Mugimenduak presoen argazkiak kendu izana gogor salatu du

Azaldu zuten Euskal Herriko elkartasunak errepresioa garaituko duela, eta herritarrei presoen alde egiteko eskatu zieten

**I.B.** > ARRASATE

Joan den eguenean Ertzaintzak Arrasateko presoen argazkiak Portaloitik kendu izanaren aurrean, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak hainbat salaketa egin ditu. Lehenik eta behin, jakitera eman dute salatzen dutela Ertzaintzak izandako jarrera: "Entzutegi arrotzen aginduei men eginez, Arrasateko seme-alaben argazkiak kentzen ikusi" zituztelako "harrokeria handiz".

**ELKARTASUN HANDIAGOA**

Horri gehitu diote zenbat eta euskal preso politiko gehiago egon, "orduan eta elkartasun handiagoa eta argazki gehiago izango direla Euskal Herriko txoko guztietan; baita preso politikoen aldeko mobilizazioak" egingo dituztela ere.

Azaldu zuten, baita ere: "Azken euskal preso politikoa etxean izan arte, amnistiaren aldeko borrokak ez du etenik izango. Behin eta berriz kolpatuko gaituzte, baina herri honetan dagoen elkartasunak errepresioa garaituko du; eta elkartasuna balore indartsua da, inongo gobernu, polizia eta espetxe politika baino indartsuagoa".

Bukatzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak herritarrei dei egin zien Euskal Herriko bazter guztiak euskal preso politikoen aldeko mezuz betetzeko eta horren alde egiteko.

---

**GERTAERAK** > ABUSUA

# Kartzela zigorra merkatari bati, eraso sexualagatik

Epaitutako gertaera 2007ko ekainean jazo zen, Arrasateko saltoki baten

**I.B.** > ARRASATE

Arrasateko merkatari bati urtebeteko kartzela eta 1.620 euroko zigorra ezarri diote bezero bati birritan eraso sexuala egiteagatik.

Gertaera 2007ko ekainean izan zen, Arrasateko saltoki baten. Epaian jakinarazi dutenaren arabera, dendariak emakume bati saltokira sartzeko gonbidapena egin zion; eta emakumea sartu zenean, merkatariak denda giltzaz itxi zuen. Jarraian, emakumeari bularrak ukitzen eta musuak ematen hasi zitzaion.

Emakumeak dendatik alde egitea lortu zuen, eta gerora mutil lagunarekin batera joan zen, baina dendariak berriro egin zion eraso. Hala, biktimak salaketa jarri zuen. Epaiaren arabera, dendariak onartu du emakumeak salatutakoa eta zigorra ontzat hartu du.

**ENPRESA** > TXINAKO INBERTITZAILEAK

# Elcoro Taldea, Txinan sarea zabaldu nahian

Zhongtai inbertitzaile taldearekin harremanak sendotu ditu Elcorok, sektore eolikoan eta trenbide sarean proiektuak garatzeko asmoz

**E.M.** > BERGARA

Markel Olano diputatu nagusiak Txinako enpresari talde bati harrera egin zion eguenean, Donostian. Txinatik etorritako delegazioarekin batera, Jose Ramon Guridi Berrikuntza diputatua, Jose Miguel Ayerza Adegiko idazkari orokorra eta Elcoro taldeko ordezkariak izan ziren Diputazioaren egoitzan egindako harreran. Hain zuzen ere, Elcoro taldea izan da Txinako enpresarien bisita bultzatu duena. Markel Olano ahaldun nagusiak Euskadiko eta Gipuzkoako egitura instituzionalen berri eman zien txinatar ordezkariei eta, era berean, kontzertu ekonomikoaren ezaugarriak eta ikerketa eta garapenerako zuzendutako inbertsioak azaldu zizkien. Industria inbertsioak egiteko orduan Gipuzkoak dituen abantailak azpimarratu zituen Olanok Txinako delegazioarekin izandako bileran.

**ELCORO, PROMOTOREA**

Esan bezala, Elcoro taldea izan da txinatarren bisitaren eragilea. 1892. urtean Eibarren sortuta, dekoletajea eta pieza metalikoen mekanizatua da Elcoro taldeko enpresen alorra, automobilgintza sektorerako nagusiki. 200 langiletik gorako lan taldea du Elcorok hainbat lantegitan banatuta: Bergaran, Elgetan, Mendaron, Gasteizen, Orkoienen (Nafarroa) eta Jiang Yinen, Txinan. 30 milioi euro inguruko fakturazioa du taldeak.

Txinan orain arte izandako esperientzia oinarri hartuta, Elcorok Zhongtai inbertitzaile taldearekin harremanak sendotu ditu azken aldian. Mekanizatuaren sektorean proiektu bat garatzea da Elcoro Taldeko arduradunen asmoa, sektore eolikoan eta Txinako trenbide sare zabalean sor daitezkeen beharrak garatzeko helburuarekin. Aldi berean, txinatarrek Euskadiko inbertsio aukeren aurrean interes handia azaldu dute.



Olano diputatua Txinako inbertitzaileekin eta Elcoro Taldeko ordezkariekin, eguenean. DIPUTAZIOA

**DIPUTAZIOA** > OGASUN SAILA

## Zerga iruzurrari aurre egiteko, sistema berria

Sistema informatiko berriak hiru milioi euroko aurrekontua izango du

**A.G.** > BERGARA

Zerga iruzurrari aurre egiteko Ikus izeneko sistema informatikoa jarriko du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailak. Indra enpresak diseinatuko du sistema berria, eta hiru helburu ditu: arriskutsutzat hartzen diren zerga ordaintzaileei buruzko informazio osoa eta etengabea edukitzea, ikuskatzeen planak azkartzea eta espedienteen jarraipena eta ebaluazioa erraztea. Hiru milioi euroko aurrekontua du proiektuak.

Besteak beste, Ogasun eta Finantza sailak dituen datu base guztiak batzeko balioko du sistema informatikoak. Horrela, datu denak eduki eta zerga ordaintzaileari buruzko espediente elektronikoa egin ahal izango da. Hala, Ogasunak errazago lortuko du informazioa.

**IAZ, 335,7 MILIOIKO IRUZURRA**

Diputazioak ahalegin berezia egin nahi du aurten iruzurraren aurka. Pello Gonzalez Ogasun diputatuak adierazi duenez, sistema informatiko berria da horretarako bideetako bat. Horrez gain, plan espezifiko bat jarri dute martxan, eta iruzurraren aurkako lantaldea ere handituko dute. Iaz, guztira 335,7 milioi euroko iruzurraz konturatu zen Diputazioa, inoizko kopururik handiena.

> JARDUNALDIAK

### Familia enpresaren iraupenaren gaineko ikastaroak

Gaur, astelehena, familia enpresaren iraupenari eskainitako jardunaldian azken saioa egingo dute Bergarako Miguel Altuna institutuan, 16:00etatik 19:30era. Argibideak 943 00 03 09 telefono zenbakian.

Bestalde, Adegik familia enpresen diagnostikoa eta hobekuntza sustatzeko programa pilotua jarri du abian. Zenbait ikastaroren bitartez, enpresa horien kudeaketa hobetzeko erremintak ematea da asmoa. Lehenbiziko saioa martxoaren 26an izango da. Argibideak *http://www.adegi.es* webgunean edo 943 30 90 30 telefono zenbakian.

> EUROPAKO BATZORDEA

### Lan astea murrizteko aukera aztertuko dute maiatzaren 7an

Europako zenbait herrialdetan lan astea murrizten dabiltza krisiari aurre egiteko, Herbehereetan eta Alemanian, esaterako. Neurri hori orokortzeko aukera aztertuko dute Europako Batzordeak, Europako Batasuneko gobernuek eta EBko sindikatuek eta enpresaburuek maiatzaren 7an Pragan.

Neurri horren alde daude Europako Batzordea eta BusinessEurope enpresarien elkartea. Zuhurragoa da Europako Sindikatuen Konfederazioa. BusinessEurope alde dago, betiere eraginkortasunari eusten bazaio eta lan merkatuan kalterik ez bada.

**ENPRESA** > ZORRAK

# Eroski 1.800 milioi euroko zorra birnegoziatzen dabil

Eroski Taldeko iturriek zehaztu nahi izan dutenez, ez da egia zor hori guztiori Capraboren erosketarekin lotuta dagoenik

**T. MADINA** > ARRASATE

Eroski taldeak duen 1.800 milioi euroko zorra birnegoziatzen ari dabil hainbat bankurekin. Zenbait iturriren arabera, birnegoziaziorako Goldman Sachs negozio-bankua kontratatu du Eroskik. Kooperatibako arduradunekin harremanetan jarrita, baieztatu egin digute birnegoziazio hori burutzen dabiltzala, baina zehaztu dute ez dela egia zor hori guztiori Capraboren erosketarekin lotuta dagoenik. Negozio-bankua kontratatu dutenik ere ez dute baieztatu edo gezurtatu nahi izan Eroskiko iturriek. Zabaldutako hainbat informazioren arabera, zorrari aurre egiteko Eroskin saltzearren hornitzaileei diru gehiago eskatu die talde kooperatiboak. Arduradunek, baina, hori ere ez dela zuzena argitu dute.

**FAGOR INDUSTRIALEN ZUZENKETA**

Bestalde, hainbat hedabidetan astean zehar irakurri ahal izan dugunez, Fagor Industrialeko langileek ezezkoa eman zioten pasa den astean egindako batzarrean soldatak %8 murrizteari. Fagor Industrialen arabera, batzar horretan ez zuten landu soldaten murrizketaren gaia. Zehaztu dute ezezkoa 2009rako gestio planari eman ziotela.



Erosle talde bat Arrasateko Hiper Eroskin. ARTXIBOA

auzorik auzo

**GESALIBAR** > Auzoaren izenak "ur gazien ibarra" esan gura du. Sulfurozko iturburuak gaixotasunak sendatzeko erabiltzen ziren, eta bainuetxe ospetsua egin zuten haren inguruan. Auzoko gorabeherak azalduko ditugu jarraian.



Jose Ramon Askasibar, auzoko plazatxoan. ARANTZAZU EZKIBEL

**Jose Ramon Askasibar** > Auzo-alkatea

# "Gipuzkoako bidearen zati bat auzotik pasatzen da, Arlabandik Kanpanzarrera"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Jose Ramon Askasibar Urretxun jaio zen, baina gaur egun Gesalibargo Errotaetxe baserrian bizi da. Dagoeneko sei urte egin ditu auzo-alkate lanetan. Harekin izan gara auzoan, auzotarren kezkak ezagutu eta istorioak jasotzen.**

**Gesalibar izenak *ur gazien ibarra* esan gura du.**

Bai, hala da. Sulfurozko iturburuak daude auzoan, eta gaixotasunak sendatzeko erabili izan dira urtetan. Iturburu nagusia giltzapean dago, ezin da bisitatu. XX. mende hasieran hartu zituzten fraidek eurendako iturburuak.

**Orain urte batzuk, auzoan talde bat sortu zenuten auzoko kexak bideratzeko. Ze behar betetzeko sortutako taldea da?**

Aipatutako lantaldea ez da berria. Auzoko batzordea da eta Udala aldatzen denean aldatzen da batzordea ere. Auzoan bertan egiten da bozketa; auzo-alkatea eta batzordea aukeratzen dira. Taldearen eginbeharra, udaletxera iradokizunak eramateaz gain, auzoan proposamena egitea ere bada. Gainera, festak antolatzen ditugu eta urteko auzo-lana egin, besteak beste.

**Non elkartzen zarete auzotarrak?**

Auzo lokal publikorik ez daukagu; oraingoz, auzo elkarteak utzitako lokal batekin moldatzen gara. Esan behar da auzo etxe bat auzoaren erdigunean beharrezko ikusten dugula.

**Zein da gaur egun auzoak duen kezka nagusia?**

Arazo nagusiak zerbitzuei dagozkienak dira. Adibidez, teknologia berrien arloan gas naturalaren falta daukagu. Bestalde, auzoko sarrera nagusia egokitu beharra dagoela uste dugu.

Kirol eta aisialdirako gune babestu baten beharra ere ikusten dugu.

Gainera, esan behar da autoak oso azkar pasatzen direla auzotik. Horren inguruan zerbait egin beharko litzateke.

**Gainera, AHT ere hor dago. Zelan eragingo dio auzoari?**

Espero dut AHTk ez eragitea auzoan. Hori esaten dut, proiektua bertan behera geratzeko itxaropenarekin nagoelako. Hala ere, aurrera egiten badute gaur egungo proiektuarekin, auzoan eragin zuzena eta sakona izango luke. Fisikoki, zauria hor geratuko litzateke eta zarata izugarria izango litzateke.

**Auzotik bertatik Udalatx ikusten da. Badago auzoan egin daitekeen ibilbideren bat?**

Bai, badaude ibilbideak. Esaterako, Besaideko bidea auzotik pasatzen da; eta, Gipuzkoako itzuliko bidearen zati bat baita ere. Arlaban eta Kanpanzar batzen dituen ibilbidearen zatian, hain zuzen.

**Dagoeneko ospatu dituzue Santa Ageda jaiak.**

Santa Ageda jaiak dira auzoko jaiak. Auzotar asko batzen dituen bertso afaria egiten dugu; azkenaldian, Lisazo eta Egaña bertsolariak etorri dira. Gainera, etxez etxe koruak abesten du.

BAINUETXEAK

## Canovas del Castillo gobernuburua hil zuten bainuetxean

Gesalibarko sulfurozko iturburuak gaixotasunak sendatzeko erabiltzen ziren, eta bainuetxe ospetsua zegoen han. 1897an, Santa Ageda Bainuetxean Antonio Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua erail zuen Angiolillo anarkistak. Historian jasota geratu den gertakaria da hori. XIX. mende bukaeran bainuetxeak itxi egin zituzten eta gaur egun ospitale psikiatrikoa dago bertan.

"Historiari begiratuta, esan behar da Esteban Garibai historialariaren emaztea Gesalibarko Errotaetxe baserrian jaioa zela", azaldu du Jose Ramon Askasibar auzo-alkateak.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Martxoko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Bruesa GBC- MTT Estudiantes partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

ZIRA
Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.



LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra



KAMISETAK
Korrika-ko 4 kamiseta.
BIDALI AG KORRIKA 5533 zkra.



SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Huma Jamshed (Karachi, Pakistan, 1966) ACESOP elkarteko presidenteordea da (emakume pakistandarren kultura eta hezkuntza elkartea). Emakume musulmanen integrazioa bultzatzeko lan egiten dute. Karachi Unibertsitatean kimika irakaslea zen eta 1989an Madrilera joan zen doktoretza egitera; 2001a ezkero Bartzelonan bizi da senarrarekin eta seme-alabekin.

**Huma Jamshed** > ACESOP elkarteko presidenteordea

# "Integraziorako bidean lehen urratsa tokian tokiko hizkuntza ikastea da"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Bergarako Udalak eta Felix Baltistan Fundazioak antolatuta, emakume musulmanen integrazioaren gaineko hitzaldia egin zuen Huma Jamshed-ek. Harekin egin genuen berba Bergarako kultura etxeko hitzaldia hasi aurretik.**


Huma Jamshed, Bergarako Errotalde kultura etxean, eguenean.
MIREIA BIKUÑA

**Emakume musulmanen immigrazioari buruz jardungo duzu. Baina zein da emakume musulmanen egungo egoera?**

Emakume musulmanen artean bi talde bereiz ditzakegu: alde batetik, Pakistandik irten diren arren hango bizimodu eta ohiturekin jarraitu nahi dutenak; eta beste alde batetik, euren arbasoak ahaztu barik beste gizarte batean integratu nahi dutenak.

Kontuan hartu behar dugu Pakistandik irteten diren emakume guztiak familia berriz elkartzeko egin dutela. Emakume musulmanok gure herria utz dezakegu familiarekin elkartzeko bakarrik. Turismoa egiteko, etxeko familiaren ekonomia egoera hobetzeko edo ikasteko ezin dugu Pakistan utzi.

Era berean, herria uzteko edo etxetik irteteko senarraren edo aitaren laguntza behar dugu. Ezin gara bakarrik ibili.

**Egun bizi diren gizartera integratu nahi dutenek ze bide dituzte?**

Elkarteak oso inportanteak dira. Emakume musulmanen integrazioan lan egiten duen elkarte bateko presidenteordea naiz, eta gure laguntzarekin integraziorako lehen urratsa egiten dute askok. Hitzaldiak eta ikastaroak egiten ditugu; besteak beste, osasunari, gastronomiari, dantzari eta edertasunari buruzkoak. Gainera, sexu harremanek sortzen dituzten gaixotasunei buruzko hitzaldi-tailerrak egiten ditugu, eta hizkuntzak lantzen ditugu.

Integratu nahi dugun emakume musulmanok tokian tokiko hizkuntza ikasi behar dugu. Urrats inportantea da.

**Zuk zeuk integratzeko arazorik izan zenuen?**

Egia esan, zortea izan nuen. Pakistandik Madrilera joan nintzen kimikako doktoretza egitera, eta ikaskideek ondo hartu ninduten. Haiekin hartu-eman berezia egin nuen. Gero Bartzelonara joan nintzen, eta ez nuen arazorik eduki. Emakume musulmanen integraziorako eta, oro har, emakume guztien integraziorako ezinbestekoa da parte-hartzea bultzatzea.

**Zuek antolatzen dituzuen ikastaroetan jatorri askotariko pertsonek hartzen dute parte?**

Bai, eta hortxe dago kakoa. Gure elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan, auzoan bizi diren guztiek parte har dezakete; besteak beste, pakistandarrek, marokoarrek eta katalanek. Kultura aniztasunak sortzen du partehartzea eta ondorioz integraziorako bideak zabaltzen ditu. Baina, lehen esan dudan moduan, lehen-lehenik tokian tokiko hizkuntza ikastea ezinbestekoa da emakumeendako.

**Dena den, kalera irteteko senarraren edo aitaren laguntza behar duten emakumeek nola har dezakete parte zuek antolatutako ikastaroetan?**

Ezinbestean, baimena behar dute. Emakume batzuei kosta egiten zaie baimena lortzea, baina lortzen dutenean integraziorako pauso inportantea ematen dute. Noski, egingo duten lehen ikastaroa ez da izango edertasunari edo sexuari buruzkoa. Oinarrizko ikastaroekin hasten dira. Baina edertasunari buruzko tailerra egitera heltzen dira.

BAIMENA

**"Elkarteko ikastaroetan parte hartzeko senarraren edo aitaren baimena behar dute emakumeek"**

ARAZOAK

**"Integratu nahi ez duten emakume musulmanek depresio arazoak izaten dituzte"**

ETORKIZUNA

**"Madrilera heldu nintzenetik asko aldatu da gure egoera, baina asko hobetu behar dugu oraindik"**

**Zuk Pakistanen jaiotako bi seme-alaba dituzu. Ondo integratuta daude?**

5 urteko semearekin eta 3 urteko alabarekin heldu nintzen Madrilera. Orain, 17 eta 15 urte dituzte, eta espainolez eta katalanez pentsatzen dute. Espainola eta katalana menderatzen dituzte, eta inoiz ez dute arazorik izan. Dena den, ez dituzte arbasoen ohiturak galdu nahi.

**Nola hartzen ditugu gure gizartera integratu nahi duten emakume musulmanak?**

Oro har, nahiko ondo. Dena den, mota askotariko pertsonak daude, eta guztiek ez dute immigrazioa onartzen.

**Bizi diren gizartera integratu nahi ez duten emakumeek zer egiten dute?**

Gehienek depresio arazoak izaten dituzte. Etxean egoten dira bakar-bakarrik eta ez dute hartu-emanik inorekin.

**Nolako etorkizuna dute emakume musulmanek?**

Madrilera heldu nintzenetik gaur egun arte egoera asko aldatu da, onerako. Baina lan handia egin behar dugu oraindik. Integrazioa errazteko dauden elkarteak oso inportanteak dira, laguntza ematen dute-eta.

Era berean, erakundeek ematen diguten laguntza azpimarratu behar dut. Gure elkartean Bartzelonako Udalaren eta Generalitatearen dirulaguntzak jasotzen ditugu.

**Pakistandar asko daude Euskal Herrian?**

Ez daukat kopuru zehatzik, baina asko daude Euskal Herrian eta Katalunian; bereziki gizonak.



Eraman dotoretasuna
zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**kale inkesta**

# Zer deritzozu gaur egungo Aretxabaletako kultura eskaintzari? Arkupek mesede egin dio?



**Sonia Gomez**
Langilea
Aretxabaleta

Asko hobetu da herrian dagoen kultura eskaintza. Agian, hobekuntzak eskatzen hasita, proposatuko nuke ume txikienendako ekintzak antolatzea. Kontua da ipuin kontalariak nagusiagoendako izaten direla.



**Iñaki Urreta**
Langilea
Aretxabaleta

Kultura eskaintza oso ona da momentu honetan, hobekuntza nabarmena izan dugu. Arazo bakarra ekitaldi batzuetarako Arkupeko aretoa txiki geldi daitekeela. Agian film gehiago ematea eskatuko nuke.



**Ekain Agirre**
Langilea
Aretxabaleta

Ondo ikusten dut, baina aukera egonez gero, gauza gehiago egitea ondo egongo litzateke. Hala ere, ezinbestekoa da jendearen partehartzea, hori barik ez dago ezer. Ni gutxitan joaten naiz, lanaren erruz.



**Sonia Morales**
Langilea
Aretxabaleta

Arkupe zabaldu zutenetik, kultura eskaintza askoz hobea da; are gehiago, adin guztietarako ekitaldiak egoten direla uste dut. Ez dakidana da jendeak erantzuten duen. Ni gura baino gutxiagotan joan naiz.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Errepideko lanen gaineko kexa**

Bergaran, Labegaraietako biribilgunetik herri-gunera arteko errepidean egiten dabiltzan lanek hainbat kexa eragin dituzte: asfaltoa egunez botatzea kritikatu dute batzuek eta halako lanak gauez egitea proposatu. Aretxabaletatik Bergarara autobusez zetorren erabiltzaile batek, bestalde, haserre deitu du: autobuseko txoferrak lan horien berri ez zuela-eta, alferrikako buelta on bat eman behar izan zuten.

ESKORIATZA
**> Zebra-bideak gurutzatu aurretik begiratzeko eskaera**

Eskoriatzar batek dio: "Gidatzen noanean, oinezkoak zebrabidea gurutzatzera badoaz, badut geratzeko ohitura. Baina eurei ere, bidea gurutzatzen hasi aurretik, begiratzeko eskatuko nieke. Izan ere, edukiontziak, kamioiak... parean tokatuz gero, zebrabidera iritsi arte, gidariak ezin du ikusi inor dagoen edo ez, eta poliki joan arren, ezbeharren bat gerta daiteke".

ARRASATE
**> Paretak kartelez betetzen direnean...**

Arrasateko bizilagun batek bere eskaera lau haizetara zabaltzeko eskatu digu. Izan ere, ondo ikusten du paretetan kartelak itsastea, baina horietan iragartzen direnak pasatakoan, ipintzen jardun zutenei kentzeaz ere ardura daitezela eskatzen die. "Gure herria txukunago mantentzen lagunduko digu horrek" esan digu.

**usteak uste**

**Maider Arregi**

# Tenporetan sinisten duzu?

Pello Zabala frantziskotarrak egin du Goiena Telebistan tenporen gaineko iragarpena. Udaberria, martxoaren 21ean helduko da eta antza, udaberriko lehen egunak ilunak eta euritsuak izango dira. Eguzkia ikusteko, berriz, itxaron beharko dugu. Baina tenporek asmatuko dutela uste duzue? Sarean denetarik diote; ikusi beharko!

Polenari eta gramineari alergia dutenendako, ordea, ez da ez udaberri ona izango. Izan ere, udazken euritsuaren, ondorioz, adituek iragarri dute inoiz izan den polen kantitate handiena izango dela aurtengo udaberrian. Beraz, txertoak, pastillak eta *cleanex*-ak prestatu beharko dituzte alergia dutenek.

Dena den, hori ere ikusi beharko dugu. Izan ere, polenari eta gramineari alergia dutenek, sufritzearena urtero-urteroko kontua dute.

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

# Aurrera Bolie edo babak sutan daz

"Bi gose greba haietan jakin nuen, zuzenean edo zeharka, zein zen ministerioetako arduradunen iritzia, Espetxe Erakundeetako goi kargudunena, Fiskaltzarena, PSOErena eta abar. Bada, den-denek, pribatuan onartzen zuten ez zegoela delitурik artikuluetan baina nire kasua irudi kontua zela, komunikabideei begirakoa."
Berria > 2009-03-15


«Nirea irudi kontua zela onartzen zidaten denek»

Iñaki de Juana berriro komunikabideen begi puntuan jarri da iragan astean. Belfasteko epaile batek "terrorismoaren apologia" egitea Iñaki espainiaratzeko nahikoa arrazoi izan daitekeela ebatzi du, bertako legerian delitu hori aurreikusia dagoela-eta.

*Aurrera bolie* terrorismoaren apologia bada zer izango ote "babak sutan daz"? Zirko galanta egiten dabil oraingoan ere Espainiako Estatua. Iñaki bera egon ez zen omenaldi batean, inork ikusi ez duen komunikatu batean, *Aurrera bolie* jartzen omen duela-eta nazioartea dantzan jartzerainoko obsesioz dihardu orain ere gogor. Obsesioa baita estatu espainiarrak Iñakirekiko duena; edo berak dioen moduan, berak bezala, edozein delarik ere modua, borrokaren hautua egin duten guztiekikoa.

Bere irudiak, halere, modu berezian espainiar komunikabideak amorrarazten ditu eta horiei bazka emateko berdin du idatziriko bi artikuluetan deliturik ez egotea. Deliturik ez badago asmatu egiten da, eta kitto. Beharrezkoa bada, Iñakik babak sutan jartzea delitua bihur dezakete. Eta ez naiz esajeratzen ari. Barregarria izango litzateke pertsonei (Iñaki eta besteei) hain ondorio dramatikoak ekarriko ez balie. Eta gainera, ez daukate inongo lotsarik Iñaki De Juanari pribatuan berak idatzitako artikuluetan deliturik ez dagoela aitortzeko edo preso bati Parot doktrina bidegabekeria dela onartzeko.

**"Aurrera bolie' apologia bada, zer izango ote 'babak sutan daz'?"**

**"Pribatuetan deliturik ez dagoela esaten diote"**

Baina zoritxarrez, tradizio eta kultura demokratikorik gabeko herrialde honetan, iritzi publikoarentzat *Aurrera bolie* esatea delitua izatea ez da eskandalagarria, "probokazioa" izan baita edota bi artikuluak "delitua ez, baina gogorrak dira eta…". Era horretako argudioak entzun behar izan ditut, arku parlamentario berria osatzen duten alderdi guztietako bozkatzaile superdemokraten partetik. Buff. Abokatu bezala eskoletan eta kalean legeriaren, giza eskubideen eta demokraziaren inguruko azterketa kritikoak zabaltzearen urgentzia sentitzen dut. Pertsona bezala, berriz, hotzikarak.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Maider Arregi, Goiatz Arana, Mirari Altube **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Ezustekorik egon ezean, gaur onartu egingo dituzte 2009ko udal aurrekontuak **> 14**



**> BERGARA**
Bedelkarko dendariak pozik daude zapatuan egindako merkealdi azokarekin **> 17**



**> ARETXABALETA**
Aozaratzako bidegorria egiteko eta Mitarte berritzeko lanen esleipenak, gertu **> 19**

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Kultura plana jarriko du abian Udalak herritarren laguntzarekin

**HELBURUA**
Gogoeta egin eta etorkizuneko ildoak definitu gura dituzte

**METODOLOGIA**
Elhuyar Aholkularitzak bideratuko du eta parte-hartzean oinarrituta dago

**PARTE-HARTZEA**
Bost lan talde osatuko dituzte, horietako lau herritarrekin



Txapel Txin egunean Herriko plaza bete egin zuten herritarrek; herriko hainbat koadrilek eta Udalak antolatu zuten Aratusteei harrera egiteko jaia. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Herriko kulturaren egoera aztertzea helburu duen prozesua jarriko du abian Aretxabaletako Udalak datozen asteotan. Hala iragarri du egunotan eta herritarrekin lan egiteko asmoa duela jakinarazi du, guztien artean etorkizunerako plana adosteko.

**DIAGNOSTIKOA ETA ETORKIZUNA**

Orain urtebete inguru Hirigintza planarekin egindako moduan, eta orain hilabete batzuk Euskararen plan estrategikoarekin, orain kultura plana lantzen hasiko da Udala. Helburu nagusia zera da: Aretxabaletako bizitzaren eta kultura dinamikaren gaineko gogoeta egin eta kultura mailako etorkizuneko ildoak definitzea. Eta hori guztia herritarren parte-hartzearekin egingo du.

Helburu nagusi hori puntu zehatzetan banatu dute, lortu gura dena ondo ezagutu eta lantzeko. Hala, herriko kulturaren diagnostikoa egingo dute eta zelako kultura gura duten herritarrek galderari erantzun; lan ildoak definituko dituzte, 2010etik aurrerako kultura planaren ildo nagusiak adostu eta etorkizunean lan egiteko egitura finkatu; eta bide batez, prozesuan parte hartuko dutenen arteko harremanak sendotzea gura dute.

**LAU LAN TALDE HERRITARREKIN**

Plana garatzeko prozesua Elhuyar Aholkularitzaren ardurapean utzi du Udalak –Hirigintzarena eta Euskararena moduan–. Eta herritarren parte-hartzea bideratzeko hainbat talde egingo dituzte: herritarrek osatutako lan taldeak, talde teknikoa eta Jarraipen Batzordea. Talde bakoitzak bere egitura eta eginbeharrak izango ditu eta parte-hartzean oinarritutako metodologia erabiliko dute guztien ekarpenak jaso, bideratu eta adostasuna lortzeko. Lan taldeei dagokienean bost osatuko dituzte: lau talde herritarrekin –12 urtetik gorakoekin– eta beste bat kultura eragileekin –elkarte eta taldeetako kideak–. Lan talde bakoitzak bi saio egingo ditu: lehenengo saioan Aretxabaletako kulturaren egoera aztertuko dute; eta bigarrenean, etorkizunerako proposamenak egingo dituzte. Taldeetan esandako eta landutako guztia txosten baten jasoko du Elhuyarrek.

Ondoren, talde teknikoak hartuko du lekukoa. Txosten hori aztertuko du eta erantzun zehatzak emango dizkie herritarrek egindako proposamenei. Eta horrekin guztiarekin planaren lehen zirriborroa osatuko du Elhuyarrek.

Zirriborroa eginda dagoenean azken saio bat egingo du parte-hartzaile guztiekin. Zirriboroa aurkeztuko diete orduan eta hortik abiatuta azken emaitza landuko dute.

**IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**

Prozesua dagoeneko jarri dute abian eta herritarrak behar dituzte orain parte hartzeko. Idatzia bidaliko dute etxeetara eta Udal aldizkarian ere emango dute guztiaren berri. Hala ere, izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta Inma Miguel kultura teknikariari jakinarazi behar diote interesatuek Arkupera deituta (943 08 1001) edo mezu bat bidalita posta elektroniko bidez: *kultura@aretxabaleta.net*. 15 bat eguneko epea dago horretarako.

Boluntarioekin batera kulturarekin zerikusiren bat dutenei edo izan dutenei deituko diete parte har dezaten lan taldeetan, eta zozketa bidez aukeratutako herritar batzuk ere egongo dira: "Lan talde pluralak osatu gura ditugu, ikuspegi eta iritzi desberdinak dituzten herritarrekin", azaldu digu Inma Miguel teknikariak. Hala, parte hartzearen kalitateari eta egindako ekarpenei eman gura diote lehentasuna.

## Urtea beteko du laster Arkupe kultura etxeak, kultura ekitaldi gehienen kokalekuak

Udaleko Kultura Sailak eta Loramendi Euskara Elkarteak antolatzen dituzte kulturarekin zerikusia duten ekitaldi garrantzitsuenak Aretxabaletan. Iazko ekainean Arkupe kultura etxea inauguratu zuen Udalak eta ia urtebeteko tartean ekitaldi asko antolatu dituzte bertan; hilabeteroko egitaraua kaleratzen dute. Kudeaketa lanak enpresa baten eskuetan uztea erabaki zuen Udalak eta bi lehiaketa deialdi egin ondoren Amalur enpresa bizkaitarra hartu zuen -bi urterako eman zioten ardura-. Abenduan, gainera, zinema jarri zuten abian, 10 urte zine barik egon eta gero. Zine komertziala, umeendakoa eta zine-kluba eskaintzen dituzte eta sarri geratu da Zaraia aretoa txiki.

Agintaldi hasieran -2007ko uztailean- EAko zinegotzi Lore Martinezek hartu zuen Kultura Sailaren ardura, baina orain hilabete batzuk udal gobernua uztea erabaki zuen EAk. Ordutik Inaxio Garro alkateak dauka Kultura Sailaren ardura.



Sagarpeko arduradunek plaka eman zioten Agurne Barruso alkateari. I.B.



Juan Kruz Mendizabalek bedeinkatu egin zuen egoitza. ANABEL DOMINGUEZ



Aritzeta abesbatzak hainbat kantu interpretatu zituen inaugurazioan. IKER BARANDIARAN

**BERGARA** > ELKARTEAK

# Sagarpe elkarteak egoitza berria inauguratu du Iparragirre kalean

Zapatu eguerdian zabaldu zituzten Bergarako elkarte beteranoko lokal berriaren ateak

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Zapatu eguerdian Bergarako elkarte gastronomiko ezagunenetako bat den Sagarpek egoitza berria inauguratu zuen, orain arte izan duen hirugarrena. Hala, Barrenkaletik Iparragirre kalera pasatu dira. Uztailean hasi zituzten egokitze lanak, eta zapatuan egoitza berria ikusteko eta erabiltzeko aukera izan zuten.

**BEDEINKAPENA ETA KANTUAK**

Lehenik eta behin, eta ohiturak agintzen duen moduan, Santa Marinako parroko Juan Kruz Mendizabalek egoitza bedeinkatu zuen. Horren ostean, Aritzeta abesbatzak hainbat kantu interpretatu zituen elkartutakoen gozamenerako.

Horren ostean, Sagarpeko arduradunek Bergarako alkate Agurne Barrusori plaka eman zioten. Ekitaldi ofizialak amaitu ostean, askok espero zuten unea heldu zen: hamaiketakoa. Arrasateko catering enpresa batek lagunduta, jatekoa eta edatekoa banatu zuten.

Gaur egun Sagarpek 100 bazkide ditu eta itxaron-zerrenda ere badaukate. Horietako asko, beteranoenak eta beste belaunaldi batzuetakoak, mahaiaren bueltan batu ziren zapatuan. 100 horietatik, 15 emakumeak dira. Alkateak arduradunei eskatu zien emakume gehiago bazkide egiteko.

Hemendik aurrera bergararrek txoko berri bat dute euren aisialdirako.



Pantailari begira hainbat kantu abestu zituzten Aretxabaletako gaztetxoek. J.ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > AISIALDIA

# Ludotekako kideek kalera atera zuten karaokea zapatuan

Ume eta gaztetxoek atzoko eta gaurko kantuak abestu zituzten, inguruko bizilagunendako

**I.B.** > ARETXABALETA

Zapatu goizean denborapasa egiteko aukera politak izan zituzten Aretxabaletako ume eta gaztetxoek.

Loramendi elkarteak kudeatzen duen Algara ludotekak era askotako ekimenak egiten ditu asteburuetan. Honakoan, eguraldi onaz baliatuta, karaokea atera zuten kalera.

Zapatu goiz-eguerdi osoan inguruko bizilagunek musika ederraz gozatu zuten; eta zer esanik ez, atzoko eta gaurko *hit!*-ekin asko gozatu zuten gaztetxoenek.

**ESKORIATZA** > KENPO ERAKUSTALDIA

# 36 kirolariren erakustaldiak bete egin zuen kiroldegia

## Gazteek oinarrizko teknikak erakutsi zituzten, eta helduek ikuskizun osatuagoa eskaini zuten

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Urtero egiten du Karate Atama Eskoriatzako kirol elkarteak kenpo erakustaldia herritarren aurrean, eta zapatuan bete egin zen kiroldegia. 40 bat lagun dabiltza kenpo ikasten Eskoriatzan eta horietatik 36 izan zirela erakustaldian jakinarazi digu Rafa Carriet elkarteko kirol zuzendariak.

**DEFENTSA PERTSONALA**

Ikasle gehienak 5 eta 14 urte artekoak dira, eta horiek defentsa pertsonalerako oinarrizko teknikak erakutsi zizkieten guraso, lagun eta kiroldegian elkartutako gainerako herritarrei. Iker Letona eta Iñaki Urkiolaren esanetara egiten dute lan horiek guztiek, astean hainbat ordutan.

Gaztetxoekin batera helduek ere hartu zuten parte erakustaldian, horiek konplexutasun handiagoa duten teknikenberri eman zieten ikuskizunera hurreratutakoei. Hain zuzen, Eskoriatzako elkarteko kide dira Espainiako kenpo txapelduna den Alberto Narro eta Juan Modino txapeldunordea, eta Unibertsitate lehiaketako txapeldun Josu Letona. Hirurak izan ziren zapatuan kiroldegian.

Txinatar eta japoniar jatorria duen autodefentsarako arte martzial horrek jarraitzaile asko dauzka Eskoriatzan eta argi geratu zen hori zapatuan.



Elkarteko gazteenak, erakustaldia egin bitartean. J.ARANTZABAL



Irakaslea lagun duela erakustaldia egiten gaztetxo bat. J.ARANTZABAL




IRATI AGIRREAZALDEGI

**BERGARA** > BERTSOAK

## Bertso afari arrakastatsua

Zapatuan urteroko bertso afaria egin zuten Artatse elkartean. Beñat Gaztelumendi eta Amets Arzallus izan ziren gonbidatuak eta fin aritu ziren. Elkartea nahiko beteta egon zen eta giroa oso ona. Are gehiago, Aritz Alustiza eta Xabi Elortza trikitilariek lagundu zuten afaria girotzen. Lehenengo, librean ibili ziren; eta horren ostean, Ainhoa Agirreazaldegik gidatu zituen. Bukaeran, koplatan ibili ziren guztiak. Agirreazaldegi aita-alabaren lekukoa zeinek hartuko du orain antolakuntzan?

**ANTZUOLA** > AUDITORIOA ZABALTZEKO EKITALDIA

# Musikarekin estreinatu dute auditorio berria antzuolarrek

## Atzo, domeka, egin zuten lehen ekitaldia auditorioan; txistulariek, abesbatzak eta metal boskoteak kontzertua egin zuten

**M.A.** > ANTZUOLA

Antzuolarrek estreinatu dute Torresoroako auditorioa: atzo eguerdian, herriko txistu taldeak eta abesbatzako kideek kontzertua eman zuten, Bergarako Bandako Metal Boskotearekin batera eta dantzariak lagun zituztela. Urteroko kontzertua izan zen, eta azken urteotako emanaldietako piezarik onenak jo zituzten: *Kontrapasa* kantu herrikoia, Patxi Olabarriaren *Bart*, Benito Lertxundiren *Urrundik heldu naiz* eta Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean,* tartean. Ordubete inguru iraun zuen saioak.

Musikariak entzuteko gogoz zeuden herritarrak eta areto berria ezagutzeko irrikaz. Hori horrela, goraino bete zen Torresoroa eta bertaratutakoak gustura geratu ziren ikusi eta entzun zutenarekin. Saioa hasi aurretik, Pedro Iturbe alkateak hitz batzuk eskaini zizkien elkartutakoei. Hemendik aurrera, kontzertu eta ekitaldietarako areto txukuna daukate Antzuolan.



Torresoroako areto berrian atzo egindako ekitaldia. JOSETXO ARANTZABALL

**ARRASATEKO UDALA** > 2009KO AURREKONTUA

# Ezustekorik ezean, gaur onartu egingo dituzte 2009ko aurrekontuak

EAJk eta Aralarrek iragarri dute abstenitu egingo direla eta EAk alde bozkatuko duela

Elkarrekin osoko batzarra egingo dute gaur, astelehenea, aurrekontuak lantzeko


Argazkian Udaleko aurreko osoko bilkura. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Aldeko zortzi boto (Talde Mistoaren zazpiak eta EAren bat), kontrako zortzi boto (PSE-EEren lau, EB-Zutik-en hiru eta PPren bat) eta beste lau abstentzio (EAJren hiru eta Aralarren bakarra) iragarri dituzte alderdi politikoek 2009ko aurrekontuen bozketarako. Horrek esan gura du, eta beti ere ezustekorik ez bada, alkatearen kalitateko botoa erabiliko dutela udal gobernuko kideek 2009ko aurrekontua onartzeko.

Hori gaur iluntzean ikusiko dugu. Izan ere, ezohiko osoko bilkura egin behar dute 19:00etan.

**AURREKONTUAREN AZALPENA**
Aurrekontuaren nondik norakoari dagokionez, udal gobernuak ez du gura izan ezer aurreratzerik, ezta adierazpenik egiterik ere; gaurko batzarrean egingo dituztela aditzera eman dio *Goienkaria*ri Ino Galparsorok.

**PSEK BESTE GOBERNU BAT GURA**
Badakiguna da gainerako alderdi politikoen botoen zergatia.

Hori horrela, Paco Garciak, PSE-EEko bozeramaileak azaldu du eurek ezezkoa emango dutela, "Arrasateko Udalak izan beharko lukeen aurrekonturik onena da Ino eta bere taldea ez izatea gobernuan, baizik eta izan dadila talde demokratiko bat, eta ez biolentzia kondenatzen ez duen talde bat".

**EB-ZUTIK-EN EMENDAKINA**
EB-Zutik koalizioak, berriz, aurrekontuen osotasunari emendakina aurkeztu die. Ematen duen arrazoi orokorra da aurrekontua ez datorrela bat "aurtengo beharrekin" eta "Udalak nekez" egin ahal izango diola aurre "egunean eguneko errealitateari".

Koalizioak gogora ekartzen du lehenago aurkeztutako aurrekontuen proiektuari 60 emendakin baino gehiago aurkeztu zizkiotela, eta batzuk onartu dituen arren, uste dute horiek ez dutela proiektua "nabarmen hobetzen, eta ez dituela aldatzen proiektua idazteko erabilitako irizpideak". Koalizioaren ustez, adibidez, beharrezkoa da gastu korrontea txikitu barik bere horretan mantentzea.

**PP PRESOEN PARTIDAREN KONTRA**
Kontra bozkatuko du, baita ere, PPk. Itziar Lamarain ordezkariak aditzera eman du "betiko partida hor dagoen bitartean" ezetz bozkatuko duela. Presoen senideei zuzendutako dirulaguntza da PPko ordezkariak onartu gura ez duena. "24.000 euro besterik ez dira; baina ezin dut horren alde bozkatu. Bestela, orokorrean txarto ez daude, baina zenbait partida jaits zitezkeen, krisian gaudenez. Adibidez, ez nago ados Iturbidekoendako partidarekin. Ia parekotasuna lortzen dute Iturbideko azpikontratatutako langileek Udal langileekiko. Eta egia da lan bera egiteagatik soldata bera kobratu behar dela. Baina kontuan hartu behar da lanpostu hori lortzeko Udal langileek bete behar izan dituzten baldintzak gogorragoak izan direla".

**ABSTENTZIOAK: EAJ ETA ARALAR**
Bestalde, EAJk eta Aralarrek diote abstentzioaren bidetik jotzeko asmoa dutela. Luis Mari Apraitz, EAJko bozeramailearen azalpenaren arabera, jeltzaleak abstenitu egingo dira, "gobernabilitatea eta normalizazioa" ziurtatzeko. Dena den, gaineratu du zenbait puntutan ez daudela gobernuarekin ados. Eskatu diete "egokitzeko gehiago aurrekontuak krisiari: adibidez, eskulana eskatzen duten jarduerak behar direla uste du EAJk

Bestalde, jeltzaleek uste dute gastu korrontea "gehiago murriztu" beharko litzatekeela, "zuhurragoak izan" eta kontuz ibili, "zorretan" ez jausteko, "hurrengo urteak ere gogorrak izango direlako". Eta uste dute zenbait kontutan ez dutela larregi sakondu; adibidez, pintadei-eta dagokienean, garbiketan. Edo aparkaleku eta zirkulazio arazoetan, eta ezta ere energia aurrezpenean.

**ARALAR: EUSKARAREN ALDE**
Bestalde, Aralar alderdiko Joxe Etxeberriak argitu du abstenitu egingo direla Aralarren bi emendakinak ez dituztelako aintzat hartu. Emendakin batean gogora ekartzen zuten Aralarrek 2008ko aurrekontuei baiezkoa eman ziela baldintza batekin: Euskara Biziberritzeko Plana abiaraztea. "Urtea pasatu da eta ez dute ezer ere egin. Aurten partidarik ez dagoenez, abstenitu egingo gara". Bigarren emendakinean, berriz, Aralarrek eskatu duena izan da euskararen alde diharduten herriko taldeen dirulaguntzak "gutxienez" iazko maila beran mantentzea eta "hori ere ez dute onartu".

**EA ALDE, 'ERREFLEXIO ERREALA'**
Aurrekontuen alde bozkatuko duen alderdi bakarra EA da. Pello Urizar bozeramailearen azalpenen arabera, uste dute gobernuak "erreflexio erreala" egin duela "kontuan hartuta egoera ekonomikoan bermatuta ez dagoela ezer". Urizarrek azpimarratu du emendakina aurkeztu zuela gizarte zerbitzuetako gastua ez jaisteko, eta hori onartu egin dutela. EAko kidearen ustez kontua ez da "aurrekontuan gauza mordoa sartzea, baizik eta tentuz jokatzea, Udalaren ahalmenaren arabera". Mugikortasunaren gainean EAk egindako beste emendakin bat onartu izana ere azpimarratu du Urizarrek. Eta gaineratu du, adibidez, obren atalean ere lehentasunak zehaztu beharko lituzketela, eta horren urjenteak ez diren inbertsioak ez sartu aurrekontuan. "Adibidez, Abaroa berriari lehentasuna eman beharko geniokeen; igogailuen proiektua ere asko atzeratu da, eta abar".

ESANAK

**"Arrasateko Udalak izan beharko lukeen aurrekonturik onena da Ino eta bere taldea ez izatea Udalaren gobernuan"**
**Paco Garcia** > PSE-EE

**"Abstenitu egingo gara, gobernabilitatea ziurtatzeko, baina aurrekontua gehiago egokitu beharko litzateke krisira "**
**Luis Mari Apraitz** > EAJ

**"Kontua ez da aurrekontuan gauza mordoa sartzea, baizik eta tentuz jokatzea, Udalaren ahalmenen arabera"**
**Pello Urizar** > EA

**"2009ko aurrekontu proiektua ez dator bat aurtengo beharrekin eta Udalak nekez egin ahal izango dio aurre errealitateari"**
**Joseba Ugalde** > EB-Zutik

**"Presoen senideen aldeko dirulaguntza partida hor dagoen bitartean, nik ezin dut aurrekontuen alde bozkatu"**
**Itziar Lamarain** > PP

**"Euskara Biziberritzeko Plana abiarazi barik dago eta euskararen aldeko taldeek iazko laguntza bera jaso beharko lukete "**
**Joxe Etxeberria** > Aralar



Iazko 'El Barberillo de Lavapies' zarzuelak Amaia antzokia lepo bete zuen. GOIENKARIA

**KULTURA** > ZARZUELA

# Aurten 'La Corte del Faraon' zarzuela taularatuko dute

Gaur hasiko dira azaroan taularatuko duten obra entseatzen

Antzezlan musikal 'pikantea eta barrea eragitekoa' da 'La Corte del Faraon', Tere Gonzalez zarzuelako zuzendariaren ustez

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasaten arrakasta handia izan ohi duen ikuskizun herritarra hasi da motorrak berotzen. Izan ere, zarzuelaren entseguak gaur hasiko dituzte Izaskun Murgia elkarte Lirikoko kideek. Datu esanguratsua da azaroan antzeztu behar den obra martxoan prestatzen hastea, lan handia eskatzen duen proiektua den seinale.

Aurten antzezlan berritzailea aukeratu du Tere Gonzalez zarzuelaren zuzendari orokorrak: *La Corte del Faraon*.

**ANTZEZLAN 'PIKANTEA'**

Gonzalezek adierazi duenez, "ezberdina, berritzailea, *pikantea* eta barrea eragiteko" modukoa delako aukeratu du aurten *La Corte del Faraon* musikala.

1910ean estreinatu zen Madrilen; Guillermo Perrin eta Miguel de los Palacios arduratu ziren idazteaz eta musika Vicente Lleok konposatu zuen. Kritika politikoengatik eta sexuak eta erotismoak duten presentzia handiagatik hainbat urtez debekatua izan den lana da, eta horrek are erakargarriagoa egiten du aurtengo zarzuela. Gonzalezek dioenez, "konprometituak diren hainbat eszena" taularatuko dituzte.

**URTEROKO METODOLOGIA**

Antzezlanak ezik, gainontzekoak aldaketa gutxi izango ditu. Arrasate Musikal kontratatu dute aurten ere eta, iaz bezala, Iker Olazabalek gidatuko ditu ikasleak. Bestalde, eszenografia zuzendaria Mertxe Salaberria izango da. Azaroan izango da estreinaldia, eta lau emanaldi eskainiko dituzte.

## oharrak

ABAROA

**> Batzar orokorrerako deialdia**

Abaroa erretiratu eta pentsionisten elkarteak batzar orokorra egingo du datorren hilaren 30ean, 17:00etan. Hainbat gai jorratuko dira: 2008ko balorazioa eta emaitzen kontuak, aurtengo aurrekontuak eta Abaroa berrira egingo den lekualdaketaren nondik norakoak. Gainera, presidente berria aukeratuko dute.

TXATXILIPURDI

**> Lan eskaintza**

Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteak lan eskaintza berri bat abiarazi du. Hain zuzen ere, Arrasateko ludoteketan astelehenetik egubakoitzera egunean lau orduz lan egiteko hezitzaile bat behar dute. Beharrezkoa da euskara maila ona eta haurrekin aurrez esperientzia izatea. Interesatuak 943 79 54 46 telefonora deitu edo *haurrak@txatxilipurdi.com* helbide elektronikora idatzi.

SAN JOSEPE HARROBIA

**> Bost finalisten aurkezpena**

San Josepe harrobiko ideia lehiaketako bost finalistek euren proiektuak aurkeztuko dituzte. Aurkezpenek 45 minutu iraungo dute eta ikusleek galderak egiteko aukerak izango dituzte. Finalisten aurkezpenen ordutegiak: *Harrizate* 10:00etan, *Kisky* 11:00etan, *KO* 12:00etan, *Suelo* 15:30ean eta *Tronera* 16:30ean.

ZIAR-OLA KULTUR ELKARTEA

**> Batzar orokorra egin zuten atzo**

Ziar-Ola kultur elkarteak batzar orokorra izan zuen atzo, 12:00etan eta 12:30ean.

**ZERBITZUAK** > AUTOEN GARBIKETA

# Garagartzako Ibilgailuen Mantentze eremua maiatzean irekiko dute, zerbitzu berriekin

**J.B.** > ARRASATE

Jende askok erabiltzen duen zerbitzua da Garagartza auzoan dagoen Ibilgailuen Mantentze eremua. Urte hasieratik aipatu zerbitzua ez dago erabilgarri, egokitze eta saneamendu lanak direlaeta. Orain gutxi berrabiarazi dituzte lanak, eguraldi txarrak eragindako etenaldiaren ostean. Irekiera data zehaztu barik badago ere, Udaleko Ingurumen sailak jakinarazi duenez, "asko jota maiatzerako zabalik egongo da". Gainera, garbiketa guneak zerbitzu berriak eskainiko ditu.



Maiatzerako erabilgarri beharko luke garbiketa eremuak. JOKIN BEREZIARTUA

**TXABOLA ETA ZERBITZU BERRIAK**

Dagoeneko eraikita dagoen txabolak zerbitzu berriak eskainiko dizkie erabiltzaileei. Egun osoan zehar ez bada ere, Udaleko langile bat egongo da txabolan, eta bi zeregin izango ditu: Ibilgailuen Mantentze eremuaren mantentze lanak egin eta behar duen erabiltzaileari instalazioen erabilpenaren gaineko informazioa eman.

Bestalde, txabolan bertan komun publikoa jarriko dute. Jende asko ibiltzen da paseoan, eta hortaz, eskertuko duten zerbitzua izango da. Udalak 46.000 euro inguru xahutu ditu zerbitzu horretan.



JOKIN BEREZIARTUA

# Omenaldia 80 urtetik gorakoei

Uribarriko erretiratuen etxean ospakizun berezia egin zuten joan den egubakoitzean; 80 urte baino gehiago dutenei omenaldia egin zieten. 25 pertsona bildu ziren mahaiaren bueltan bapo bazkaltzeko: arrain zopa, legatza, kremazko hoditxoak... goi mailako menua. Opariak ere jaso zituzten. Irudian, urte gehien dituztenak Juanito Osinaga lehendakariarekin: Valentin Moreno (88 urte) eta Faustina Varquero (93 urte).

**AISIALDIA** > URETAKO JARDUERAK

# Urpekaritza 'bataioa' eta hegats bakar ikastaroa Urpekaritza Astean

Bi ikastaroak martxoan izango dira; bestetik, 0 eta 3 urte arteko umeendako ur estimulazio ikastaroan izena emateko epea ere zabaldu dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak urarekin lotura duten ikastaro bi antolatu ditu Gipuzkoako Urpekaritza Jardueren Federazioarekin batera. Urpekaritza Astea deitu diote ekimenari eta "uraren inguruan eta azpian egin daitezkeen jarduerak erakustea" da helburua, Kirol Zerbitzuetako ordezkarien esanetan. Urpekaritza *bataioa* eta hegats bakar (monoaleta) ikastaroa antolatu dituzte, Agorrosin Ekintza Gunean.

Urpekaritza bataioari dagokionez, bi saio egongo dira, martxoaren 24an, martitzena, eta 26an, eguena, 19:30-21:30 ordutegian. Hegats bakar ikastaroari dagokionez, martxoaren 25ean izango da, eguaztena, 19:30-21:30 ordutegian.

Bietan ala bietan saio bakoitzaren prezioa da 4 euro bazkideendako eta 8 gainerakoendako. Izenematea zabalik dago martxoaren 18ra arte, Agorrosinen edo 943 77 70 95 zenbakian. Plaza mugatuak dira.

**UMEENDAKO UR ESTIMULAZIOA**

Sei hilabetetik hasi eta 36 hilabetera arteko umeendako ur estimulazio ikastaroa ere antolatu du Kirol Zerbitzuak. Hiru helburu nagusi ditu ikastaro horrek: umearen garapen psikomotorra ematea; guraso eta umearen arteko harremanak garatzea ur ingurunean eta haurrak bizipenak eta estimuluak jasotzea.

Ikastaroak aste bukaeran izango dira, zapatu eta domekan, apirilaren 25etik uztailaren 18ra bitartean. Ordutegiaren kasuan, sei hilabetetik 24 hilabetera arteko umeek bi aukera izango dute: 10:15-10:45 eta 11:15-11:45. Bestetik, 25 eta 36 urte arteko umeen ordutegia izango da, 10:45-11:15. Prezioari dagokionez, bazkideek 45 euro ordainduko dute eta gainerakoek 99 euro.

Umeendako ur estimulazio ikastaroetarako izenematea da martxoaren 25etik apirilaren 7ra. Apirilaren 8an izena eman dutenekin behin behineko zerrenda kaleratuko dute eta apirilaren 20an zozketa egingo dute. Horrela erabakiko dute ikastaroan parte hartuko dutenen behin betiko zerrenda. Izena emateko deitu 943 77 70 95 zenbakira edo idatzi mezua *agorrosin@bergara.net* helbidera.

**EUSKAL PRESOAK**

## Iraitz Santa Cruzen askatasuna eskatu dute

**M.B.** > BERGARA

Iraitz Santa Cruz Miguel Altunako irakaslearen askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egin zuten haren lankide eta ikasleek egubakoitzean. 150 bat lagunek hartu zuten parte.

Martxoaren 5ean atxilotu zuen Ertzaintzak Santa Cruz, Inazio Uriaren hilketarekin lotura duelakoan. Miguel Altunako haren lankideek salatu egin dute bost egunez inkomunikatuta izan dutela, "horrek dakartzan ondorioekin". Bestetik, diote "errugabea dela eta egungo egoera politikoaren ondorioak ordainarazi nahi dizkiotela".

## 80tik gora lagun batu ziren 1969. urtekoen kinto bazkarian

Aurreko asteko zapatuan egindako bazkarian ondo baino hobeto ibili zirela esan dute 1969ko kintoek. 40 urte betetzeak ez du gutxiagorik merezi. 80tik gora lagun batu ziren eta goizean trikipoteoarekin ekin zioten ospakizunari. Bazkaria Tartufon egin zuten eta baita dantzaldia ere. 21:00 aldera jaitsi ziren San Juandik eta batzuek etxerako bidea hartu zuten arren, gehienak kalean geratu ziren. Hortik aurrerakoak eurendako gorde dituzte.




GOIENKARIA

**PAZKOAK** > KARTEL LEHIAKETA

# Pazkoetako kartel lehiaketa deitu dute eta izenematea apirilaren 28an bukatuko da

Bergaran erroldatutako edozeinek har dezake parte kartel lehiaketan; irabazleak 600 euro jasoko ditu sari gisa

**M.B.** > BERGARA

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Sailak.

Bergaran erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Kartelaren neurria izango da 24x34 zentimetro eta formatua, bertikala. Aurkezteko modua izango da paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean. Era berean, kartelaren kopia digitala CD baten ere aurkeztu beharko da. Teknikari dagokionez, librea da; egileak aukeratuko du, hortaz,

Teknika librea baldin bada ere, ondorengo testua eroango dute ezinbestean: *Pentekoste jaiak 2009 Bergara*.

Aurkeztutako lanak originalak izango dira eta Udalak plagioa egon den zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalteordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari.

Bestetik, Udalak egoki ikusten badu, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatu ahal izango du. Azken urteetan, hain justu, hori egin izan du Kultura Sailak: Pazkoetan erakutsi izan ditu lehiaketan parte hartutako kartel irabazleak udaletxeko arkupeetan.

**AURKEZTEKO MODUA**

Kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer edukiko. Atzeko aldean lelo bat dutela aurkeztuko dira kartelak. Gutun-azal itxi baten, leloa kanpoaldean eta egilearen datuak barruan jarriko dira.

Lanak aurkezteko azken eguna da apirilaren 28a, 13:00ak baino lehen, kultura etxean (Erroldalde jauregia).

Epaimahaiari dagokionez, epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko dute nortzuek osatu duten. Bestalde, epaimahaiko kideek hartutako erabakia aldaezina izango da.

Saritutako lanaz Udala jabetuko da eta argitaratzeko, eraldatzeko, zabaltzeko... eskubidea izango du. Saritu gabe geratu diren lanen kasuan, erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epea pasa eta gero egileek ez badituzte jaso, Udalak erabakiko du zer egin lanekin.

**600 EUROKO SARIA**

Kartel irabazleak 600 euro jasoko ditu; hala eta guztiz ere, saria eman gabe ere gera daiteke, epaimahaikideek gutxieneko kalitaterik ez dagoela uste baldin badute.

**MERKATARITZA** > MERKEALDI AZOKA

# Bedelkarko dendariak pozik merkealdi azokarekin

Dendariek azaldu dutenez "oso salmenta onak" egin zituzten aurreko zapatuko azokan; herritarrek "oso ondo erantzun" zutela diote

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bedelkarko dendariak "oso pozik" daude aurreko zapatuan, martxoaren 7an, egindako merkealdi azokarekin.

Elkarteko ordezkariek azaldu dutenez, "oso salmenta onak" egin zituzten eta herritarrek "oso ondo" erantzun zutela aurreratu dute: "Goizean jende ugari ibili zen kalean, euria egin arren giro aparta egon zen".

Bedelkarko azokak Zuhaitz feriarekin bat egin izana ere lagungarri egin zitzaiela azaldu dute Bedelkar dendarien elkarteko ordezkariek.

**EURIA, ERAGOZPEN**

Dendarien elkartetik gehitu dutenez, denda ugarik hartu zuen parte azokan, eta euriagatik izan ez balitz, gehiagok ere parte hartuko zukeen: "Gehiago ere parte hartzeko prest zeuden, baina euriagatik, ezin izan zuten generoa kalera atera denda aurrean ez dutelako aterperik". Hala, datorren urterako horri konponbidea aurkituko diotela aurreratu dute, "toldo edo antzekoak jarrita denda horien aurreko aldean".

Horrekin lotuta gehitu dute generoa dendatik kanpora atera ez zuten denden kasuan gutxiago saldu zutela: "Herritarrak ez ziren denda barrura sartu. Kuxkuxeatzea gustuko dugu, eta badirudi hori errazago egiten dugula generoa denda kanpoan baldin badago".



Herritarrak, dendetako batek kalera ateratako arropak ikusten. GOIENKARIA

> BATZARRA

### Pazkoetako sukaldaritza lehiaketa antolatzeko batzarra deitu dute

Udaleko Kultura Sailetik jakinarazi dutenez, Mendekoste jaietan egiten den sukaldaritza lehiaketa –San Martin plazan egiten da– bakailao lehiaketa antolatzeko batzarra deitu dute. Matxoaren 24an izango da batzar hori, 20:00etan, kultura etxean.

Hori horrela, herriko elkarteei dei egiten diete bilerara joateko.

> OSPAKIZUNA

### Eros daitezke txartelak Jardunek egingo duen kantu afarirako

Martxoaren 27an izango da kantu afaria. 20:00etan triki-poteoa egingo dute Pol-Poletik abiatuta eta afaria 21:30ean izango da, Artatse elkartean.

Urtero bezala, kantu liburuxkak banatuko dituzte eta bertsolari eta trikitilariak ere egongo dira. Txartelak eskura daitezke 12 eurotan (15 bazkide ez direnendako) Kortazarren eta Pol-Polen.

> OHARRA

### 'Zeruko izarrak ezagutzen' ikastaroaren data aldatu egin dute

Kultura Sailak antolatutako *Zeruko izarrak ezagutzen* delako ikastaroaren data aldatu egin da. Data berriak hauek dira: apirilaren 28a eta maiatzaren 5a. Ordua eta lekua mantendu egiten dira: 19:00etan, kultura etxean. Izenematea da 15 euro herrian erroldatutakoendako eta 20 gainerakoendako, kultura etxean (943 77 91 60).

> UDAL ZERGAK

### Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik

Trakzio mekanikoko zergaren 2009ko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea hasita dago, martxoan 2an hasi zen, hain justu ere, eta bukatuko da maiatzaren 29an.

Maiatzaren 29an bukatuko da zerga ordaintzeko borondatezko epea. Egun horretatik aurrera errekarguarekin kobratuko dutela jakinarazi dute Udaletik.

> LEHIAKETA

### Gaur da azken eguna izena emateko Musika Moderno Lehiaketan

Gaur, martxoak 16, da azken eguna Musika Eskolak antolatutako Musika Moderno Lehiaketan izena emateko. Talde ez profesionalendako lehiaketa da eta modalitate bakarrera mugatuta dago: musika modernoa.

Lehiaketa izango da apirilaren 26an. Izenematea eta informazio gehiago 943 76 57 80 telefono zenbakian.



GOIENKARIA

## Gaztetxoak oso ondo ibili ziren patinen gainean

Aurreko domekan Gasteizko izotz pistara egin zuten irteera Jarduneko kideek. Urte osoan barrena aste bukaerako aisialdian parte hartzen duten 9 eta 12 urte bitarteko 50 neska-mutiko joan ziren arratsalde pasa izotz pistara.

Esan dutenez, oso giro polita sortu zen gaztetxoen artean, eta, joateko ordua iritsi zenean, irrist egiteko botak erantzi eta formal-formal abiatu ziren etxerantz. Hurrengo noiz joango diren irrikan egongo dira, seguru.



GOIENKARIA

## Aginagako sagardotegian, gustura

Angiozar, Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre eta inguruetako auzotarrak Aginagan izan ziren domekan, sagardotegian. Bi autobus joan ziren eta primeran pasatu zutela aitortu dute. Sagardotegira joateaz gain, urtean barrena bestelako irteerak ere egiten dituzte. Angiozarko Rufino Muñozek antolatzen ditu irteerok eta esandako auzoetako bizilagunek eskerrak eman nahi dizkiote horregatik. "Beragatik ez balitz...", diote.



Bakardade kaleko piboteak jaisteko ontziak jarriko dituzte Giltzagune proiektuari esker. MIREIA BIKUÑA

Giltzagune egitasmoaren helburua da piboteek mugatzen duten kaleetara suhiltzaileen eta anbulantzien sarrera erraztea

**ZERBITZUAK** > GILTZAGUNE EGITASMOA

# Larrialdietan piboteak jaisteko proiektua jarriko dute martxan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Larrialdi kasuetan piboteak jaisteko proiektua martxan jarriko du Udalak. Giltzagune proiektuaren helburua da piboteek mugatutako herriko kaleetara anbulantziak, suhiltzaileak eta bestelako zerbitzuen sarrera erraztea. Egitasmoa abian jartzeko hitzarmena sinatuko dute Udalak, Foru Aldundiak eta Osakidetzak. Otsaileko osoko bilkuran onartu zuen Udalak bere eginkizunak zeintzuk izango dira. Alde batetik, pibote edo oztopo-zutoinak jaisteko giltzak gordetzeko ontziak jarriko ditu etxeetako horma edo paretetan. Horren harira, udal arduradunek, udaltzainek eta suhiltzaileek zehaztuko dituzte ontziak jartzeko lekuak, eta bizilagunen baimena beharko dute giltza-guneak horman sartzeko. Beste alde batetik, larrialdi zerbitzu guztiei jakinaraziko dizkiete giltzaguneen koordenadak, eta kaleetan seinaleak jarriko dituzte.

**ALDUNDIA ETA OSAKIDETZA**

Oñati izango da giltza-guneak jarriko dituen lehen herria. Udalaren, Foru Aldundiaren eta Osakidetzaren artean koordinatuko dute egitasmoa, zirkulazio mugatua dagoen erdiko kaleetan larrialdi zerbitzuek erantzun azkarra eman dezaten. Horretarako, Aldundiak eta Osakidetzak eginkizun zehatzak izango dituzte; besteak beste, Aldundiak giltzak gordetzeko ontziak konponduko ditu; eta Osakidetzak zerbitzu guztiak koordinatuko ditu.

## CEUReko langileek manifestazioa egin zuten

Lantegia itxi dutela salatzeko manifestazioa egin zuten CEUReko langileek eguenean. Herriko kaleetan ibili ziren euren egoeraren berri emateko. Besteak beste, diote azken hilabeteotan nominak kobratu egin dituztela, lantegian sartu ez diren arren. Horrez gain, jakinarazi zuten ezagutzen dutela enpresa lege konkurtsalean egotearen arrazoia.



MIREIA BIKUÑA

> ETXEBIZITZAK

### Etxe tasatuetarako diru-sarrerak 21.000 eurora jaitsi dituzte

Erregimen Orokorreko Etxebizitza Tasatuen zozketetan parte hartu ahal izateko gutxieneko diru-sarrera 27.000 eurotik 21.000 eurora jaistea onartu du Udalak. Hain zuzen ere, otsaileko osoko bilkuran onartu zuten aldaketa, herritar gehiagok izan dezaten etxe tasatuen onuradun izateko aukera. Ordenantzan egindako aldaketa jendaurrean egongo da, martxo bukaera arte.

Era berean, Ugarkalden egingo dituzten 40 etxeren zozketarako baldintza zerrenda onartu zuten osokoan.

> KIROLDEGIA

### Zubikoako bazkideek hatz-marka berritu beharko dute gaurtik

Zubikoa kiroldegian sistema informatikoa aldatu egin dute, eta aurrerantzean hatzmarkarekin sartu nahi dutenek ezinbestean berritu egin beharko dute. Hain zuzen, gaur hasiko dira hatz-markak berritzen. Dena den, egun eta ordutegi ezberdinak dituzte: 18an, 23an, 25ean eta 27an 08:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; hilaren 17an, 24an eta 26an 08:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; eta hilaren 28an, 09:00etatik 12:00etara. Hatz-marka berritzen ez dutenek bazkide txartelarekin sartuko beharko dute.

**oharrak**

ZINEMA

**> 'El misterioso caso de Benjamin Button', gaur**

David Fincherrek zuzendutako pelikula eskainiko dute gaur kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean. Brad Pitt, Cate Blanchet eta Julia Ormond dira protagonistak.

MUSIKA

**> Bi kontzertu gaztetxean**

Gazte Batzarrak antolatuta bi kontzertu egingo dituzte eguaztenean eta zapatuan gaztetxean, 19:00etan. Eguaztenean Oñatiko Sospechosos eta Valentziako Leave it to me taldeek joko dute.

Zapatuan, Klinesa ta Kakarrastua Kumunzuluan oñatiarrak eta Klavo Oxidado soraluzetarrak igoko dira taula gainera.

ERAKUSKETA

**> Onddoen gaineko erakusketa Natur Eskolan**

Eguaztenera arte ikus daiteke onddoren gaineko erakusketa Natur Eskolan.

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

# Aozaratzako eta Mitarteko lanen esleipena gertu dago

Mitarte berritzeko eskaintzak bihar arte aurkeztu ahalko dira

Aozaratzako bidegorria egitekoak, berriz, etzira arte

Espainiako Estatuko Fondoaren laguntzaz egingo dira lan horiek



Aozaratza auzoko bidegorri berria Otalora dorre ondotik irtengo da. MIRARI ALTUBE

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsiorako Estatuko Fondoaren laguntzarekin Udalak hainbat proiektu jarriko ditu martxan datozen hilabeteotan eta horien lanak esleitzeko deialdia zabalik dago egunotan.

Mitarte kalea berritzeko obretarako eskaintzak bihar arte (martitzena) aurkez daitezke. Kale horretan hornidura eta saneamendu berriak jarriko dituzte. Argiteria, hiri-altzariak, seinaleztapen-sistema eta lorategiak ere aldatuko dituzte eta galtzadan harria jarriko dute.

Horretarako 793.916,47 euro bideratuko dituzte. Jasotako eskaintzak aztertu ondoren, martxoaren 30erako aurreikusita dagoen osoko bilkuran esleituko dituzte. Lan horiek apirilean hastekoak dira.

**AOZARATZAKO BIDEGORRIA**

Bestalde, Aozaratza auzoko bidegorria egiteko eskaeren aurkezpena hurrengo egunean (martxoak 18) amaituko da. Lizitazio oinarrien aurrekontua 311.540,78 euro da eta bidea egiteko epea bost hilabetekoa izatea aurreikusi du Udalak. Interesatuek udaletxean aurkeztu behar dute eskatutako dokumentazioa.

Kasu horretan, Udalak ez du argitaratu lehiaketa deirik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nahiago izan duelako inguruko enpresei obra horiek eskaintzea. Proposamen guztiak jaso ostean egokiena zein den aztertzeari ekingo dio.



GOIENKARIA

## Piano-jole bikainak daude herrian

Aurtengo Andoaingo piano jaialdian Debagoieneko ikasle askok parte hartu zuten; tartean, Eskoriatzako hiruk. Pozik etorri ziren handik hirurak. Aitziber Erañak (eserita) 11 urtetik gorakoen kategorian jo zuen, eta zilarrezko domina irabazi.

Infantiletan, berriz, Ane Arrietak (ezkerrean) ere kolore bereko domina irabazi zuen eta Leire Astiasaranek (Eskuman) brontzezkoa. Hirurak, gainera, diploma banarekin bueltatu ziren. Zorionak, hiru piano-joleei!

**ESKORIATZA** > ERRETIRATUAK

# Olazar elkartekoek Arnedora irteera egingo dute eguenean

Gainera, maiatzean Marina D'or-era egingo duten bidaiarako izena eman daiteke asteon

**M.B.** > ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritza berria osatu zenetik gogor jardun du lanean eta dagoeneko ekimenak antolatzen hasi da. Lehenengoa aste honetan bertan izango da. Eguenean, hilak 19, Errioxara irteera egingo dute; Arnedon emango dute eguna. Guztira, 54 lagun joango dira zapatagintzaren hirira.

**BISITA UGARI**

Goiz irtengo dira Eskoriatzatik. Hitzordua 07:15erako egin dute geltokian. Arnedora iristean, besteak beste, zapaten museoa bisitatuko dute .

XIX. mendea ezkero herri horretan zapatagintzak izan duen garrantzia ezagutzeko aukera izango dute eskoriatzarrek. Azalduko diete, esaterako, gaur egun zapatagintzaren sektoreak Errioxan 3.100 langile inguru dituela eta horietako %75 Arnedon daudela; asko herri horretako El Raposal izeneko gunean daude.

**ARDOA**

Errioxan egonda, baina, ardoarekin zerikusia duen bisita egiteko ere aprobetxatuko dute. Arnedotik hurbil dagoen Ontañongo upeltegira joango dira eta han Errioxako ardoa probatu ahal izango dute.

Jarraian, Arnedotik lau kilometrora eta Cidacos ibaiaren ondoan dagoen XV. mendeko Nuestra Señora de Vico monasterioa ezagutuko dute. Bisita hori amaitzean Eskoriatzara itzuliko dira erretiratuak.

**CASTELLORA BIDAIA**

Arnedokoa ez da datozen hilabeteotarako antolatu duten irteera bakarra. Maiatzerako Marina D'or-era bidaia antolatu dute. Hamaika egun emango dituzte han, maiatzaren 9tik 20ra bitartean.

Prezioa 455 euro izango da. Olazartik azaldu dute bidaia bi zatitan ordaindu ahalko dela, lehena martxoan eta bigarrena apirilean. Interesa dutenek aste honetan eman behar dute izena elkartearen egoitzan.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Lau ordenagailu ipini dituzte Antzuolako KZgunean. IRATI AGIRREAZALDEGI

**ANTZUOLA** > INFORMATIKA

# Liburutegian egongo da KZgunea aurrerantzean

Martitzenetan lau orduz dinamizatzailea egongo da KZgunean, gura dutenek zalantzak argitzeko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Aurrez Olaran etxean egon ostean, liburutegi berria zabaldu eta KZgunea ere han ipini dute, Torresoroan.

Joan den astean abiatu zuten zerbitzua eta aurrerantzean, martitzenetik egubakoitzera bitartean egunero izango da zabalik liburutegiko ordutegian: 10:00etatik 12:30era eta 16:45etik 19:30era bitartean; egubakoitzetan 19:00ak arte. Martitzenetan, gainera, lau orduz dinamizatzailea egongo da KZgunean erabiltzaileei informazioa eman eta zerbitzuak erabiltzeko haiek izena eman dezaten. Hilabete batean goizez (09:00-13:00) eta hurrengoan arratsaldez (16:00-20:00), txandaka: martxoan, maiatzean eta uztailean arratsaldez eta apirilean eta ekainean goizez.

Torresoroako liburutegian dagoen KZgunean lau ordenagailu daude antzuolarren eskura. Erabiltzaileei arreta egin ostean, izena emateko aukera izango dute eta instalazioak erabili ahal izango dituzte.

**IKASTARO AUKERAK LIBURUTEGIAN**

Bestalde, oraingoz ikastarorik antolatu ez badute ere, jendeak aukera izango du liburutegian egongo den zerrendan interesatzen zaien ikastaroaren gaineko eskaera egiteko. Eskaeraren arabera antolatuko dira ikastaroak. Liburutegian egongo da baita ere ikastaroen katalogoa: bat-bateko mezularitzaren, posta elektronikoaren, enpleguaren, etxetik erosketak egitearen gaineko ikastaroak, esaterako. Horietaz gain, beste gai batzuk ere landu ahal izango dira, norbaitek interesa izanez gero. Horretarako dinamizatzailea KZgunean dagoen eguna aprobetxa daiteke.

**ELGETA** > TXABOLAK

# Txabolen gaineko ordenantza berrikusi edo ez aztertzen dihardute udaletxean

Arautegiak dio txabolak ortuko lantresnak gordetzeko bakarrik izan behar dutela eta ezin dutela ura eta argia izan

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

*Elgeta danon artian* ekimenaren baitan herritarren artean egindako inkestan askotariko iritziak jaso ditu Udalak. Gaur egun indarrean dagoen ordenantzak jasotzen du txabolak ortuko lantresnak gordetzeko bakarrik izan behar dutela, eta ezin dela bertan animaliarik gorde. Gainera, debekatuta dago txaboletan ura eta argia izatea.

Iban Retolaza hirigintza zinegotziak jakinarazi du azkenaldian indarrean dagoen ordenantzatik kanpo txabola pila egin direla herrian, eta Udalaren aldetik ez dela egon kontrolik. "Ordenantza horrek daukan mugarik handiena erabilpenari dagokiona da", esan du. "Goiko legetik dator hori horrela, lege orokorrak agintzen du. Ezin dugu salto egin. Gu sartu ginenetik saiatu gara ordenantza hori betetzen ez duten eskariei ezezkoa ematen, eta baimendu ditugu txabola pare bat baina beti ere ordenantzaren barruan sartzen direnak", gaineratu du Retolazak.

**HERRITARREN IRITZIA**

Herritarren artean egindako inkestak erakusten du %60,2ak uste duela txabolak ortuko lantresnak gordetzeko bakarrik izan behar dutela. Gehiengoa, baina, ez dago ados ordenantzak jasotzen dituen beste bi punturekin. %51,56a txabolek ura eta argia izatearen alde dago, eta%66,7 bertan animaliak gordetzeko aukera izatearen alde.

Udalak, orain, zer egin erabaki beharko du. Baliteke gaia Herritarren Foroan aztertzea.

**ARAMAIO** > ZUHAITZ EGUNA

# 40 zuhaitz inguru landatu zituzten eskolako gaztetxoek

San Adriango Danborralde basoan egin zituzten landaketak, Udaleko ordezkariek eta Urkiolako parkeko monitoreek lagunduta

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Eguraldi ezin hobea izan zuten barikuan eskolako umeek Zuhaitz Eguna ospatzeko: zerua urdin-urdin eta tenperatura benetan ederra. Goizean goiz autobusa hartu eta San Adrianera joan ziren lehenengo eta seigarren maila bitarteko ikasleak. Danborralden lan polita zeukaten egiteko: zuhaitzak landatu. Guztira, 40 zuhaitz inguru landatu zituzten: pagoak, gorostiak eta haritzak. Zeregin horretan Udaleko ordezkarien eta Urkiola parkeko monitoreen laguntza izan zuten. Baina atsedenerako tartea ere izan zuten; izan ere, Udaleko ordezkariek hamarretako goxoa eroan zieten ikasleei, egindako lana eskertzeko.

**EGUAZTENEAN TXIKIEN TXANDA**

Eskolako txikitxoenek, berriz, eguaztenean, martxoak 18, ospatuko dute Zuhaitz Eguna. Kasu horretan, ez dute mendira irteerarik egingo; herrian bertan egingo dituzte landaketak. 09:15ean hasiko dute euren lana eta eskulanak ere egingo dituzte Zuhaitz Eguna ospatzeko.



Barikuan Zuhaitz Eguna ospatu zuten eskolako umeek. SAN MARTIN ESKOLA

**LEINTZ GATZAGA** > EUSKARA

# Korrika batzordeak afaria antolatu du apirilaren 3rako

Izenemate epea astean zabalduko dute eta Labidea dendan egin behar da

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Hamar egun eskas geratzen dira Korrika hasteko eta Gatzagan prestatze lanekin dabiltza. Korrika batzordeak orain dela bi aste egin zuen lehen batzarra herritarrekin eta erabaki zuen afaria eginda ospatzea Korrikaren etorrera. Orain dela bi urte ere halaxe egin zuten; afaldu eta ondoren lekukoaren atzetik joan ziren orduan. Oraingoan, baina, ez dute halakorik egingo, bi egun aurreratzea erabaki dute-eta. Afaria apirilaren 3an izango da, egubakoitza, kultura etxean, eta 16. Korrikaren lekukoa apirilaren 5ean iritsiko da, domeka. Afalordua, gainera, bertsolariek girotuko diete gatzagarrei; Mañukorta bizkaitarra eta Jokin Labaien arrasatearra izango dituzte lagun. Afarira joateko izenemate epea astean bertan zabalduko dute. Labidea dendan hartuko dituzte izenak, eta Korrika batzordeko kideek herritar gehienak animatzea gurako lukete.

**KILOMETROAK SALGAI**

Bestalde, kilometroak erosteko aukera dago AEKri laguntzeko. Interesatuek Korrika batzordeko kideekin egin behar dute berba, eta argibide guztiak jasoko dituzte. Gatzagara azken egunean iritsiko da Korrika, apirilaren 5ean, 07:15 inguruan. Lau bat kilometro dagozkio herriari, eta, duela lau urte ez bezala, aldapan gora egin beharko dute takarradan herritarrek.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Husna berdindu dute BTLSk eta Antzuolak, ikusmin handia sortu duen derbian **> 22**



**> OÑATIKO DUATLOIA**
Nicolas Capoferrik irabazi du XVIII. edizioa; nesketan, Inma Ruiz izan da azkarrena **> 24-25**



**> BORJA AZPEITIA**
Mendizale oñatiarra Aconcaguan izan zen urtarrilean, baina ezin izan zen goraino igo **> 26**




Aloña Mendi taldeko txirrindulari guztiak elkarrekin zapatuan, Etxe Aundi jatetxean egindako aurkezpen ekitaldian. JOSETXO ARANTZABAL

**TXIRRINDULARITZA** > ALOÑA MENDI, AURKEZPENA

# Lau talderekin hasi du denboraldia Aloña Mendi txirrindulari taldeak

Aloña Mendik 19 txirrindulari ditu aurten, euren artean bi neska daude: kimuetan bata, haurretan bestea

Gazteek eta kadeteek dagoeneko hasi dute denboraldia; haurrek eta kimuek apirilaren 4an egingo dute, Oñatin



Gazteak -ezin etorria azaldu zuten hainbatek- eta kadeteak elkarrekin. JOSETXO ARANTZABAL



Haurrak eta kimuak, taldeko txirrindulari gazteenak, elkarrekin. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > OÑATI

Torreauzon dagoen Etxe Aundi jatetxearen aurrean aurkeztu zituen txirrindulari taldeak Aloña Mendi elkarteak, eguraldi bikaina lagun zutela.

**GUZTIRA 19 ZIKLISTA**

Lau talde ditu aurten Aloña Mendik eta 19 txirrindulari guztira. Hala ere, aurkezpen ekitaldian bi taldetan banatuta atera zituzten argazkiak, batetik gazteak eta kadeteak –gazteak ez zeuden, azterketa bat tarteko– eta bestetik, haurrak eta kimuak.

Gazteen artean hiru txirrindulari bakarrik ibiliko dira Garikoitz Baños eta Mikel Lizarralde zuzendari dituztela: Iker Mugarza, Ander Altube eta Daniel Remirez. Lehen biak, Mugarza eta Altube, ziklo krosean ere ibiliko dira eta Altube mendi bizikletan ere bai. "Txapelketa gutxi egoten dira Gipuzkoan eta horregatik, txirrindulari gutxi dabiltza mendi bizikletan", jakinarazi digu Pedro Irurzun txirrindulari taldeko presidenteak. Kadeteen artean bost txirrindulari daude Joseba Urtzelairen gidaritzapean. Haurren mailan lau daude, tartean neska bat eta kimuetan zazpi dira txirrindulariak eta euren artean beste neska bat. Bi talde horien gidaritza lanak Joseba Iciarrek eta Andoni Urteagak egingo dituzte.

**HELBURUA, MANTENTZEA**

Pedro Irurzun presidentearen esanetan denboraldiko helburu bakarra ilusioarekin aurrera egitea da: "Txirrindulariok hor mantentzea da asmoa, gazteak dira eta oraindik ikasten dabiltza".

Gazteek Gipuzkoako I¶tzulian eta klasiko baten hartuko dute parte: "Norberaren lana hobetzea da gure helburu bakarra, baina lasterketak irabazteko inolako presiorik gabe", argitu du Garikoitz Bañosek. Kadeteen helburua, ostera, errepidera ohitzea da: "Orain arte zirkuituetan egin dituzte lasterketa guztiak eta hemendik aurrera errepidean ibili beharko dute", dio Joseba Urtzelaik.

Denboraldia dagoeneko hasi dute bi taldeek eta datorren domekan, hilak 22, Zegaman dute lasterketa gazteek; kadeteek, ostera, Eibarren.

Haurrek eta kimuek, bestalde, oraindik ez dute hasi denboraldia. Apirilaren 4an dute lehenengo lasterketa Oñatin bertan, eta ilusioarekin ekingo diote.

**FUTBOLA** > LEHEN ERREGIONALA, BTLS-ANTZUOLA

# BTLSko bi jokalari gutxiagorekin eta husna berdinduta bukatu zuten derbia

Bi taldeek izan zuten aukeraren bat edo beste, baina ezinean ibili ziren

Bergararrak haserre zeuden epailearekin, azken 15 minutuetan bi jokalari bidali zituelako


BTLS eta Antzuola taldeak norgehiagokan, zapatu arratsaldean Ipintzan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA
Ikusmin handia sortu zuen BTLS eta Antzuolaren arteko derbiak, eta bergararrak baino gehiago ziren Antzuolatik etorritako zaleak Ipintza futbol zelaian.

Bi taldeek izan zituzten hainbat aukera partiduko lehen minutuetan. BTLSk erasoan egindako hainbat jokaldiri esker, eta Antzuolak area barruan ateratako faltekin. Baina ez batak, ez besteak, ez zuen benetako arriskurik sortu, eta atezainek ez zuten aparteko lanik egin behar izan partidu guztian. Hala bada, batak zein besteak izan zuten irabazteko aukera, baina golarekin ez zuten asmatu. 78. minutuan Neizen Olabarria zelairatu zuen BTLSko entrenatzaile Aranburuk, baina bost minutu bakarrik egin zituen zelaian. Falta gogorra egin zuela iritzi zion epaileak eta zuzenean kalera bidali zuen. Hurrengo minutuan bigarren txartela erakutsi zion Iñaki Corrali eta azken minutuetan bederatzi jokalarirekin geratu zen BTLS. Hala, atea babestearekin nahikoa lan izan zuten bergararrek, eta berdinketarekin konforme geratu ziren.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# UDAk 0-2 irabazi eta lehenengo jarraitzen du; Mondrak eta Aloñak galdu egin dute

Pazientzia izan zen Aretxabaletakoen gakoa partidua irabazteko; Mondrakoek ez zuten lekurik topatu zelaian

**M.A.** > BERGARA
Lehen postuan jarraitzen du Aretxabaletak 49 punturekin eta atzean utzi du Hernani. Zumaiakori 0-2 irabazi zion zapatuan eta Gordobil eta Arenazaren mutilak gustura itzuli ziren etxera. Pazientzia izan zela partiduko gakoa adierazi digu Arenazak: "Bagenekien zelai zaila izango zela Zumaiakoa, txikia delako, baina atzean lasai egotea lortu dugu eta pazientziarekin iritsi dira golak". Bigarren zatian sartu zituzten gol biak: lehena, 52. minutuan Aritz Igartuak eta bigarrena, partidua bukatzeko 10 minutu geratzen zirenean Akaitz Garaik.

**MONDRA ETA ALOÑA EZINEAN**
Mondrak galdu egin zuen Real Unionen aurka (3-1). Arrasateko mutilak euren lekua topatu ezinik ibili ziren zelaian eta lehenengo ordu erdirako 3-0 galtzen zeuden. Mondraren gola lehen zatia bukatu aurretik iritsi zen eta bigarren zatian arrasatearrak izan ziren nagusi baina golik ezin izan zuten lortu.

Oñatiri ere galtzea tokatu zitzaion UPV/EHU Vasconiarekin (2-1). Iñigo Arrola oñatiarrak zabaldu zuen markagailua bigarren zatian, baina segituan ailegatu zen berdinketa. Eta partidua bukatzekotan zegoela UPVren bigarren gola etorri zen oñatiarren akats bat aprobetxatuta.

> EUSKAL LIGA

## Aretxabaletak galdu egin zuen eta oraindik ez du lortu igoera

Igoera lortzeko aukera zeukan Euskal Ligan jokatzen duen Aretxabaletako taldeak, baina Iban Rodriguezen mutilek ezin izan zuten garaipenik ekarri Leioatik (2-1). Partidu gogorra zela bazekiten aretxabaletarrek, eta oso parekatuta ibili ziren biak zelaian.

Orain 56 puntu ditu Aretxabaletak, eta datorren aste bukaeran du igoera lortzeko bigarren aukera. Etxean jokatuko dute azkeneko dagoen taldearen aurka, El Pilar Marianistak. Orduan irabaziz gero igoera lortuko luke matematikoki.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Aretxabaleta** | **49** | 25 |
| 2. **Hernani** | **47** | 25 |
| 3. **Tolosa** | **46** | 25 |
| 4. **Pasaia** | **43** | 25 |
| 5. **Trintxerpe** | **42** | 25 |
| 6. **Real Union** | **42** | 25 |
| 7. **Aloña Mendi** | **41** | 25 |
| 8. **Berio** | **40** | 25 |
| 9. **Hondarribia** | **39** | 25 |
| 10. **Idiazabal** | **38** | 25 |
| 11. **Ondarroako Aurrera** | **31** | 25 |
| 12. **Mondra** | **26** | 25 |
| 13. **Euskalduna** | **26** | 24 |
| 14. **EHU Vasconia** | **23** | 25 |
| 15. **Mundarro** | **20** | 25 |
| 16. **Zumaiako** | **19** | 25 |
| 17. **Anaitasuna** | **18** | 25 |
| 18. **Amaikak Bat** | **16** | 25 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Pasaia-Berio | 2-3 |
| EHU/UPV Vasconia-Aloña Mendi | 2-1 |
| Real Union-Mondra | 3-1 |
| Hondarribia-Tolosa | 0-3 |
| Aurrera-Astig. Mundarro | 1-1 |
| Amaikak bat-Idiazabal | 1-2 |
| Zumaiako-Aretxabaleta | 0-2 |
| Hernani-Euskalduna | 2-2 |
| Anaitasuna-Trintxerpe | 0-0 |

**Hurrengoak**

Pasaia-Anaitasuna
Berio-UPV/EHU Vasconia
Aloña Mendi-Real Union
Mondra-Hondarribia
Tolosa-Ondarroako Aurrera
Astig. Mundarro-Amaikak Bat
Idiazabal-Zumaiako
Aretxabaleta-Hernani
Euskalduna-Trintxerpe

### BESTELAKOAK

**LEHEN ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| BTLS-Antzuola | 0-0 |
| Mondra-Anaitasuna | 2-1 |
| Ilintxa-Bergara | 1-2 |
| Aretxabaleta-Lagun Onak | 1-0 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Allerru-Bergara | 3-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Allerru | 3-1 |

**1. MAILAKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Hernani-Mondra | 0-1 |

**1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-Bergara | 3-2 |
| Soraluze-UDAArizmendi | 1-5 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Billabona-Aretxab.Arizmendi | 3-4 |
| Real Sociedad-Bergara | 2-0 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Zumaiako | 1-2 |
| Aloña Mendi-Lengokoak | 0-1 |

**KADETEEN 1. MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Tolosa | 4-1 |

**KADETEEN 1. MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-Arizmendi | 2-1 |
| Ikasberri-Aloña Mendi | 5-0 |
| Bergara-Urola | 0-3 |

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak
KOOP. E.
1979urtetik zure zerbitzura
EGUZKiGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

**SASKIBALOIA** > ESKORIATZA ETA MU OINTXE

# Eskoriatzarrek eta arrasatearrek garaipena eskuratu dute aste bukaerako partiduetan

Eskoriatzako neskek primeran jokatu eta garaipena eskuratu zuten Intxartxuetan

ESKORIATZA
**36-29**
ZARAUTZ


Eskoriatzako neskak kontra erasoan gogor ibili ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Garaipena lortuta pozik eta gustura azaldu ziren Eskoriatzako saskibaloi taldeko neskak. Partidu osoan aurretik ibili ziren markagailuan. Batez ere hasierako zatian saskiratze ugari egitea lortu zuten puntu dezente egitez. " Zarauztarrak jokalari azkarrak dira eta berdintzea ere lortu dute. Nahiko parekatua ibili da markagailua, baina aurrea hartzea lortu dugu", halaxe azaldu digu Aitziber Soriano jokalariak.

Kontra erasoan gogor ibili ziren Zarautzeko neskak, baina Eskoriatzako saskibaloi taldeak defentsan lan bikaina egin du. "Zarauztarrek oso eraso gogorra dute, baina guk defentsan lan bikaina egin dugu eta puntu batzuk lapurtu dizkiegula uste dut", gaineratu du Sorianok.

Egindako defentsa azkarrak eta eraginkorrak markagailuari berriro irauli eta eskoriatzarrak garaipenera eroan zituen.

**MU-K IRABAZI**

MU Ointxe taldea, garaipena esku artean zuela itzuli zen Getxotik zapatuan. 68-72 geratu zen markagailua arrasatearren alde.

Hasiera hasieratik nagusitu ziren Ointxeko mutilak eta partidu osoa menderatu zuten.

Hala ere, bigarren zatia lasaiagoa izan zen eta bi taldeak erlaxatu egin ziren erritmoa jaitsiz. "Baloi eta aukera asko galdu dira bigarren zatian, baina partiduari buelta ematea lortu dugu", azaldu digu Jabi Zurbanok.

Laugarren zatian, berriz, guztia emateko prest kantxaratu ziren Ointxeko mutilak. Defentsan eta erasoan bikain jardun zuten Getxokoekin alderatuz, eta merezitako garaipenarekin itzuli dira etxera arrasatearrak.


JOSETXO ARANTZABAL

## Ikuskizun polita Beti Bustikoen eskutik

Zapatu arratsaldean bergarar mordoa gerturatu zen Bet Busti taldea animatzera Bideberrira. 10-12 urte bitarteko gaztetxoek eskola jokoak eta txapelketa egin zuten. Beñat Lizarralde bergararrak, infantiletako Gipuzkoako txapeldunak, irabazi zuen K-1 modalitatean. Asier Rodriguez, arrasatearra, bigarrena izan zen txapelketan.

> TXIRRINDULARITZA

## Markel Irizar oñatiarra atzo bukatutako Paris-Niza lasterketako azken etapan erretiratu egin zen

Oñatiarra Paris-Niza lasterketako azken etapan erretiratu egin zen atzo, domeka. Joan den urtean, berriz, lasterketa bereko lehen erlojuz kanpokoan ia garaipena eskuratu zuen; bigarren gelditu zen, Thor Hushovden atzetik. Aurtengo lasterketako garaipena Caisse d' Epargne taldeko Luis Leon Sanchez espainiarrak eskuratu du. Edizio honetan Euskaltel taldea ez da nabarmendu.

Bestalde, Arrasateko Iban Velasco une honetan Tirreno-Adriatico lasterketan dabil; bi etapa falta dira hori bukatzeko.

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000



• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
• Laborala:
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...
• Fiskala:
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
• Kontabilidadea:
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

**SASKIBALOIA** > ESKORIATZA ETA MU OINTXE

# Eskoriatzarrek eta arrasatearrek garaipena eskuratu dute aste bukaerako partiduetan

Eskoriatzako neskek primeran jokatu eta garaipena eskuratu zuten Intxartxuetan

ESKORIATZA
**36-29**
ZARAUTZ

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Garaipena lortuta pozik eta gustura azaldu ziren Eskoriatzako saskibaloi taldeko neskak. Partidu osoan aurretik ibili ziren markagailuan. Batez ere hasierako zatian saskiratze ugari egitea lortu zuten puntu dezente eginez. " Zarauztarrak jokalari azkarrak dira eta berdintzea ere lortu dute. Nahiko parekatua ibili da markagailua, baina aurrea hartzea lortu dugu", halaxe azaldu digu Aitziber Soriano jokalariak.

Kontra erasoan gogor ibili ziren Zarautzeko neskak, baina Eskoriatzako saskibaloi taldeak defentsan lan bikaina egin du. "Zarauztarrek oso eraso gogorra dute, baina guk defentsan lan bikaina egin dugu eta puntu batzuk lapurtu dizkiegula uste dut", gaineratu du Sorianok.

Egindako defentsa azkarrak eta eraginkorrak markagailua berriro irauli eta eskoriatzarrak garaipenera eroan zituen.

**MU-K IRABAZI**

MU Ointxe taldea garaipena esku artean zuela itzuli zen Getxotik, zapatuan. 68-72 geratu zen markagailua arrasatearren alde.

Hasiera hasieratik nagusitu ziren Ointxeko mutilak eta partidu osoa menderatu zuten.

Hala ere, bigarren zatia lasaiagoa izan zen eta bi taldeak erlaxatu egin ziren erritmoa jaitsiz. "Baloi eta aukera asko galdu dira bigarren zatian, baina partiduari buelta ematea lortu dugu", azaldu digu Jabi Zurbanok.

Laugarren zatian, berriz, guztia emateko prest kantxaratu ziren Ointxeko mutilak. Defentsan eta erasoan bikain jardun zuten Getxokoekin alderatuz, eta merezitako garaipenarekin itzuli dira etxera arrasatearrak.



Eskoriatzako neskak kontra erasoan gogor ibili ziren. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

## Ikuskizun polita Beti Bustikoen eskutik

Zapatu arratsaldean bergarar mordoa gerturatu zen Beti Busti taldea animatzera, Bideberrira. 10-12 urte bitarteko gaztetxoek eskola jokoak eta txapelketa egin zuten. Beñat Lizarralde bergararrak, infantiletako Gipuzkoako txapeldunak, irabazi zuen K-1 modalitatean. Asier Rodriguez, arrasatearra, bigarrena izan zen txapelketan.

> TXIRRINDULARITZA

## Markel Irizar oñatiarrak, Paris-Nizako lehen erlojuz kanpokoan ia garaipena eskuratu zuen

Paris-Niza, denboraldiko lasterketa garrantzitsuenetakoa, atzo, domeka, amaitu zen. Baina, hasi bezain laster, erlojuz kanpokoan, Markel Irizarrek sorpresa aparta eman zuen. Momentu askotan garaipena eskuekin ukitu zuen Irizarrek, baina, Thor Hushovd Norvegiako txirrindulari azkarrak aurrea hartu zion eta lau segunduko aldea atera zion Irizarri.

Paris-Niza lasterketako garaipena Caisse d' Epargne taldeko Luis Leon Sanchez espainiarrak eskuratu du.

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000



• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• Fiskala:
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilidadea:
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

**DUATLOIA** > OÑATIKO XVIII. DUATLOIA

# Nicolas Capoferri frantziarra izan zen azkarrena Oñatiko XVIII. duatloian

Emakumezkoetan, Inma Ruiz gernikarrak egin zuen denborarik onena

381 pertsonak eman zuten izena eta, horietatik, 303k bukatu zuten proba



Atletak irteera puntuan batu ziren momentuan, nabarmena zen urduritasuna. J.A.

**GOIATZ ARANA** > OÑATI

Arrakastatsua. Halakoxea izan da Oñatiko duatloiaren hamazortzigarren edizioa. Zapatuan jokatu zen, lauetan hasita eta herriko plazatik abiatuta. Izena emandakoen kopurua ikusita, aurtengoa orain arteko ediziorik jendetsuena izango zela zirudien, baina ez zen hala izan. Izan ere, izena emandakoak 381 baziren ere, 317 batu ziren irteera puntuan; iaz, 340.

Urtero moduan, atletek hiru sektoreri egin behar izan zieten aurre: zortzi kilometro korrika, 40 bizikletan, eta bukatzeko beste lau korrika.

**SORPRESA EMAN ZUEN VILAK**

Frantziatik 20 bat laguneko taldea etorri zen eta eurak ziren faborito, duten maila oso altua delako. Argi samar zegoen eurentzako izango zirela lehen bi postuak; aldiz, zalantza gehiago eragiten zuen hirugarrenak. Zentzu horretan, ezustekoa eman zuen Patxi Vilak, faboritoetako bat izan arren, bazirelako duatloietan hobeto ibiltzen direnak. Beratarrak lasterketa bikaina egin zuen, ordea, txirrinduan gehienbat, eta Mikel Elgezabal eta Patxi Urizarren aurretik sailkatzea lortu zuen, frantziarrekin batera podiumera igoz.

**FRANTZIARRAK, BIKAIN**

Laurent Galinier –iazko irabazlea– eta Nicolas Capoferri lasterketa apurtzera etorri ziren, eta baita egin ere. Herriko kaleetan zehar korrika egin beharreko lehen zortzi kilometroetan aurrean jarri ziren eta hala jarraitu eta bukatu zuten proba. Bigarren sekuentzian ikusi ahal izan zen korrika oso ondo dabilenak gabezia batzuk dituela bizikletan, eta alderantziz. Eta horretan, txirrindulari profesionala dela erakutsi zuen Patxi Vilak: "Argi neukan zerbait egitekotan, bizikletarekin atzean utzi behar nituela frantziarrak, baina lehen sektorea izugarri ondo egin dute-eta... Eurak baino bi minutu beranduago atera naiz txirrinduarekin boxetik eta hori errekuperatzea ez da erraza". Berakoak bazekien Deskargan jokatu beharko zituela bere kartak eta hala egin zuen: "Krono igoera bat moduan hartu ditut mendateko kilometroak, eta beheran minutu eta 50 segundoko aldea ateratzen bazidaten, goran alde hori 30 segundotara jaistea lortu dut". Vila korrika defendatzen bada ere, bizikletan ibiltzen da ondoen, noski; txirrindu gainean egin beharreko 40 kilometroak eginda, lehen taldean ailegatu nahi zuen Oñatira eta hala egin zuen.

Hirugarren eta azken sektorean –lau kilometro korrika-, argi zegoen, gora beherarik izan ezean, Galinierrek edo Capoferrik irabaziko zuela, eta hala gertatu zen: Nicolas Capoferri izan zen helmuga puntua zeharkatzen lehena (1:39:58); Laurent Galinier, bigarrena (1:40:27); eta Patxi Vila, hirugarrena (1:41:04). Beratarra izan zen, beraz, euskaldunen artetik azkarrena, eta gustura azaldu zen egindako lanarekin: "Emaitza ona da niretzat; aurrean sartu diren biei irabaztea zaila edo ia ezinezkoa da gaur egun. Esango nuke, gainera, Oñatiko duatloia Euskal Herriko garrantzitsuena dela, eta pozik nago".

**INMA RUIZ, LEHEN EMAKUMEZKOA**

Emakumeei dagokienez, 16 zeuden izena emanda eta 13k esku



**Julen Kortabarria**
Oñatiarra

## "Oso proba gogorra da, inguruko gogorrenetarikoa"

"Oso pozik geratu naiz egindako lanarekin, are gehiago zer nolako maila dagoen ikusirik. Iaz parte hartu nuen lehen aldiz eta aurten denbora hobetzea lortu dut, gainera. Bizikletan ibili naiz gusturen eta Deskargan dezente egin dut aurrera. Proba gogorra da, hemen inguruan daudenen artetik gogorrenetarikoa".



**Iban Perez**
Oñatiarra

## "Bizikletako lehen kilometroak gogorrak izan dira niretzat"

"Nahiko ondo prestatuta etorri naiz eta gustura ibili naiz, aurreko edizioan baino hobeto. Iazko euri zaparradarik ere ez du bota eta horrek ere laguntzen du. Entrenamendu on batekin edonork egin dezake, baina proba gogorra da. Bukaeran ibili naiz ondoen, korrika; aldiz, bizikletako lehen kilometroetan, lanak izan ditut".



**Migel Angel Igartua**
Oñatiarra

## "Orain arteko denborarik txarrena egin dut gaur"

"Orain arte egin ditudan duatloietatik txarrena izan da hau. Normalean, bi ordu azpitik ibiltzen naiz, baina gaur ez. Bero gehiegi egiten zuen; eguraldi txarrarekin entrenatu naiz eta... sumatu dut diferentzia. Korrika oso gaizki ibili naiz; bizikletan, hobeto. Herritarrek animatzen gaituzte eta horrek asko laguntzen du".



**Ander Agirre**
Bergararra eta Debagoieneko lehena

## "Ondo nago eta espero nuen gaur ere aurrean ibiltzea"

"Aurreko lasterketetan nahiko ondo ibili naiz eta espero nuen gaur ere aurrean ibiltzea. Bizikleta hartzerakoan, denbora apur bat galdu dut, baina gero talde batek harrapatu nau, tartean zen Patxi Vila, eta topera joan gara. Frantziarrek oso maila ona daukate eta ez nau harritu euretako batek irabazi izanak".



**Aitor Rementeria**
Bergararra

## "Gorputza ez daukat mailarik onenean, oraindik"

"Giro nahiko beroarekin egin dudan lehen proba izan da eta gogor samarra egin zait, baina gustura ibili naiz. Denboraldiko bigarren lasterketa izan da niretzat eta igarri dut gorputza oraindik ez dagoela bere onenean. Nahiko erregular ibili naiz denean. Ikusten da duatloiak eta triatloiak badutela zaletasuna bailaran".

hartu zuten. Inma Ruizek egin zuen denborarik hoberena (1:58:25). Gernikakoak pozez zoratzen hitz egin zigun, helmuga puntuan: "1996an, 97an eta 98an parte hartu nuen Oñatiko duatloian eta hiruretan lehena izan nintzen, nesketan. Gero utzi egin nuen; eta orain, itzuli naizenean, berriz ere aurrena iristea lortu dut. Anekdota polita da". Ruiz, hein batean, harrituta ere bazegoen, izena emandakoen artean bazirelako bera baino hobeto ibili ohi direnak: "Amaia Ostolaza ni baino azkarragoa da eta harrituta nago", esan zigun. Inma Ruizek esan moduan, Ostolaza zen zapatuko proba irabazteko faboritoetako bat, baina hankan mina sentitu zuen korrika egindako lehen kilometroetan eta, lehen sekuentzia osatuta, erretiratu egin zen. Gernikakoak, bere aldetik, eskertu egin zituen publikoaren animuak; herri barruan ez ezik, Deskargako mendatean ere jende asko zegoela eta gogotsu animatu zutela kontatu zigun. Datorren domekan Gasteizen izango da, Espainiako Txapelketan: "Ea Euskadi toki onean uzten dugun" esan zigun. Bere atzetik, Saioa Olite izan zen bigarren emakume azkarrena (2:01:36); eta Lucia Garate, hirugarrena (2:01:51).

Debagoiendarrei dagokienez, Atxintxika Triatloi Taldeko Ander Agirre bergarararrak egin zuen denborarik onena. Ordu bete, 44 minutu eta 37 segundotan osatu zuen ibilbidea.

**INTZIDENTZIARIK EZA**

Parte hartzaile batzuek, aukeran, bero gehiegi egin zuela esan ziguten, proba amaitutakoan. Izan ere, urteko egunik beroenetakoa izan zen zapatukoa eta atletak ez dira tenperatura horietara ohitu oraindik. Edonola ere, gogoan zuten iaz gogotik egin zuela euria, eta eskertu zuten ateri eutsi izana. Gainerakoan, dena primeran joan zen eta intzidentziarik izan zen galdetuta, ezer larririk ez zela gertatu kontatu ziguten antolakuntzakoek: "Helmuga puntuan, atleta bat zorabiatu egin da, baina berehala etorri da bere onera. Erorketa batzuk ere izan dira, baina ez dute zauri larririk eragin". Balorazio positiboa egin dute, beraz, proba antolatzen jardundako Oñatiko Triatloi Taldeak eta Euskadiko Federazioak. Euskal Herriko zirkuiturako laugarren proba puntuagarria izan da Oñatikoa. Barakaldo, Mungia eta Basaurin jokatu dira aurreko hirurak.



XVIII. edizioko gizon-emakumerik azkarrenek udal ordezkarien eskutik jaso zituzten sariak. G.A.


Ikusleak, Ander Agirre bergarararri animuak ematen. I.A.


Plazan egokitutako boxean egin zituzten aldaketak. I.A.

Nicolas Capoferri > Irabazlea

## "Irabaztea nuen helburu eta lortu egin dut"

GOIENKARIA > OÑATI

**Sables Vendee taldeko Nicolas Capoferri frantziarra da Oñatiko duatloiko txapeldun berria. Bigarren aldiz parte hartu du lasterketa horretan: iaz hirugarren postua eskuratu zuen eta aurten txapela jantzi du. Horixe zuen helburu, eta lortu egin du.**

Zer moduz joan da lasterketa?

Oso ondo. Iaz parte hartu nuen lehendabiziko aldiz, eta aurten irabaztera etorri naiz. Hobeto prestatu naiz eta ondo atera da dena.

Korrika ala bizikletan, non sentitu zara hobeto?

Bietan oso ondo. Lehen korrikaldian, helburua izan da bizikletan ondo ibiltzen direnei abantaila ateratzea. Bizikletako tartea elkarrekin egin dugu Laurent Galinierrek eta biok. Eta azken korrika saioan ahal nuen guztia eman dut; abantaila atera eta inor baino lehen helmugaratu naiz.

**Bizikletan gertu izan dituzu Galinier eta Vila. Momenturen batean ikusi duzu arriskuan lehen postua?**

Egia esan, nahiko seguru nengoen nire buruarekin. Patxi Vila atzetik jarri denerako Deskarga gainean geunden eta horrek lasaitu egin nau. Edozein modutan, nire asmoa zen, aurreratzen bazidan, gertutik jarraitzea, berriz ere korrika abiatutakoan aurre hartzeko. Baina ez da halakorik gertatu, batera sartu gara herrian.

**Zer nabarmenduko zenuke Oñatiko duatloietik?**

Ibilbidea asko gustatu zait eta antolakuntza aldetik bikain ikusi dut. Maila oneko proba da eta jendeak izugarri txalotzen ditu atletak: animu horiek zirrara eragin eta aurrera egiteko indarra ematen dute, zalantza barik.

**Zein da zure hurrengo helburua?**

Nire herrialdean, Frantzian, proba batzuk jokatu behar ditut. Europako lasterkaririk onenek esku hartuko dute eta lehen bosten artean sartzea da nire helburua, maiatzean Budapesten jokatuko den Europako Txapelketara Frantziako taldearekin joan ahal izateko.


GOIATZ ARANA

### sailkapenak

| LEHENENGO NESKAK | |
|---|---|
| 1. Inma Ruiz | 1:58:25 |
| 2. Saioa Olite | 2:01:36 |
| 3. Lucia Garate | 2:01:51 |
| 4. Raquel Lombo | 2:05:50 |
| 5. Veronica Dominguez | 2:09:23 |
| 6. Naroa Arrieta | 2:10:26 |
| 7. Nerea Gambra | 2:10:45 |
| 8. Sonia Muñoz | 2:12:07 |
| 9. Iratxe Landa | 2:15:07 |
| 10. Ane Mendia | 2:17:51 |

| LEHENENGO MUTILAK | |
|---|---|
| 1. Nicolas Capoferri | 1:39:58 |
| 2. Laurent Galinier | 1:40:27 |
| 3. Patxi Vila | 1:41:04 |
| 4. Patxi Urizar | 1:42:33 |
| 5. Mikel Elgezabal | 1:42:34 |
| 6. Endika Garcia | 1:42:51 |
| 7. Josu Uriarte | 1:44:21 |
| 8. Aitor Alberdi | 1:44:26 |
| 9. Ander Agirre | 1:44:37 |
| 10. David San Martin | 1:44:54 |

| DEBAGOIENDARRAK | |
|---|---|
| 9. Ander Agirre | 1:44:37 |
| 30. Aitor Larrea | 1:48:53 |
| 32. Jon Aperribai | 1:49:06 |
| 36. Mikel Mugika | 1:49:27 |
| 50. Unai Pedregal | 1:50:27 |
| 52. Aitor Rementeria | 1:50:34 |
| 57. Aitor Sotil | 1:51:15 |
| 61. Imanol Erle | 1:51:28 |
| 64. Asier Oiarzabal | 1:51:39 |
| 66. Julen Kortabarria | 1:51:47 |
| 72. Xabier Ugarte | 1:52:21 |
| 75. Mikel Oliveri | 1:52:38 |
| 81. Igor Lazkano | 1:52:50 |
| 86. Erik Fuente | 1:53:02 |
| 87. Francisco Miguel Torres | 1:53:14 |
| 88. Juan Sanchez | 1:53:17 |
| 109. Iñigo Olañeta | 1:55:09 |
| 147. Ivan Perez | 1:58:08 |
| 162. Javier Arconada | 1:59:39 |
| 165. Mikel Vazquez | 1:59:50 |
| 171. Iker Sologaistoa | 2:00:30 |
| 172. Mikel Errarte | 2:00:33 |
| 182. Iban Da Silva | 2:01:09 |
| 191. Ander Garitazo | 2:01:54 |
| 207. Mikel Ayani | 2:03:52 |
| 218. Gorka Anduaga | 2:05:19 |
| 230. Miguel Angel Igartua | 2:06:19 |
| 263. Gaizka Aranburu | 2:11:43 |
| 269. Nestor Arenaza | 2:13:01 |
| 272. Iñigo Regueiro | 2:13:34 |
| 276. Roberto Vazquez | 2:15:14 |
| 285. Joseba Santor | 2:22:29 |

**Oharra**: *www.txantxiku.net* helbidetik ateratako sailkapenak.
**Oharra**: Oñatiko Triatloi Taldeko eta Antxintxika Triatloi Taldeko atleten denborak jaso ditugu debagoiendarren zerrendan. Independente moduan lasterka egin zuten bailarako atleten emaitzak ez ditugu jaso.



Mendizale oñatiarra Aconcaguarako bidean hartutako irudian.

BORJA AZPEITIA

Borja Azpeitia > Mendizalea

# "Mendian zer dagoen eta zure muga zein den jakin behar duzu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Borja Azpeitia mendizale oñatiarra Aconcaguan izan zen urtarrilean. Arazoak tarteko, ezin izan zuen goraino iritsi, baina esperientzia errepikatzeko gogoz geratu da. Datorren urtean ere hara joango dela esan digu.**

**Aconcagua (6.962 metro) igotzea zen asmoa.**

Gora joateko intentzioarekin nengoen, baina sekula horrelako mendietan ibili barik nengoen. Gogorra da, oxigeno falta handia dago eta eguraldia ere oso hotza da. Nik ez nuen uste horrenbeste igoko nuenik. Oxigeno falta izugarria dago, eta gorputza ez daukagu horretara ohituta.

6.500 metrora igo nintzen, eta buelta ematea erabaki nuen. Batez ere izotzagatik hartu nuen erabakia. Esan behar da zero azpitik 40 gradu zeudela, baina sentsazio termikoa -50 gradukoa zen. Hankak oso hotzak nituen; momentu batean eskularruak kendu nituen eta berehala izoztu zitzaizkidan hatzak. Gorputza ondo neukan, baina hankak, denbora guztian izotzetan eta elurretan ibilita gogortuta nituen, behatz puntak gorrituta neuzkan. Aurrera jarraitu izan banu, seguruenik, behatzak moztu beharko zizkidaten, jende askori moztu izan dizkioten bezala.

**Mendizale batek, zer sentitzen du horrelako mendi garaien aurrean?**

Aurrez horrelako mendiak inoiz ikusi barik egonda, izugarria da hori ikustea. Era berean, beldurra ere sentitzen da. Gu kanpamendu basera iritsi ginenean, helikoptero bat hildako bat eramaten zebilen, eta halakoek inpresionatu egiten dute. Zer pentsatua ematen du. Gainera, buruko eta biriketako edemak ere asko gertatzen dira, ia egunero. Ez dakizu zuri zer gerta dakizukeen; parkean sartzen zara baina ez dakizu irtengo zaren.

Gogorra egiten da; han barruan egindako 15 egunetan gaizki pasatu nuen. Itzultzeko gogoz nengoen, lo ere gaizki egiten nuen. Azken finean egunak luzeak egiten dira; kanpoan egoteko moduko eguraldirik ez zegoen, barruan egon behar genuen.

**Nolako da hango egunerokotasuna?**

Mendi horietara igotzeko, lehenengo garaierara ohitu behar zara. Horretarako, egun batzuk alturean pasa behar dituzu. Lehenengo egunean 3.400 metrora igo ginen. Han gau bat pasatu genuen. Hurrengo egunean 4.000 metroan trekking bat egin genuen. Altura horietan, oxigeno falta asko igartzen da.

Hirugarren egunean kanpo basera joan ginen (4.500 metro). Han egun batzuk egin genituen ohitzeko. Handik Plaza Canada izenez ezaguna den kanpora igo ginen (5.050 metro). Hara janaria, lo dendak eta beste hainbat gauza eraman genituen eta berriro itzuli ginen kanpo basera.

Lehenengo kanpamentuan gau bat egin genuen eta gero bigarrenera igo ginen: Nido de Condores (5.500 metro). Oso leku politak direla esan behar da, baina era berean oso hotzak. Elurra egunero egiten zuen.

**Mediku probak ere egunero pasatzen zenituzten.**

> **"6.500 metro inguruan buelta ematea erabaki nuen; batez ere izotzagatik hartu nuen erabakia. Behatzak gogortuta neuzkan"**

Bai, gainera gure gidaria medikua zen eta probak egiten zizkigun egunero. Ikusten badute ez zaudela ondo, ez dizute gora igotzen uzten.

Hurrengo etapan 6.000 metrora igo ginen. Handik mendi puntara 8 orduko mendi ibilaldia geratzen zitzaigun oraindik. Azken egunean, 6.500 metro inguruan, gidaria, Salamancako biak, eta ni geratzen ginen. Gidariak gogorarazi zigun helburua ez zela bakarrik gora igotzea; jaisteko ere indarrak utzi behar genituela. Nik hankak oso hotzak nituenez, buelta ematea erabaki nuen.

**Eta zer egin zenuen, bakarrik jaitsi zinen?**

Ez dute uzten bakarrik jaisten. Kasualitatez, beste talde bat beherantz zetorren eta haiekin jaitsi nintzen.

Egun berean, gainera, kanpo basera jaitsi ginen. Normalean ez da horrela egiten, baina eguraldi txarra zegoen han geratzeko. Hurrengo goizean parketik irten ginen.

**Egun hauetan hedabideetan asko entzun da Argentinako gidariaren gaia. Parean egokitu zitzaizuen?**

Gu Argentinara heldu ginen egunean entzun genuen telebistan bi italiar eta gidari argentinarra hil zirela. Polemika guztia, baina, gerora etorri da.

Gu mendian gora igo ginenean bi italiarren gorpuak han zeuden oraindik, erreskatatu barik.

**Zer gertatu zen?**

Egia esan, ez dakit ondo zer gertatu zen. Gauza da, gerora irudi oso gogorrak atera direla. Han esaten zuten gidaria italiarrak erreskatatzera joan zela eta mendizale bati bere txamarra utzi ziola.

**Horrelako zerbait aurrean duzunean mendiak duen arriskuaz konturatzen zara?**

Bai, duda barik. Horrelako egoeratan gauza asko ikusten dituzu, baina baita ikasi ere.

**Eta heriotzari errespetua hartuko diozu.**

Duda barik. Beti joan behar duzu argi; zer dagoen jakin behar duzu, eta zure mugak non dauden argi izan. Ezin duzu burugogorkeriagatik aurrera egin. Eguraldiak utziz gero, gora; eta bestela, behera.

**Diote negozio bilakatu dela mendira igotzea horrelako lekutan.**

Bai, jende asko joaten da. Aconcaguara urtean zazpi mila pertsona joaten dira eta %30a ahalegintzen da gora igotzen.

ARRASATE

# Egungo futbol jokalari handiak ere areto futbolean hasi ziren

**DENA EMATEN** Iturripera gerturatu ziren gaztetxoak jo eta ke aritu ziren areto futbolean, dena ematen

**LAGUN ARTEAN** Galdu zein irabazi, joko garbia eta adiskidetasuna izan ziren nagusi goiz osoan zehar

**IKUSLE ASKO** Zapatu goizeko eguraldi ederra aprobetxatuz Iturripeko harmailak guraso eta lagunez bete ziren

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Eskola kirolak ehundaka gaztetxo mugiarazi zituen zapatu goizean, beste behin ere. Arrasaten bi zita izan zituzten gaztetxoek; batzuk Mojategin eta besteak Iturripen.

Mojategin rugbia izan zen protagonista. Ez da ohikoa hain gazte izanda rugbian jokatzea baina aurrekoan eurentzat berria den kirola ezagutzeko aukera izan zuten. Zazpi jokalarik osatutako taldetan ederto izerditu zuten 5. eta 6. mailako neska mutikoek.

Iturripen, bestalde, areto futbola izan zen protagonista. Gaztetxoek futbolean jokatzea bereziki gustuko dutela argi utzi zuten. Galdu zutenek ez zen gogo faltagatik izango, jo eta ke aritu zireneta, zuten dena ematen. Hori bai, joko garbia eta adiskidetasun giroa izan ziren nagusi. Beraz, helduekin gertatzen ez den moduan, epaileek lan erraza izan zutren Iturripen zapatu goizean jokatu ziren partidu guztietan.

**IKUSLEEN BABESA**

Futbolean, eta ia kirol guztietan, oso garrantzitsua izaten da ikusleen babesa. Bada, dagoeneko ohikoa bihurtu denez, gaztetxoek beste behin ere ikusleen babesa izan zuten. Goiz osan zehar, gainera. Izan ere, eguraldi ona aprobetxatuta hainbat guraso eta lagun hurbildu zen euren taldeak animatzera. Eta protagonistek, golak sartzen eta jokaldi politak lotzen eskertu zieten jarraitzaileei eurak ikustera etorri izana. Datorren zapatuan gehiago.



J.B.

**Gazteluondo 3+4.** Zutik: Aitzol, Ander, Andoni, Ander, Mikel, Ander, Oxel. Behean: Mikel, Jon, Ander, Andoni eta Oier.



J.B.

**Kurtzebarri.** Asierrek, Markelek, Aritzek, Aitorrek, Julenek, Iagok eta Ibaik osatzen dute taldea.



J.B.

**Almen 4.** Idurre, June, Ainitze, Nerea, June, Leire, Ane eta Miren. Zapatuan ordezko entrenatzailearekin irabazi zuten partidua.



J.B.

**Santa Teresa.** Maiderrek, Naiarak, Jonek, Eiderrek, Liernik eta Leirek osatzen dute Santa Teresako taldea.

ZER POSTUTAN JOKATZEA GUSTATZEN ZAIZU?



**Andoni Urrutia eta Ander Murua**
Gazteluondo 3+4

Futbola da Andonik eta Anderrek maite duten kirola, eta areto futbolean ezin hobeto pasatzen dute. Biak dira aurrelariak, "golak sartzeko aukera gehiago" dutelako. Anderri Messi gustatzen zaio; Andoniri, berriz, Aranburu.



**Jone , Lierni eta Eider**
Santa Teresa

Zapatuan jokatutako partidua galdu arren, ederto pasa zuen Santa Teresako hirukoteak. Lierniri atezain moduan jokatzea gustatzen zaio, Eiderri aurrean zein atzean, eta Jonek aurrean bakarrik: "ez dut gustuko defenditzea".



**Iker eta Jokin**
San Viator 4B

Iker Uribesalgok ezkerretik jokatzen du; sinplea da arrazoia: "ezkertiarra naiz". Golak sartzea du gustuko. Jokin Kortabarriak, berriz, "futbolean denetarik egin behar da", dio. Zapatuan 10-3 irabazi zuten partidua.



**Naiara, Leire eta Maider**
Santa Teresa

Naiara Canelok, Leire Caceresek eta Maider Gartziak gutxitan jokatzen dute areto futbolean. Hala ere, gustura ibili ziren. Denetarik gustatzen zaio hirukoteari: atezaina izatea, defenditzea eta baita aurrelari moduan jokatzea ere.



**Aritz Uribesalgo eta Iker Gomez**
San Viator 4B

Aritzek erdian jokatzen du baina, dioenez, "aurrean jokatzea ere gustatzen zait". Ikerri atezain eta aurrelari moduan jokatzea gustatzen zaio. Ingalaterrako futbolaren jarraitzaileak dira; onenak, eurentzat, Adebayor eta Lampard.



**Olatz Manuel**
> Irakaslea

Negu gogorraren ostean, luzaroan ezkutatuta egon den eguzkia ikusten hasiak gara. Goizean ohetik jaiki eta leihora gerturatzean zeru urdinak nori ez dio poztasuna eragiten?

Udaberriko eguraldiak, tenperatura igoerak eta eguna luzeagoa izateak beste kirol batzuk praktikatzeko aukera ematen digu. Era berean, garai hau askorentzat buruhauste garaia izaten da, kilo batzuk soberan dauzkagulako, Gabonetako gehiegikeriak oraindik kendu ez ditugulako, bigun ditugun atalak gogortu nahi ditugulako… *Operación bikini* delakoaren momentua gerturatzen ari da.

Beti entzun izan dugu soberan dauden kilo horiek kentzeko elikadura zaindu eta jarduera fisikoa egin behar dela, baina batzuetan zaila egiten da norberari egokitutako kirol jarduera bat aukeratzea. Gorputza sasoitsu izatearen kontua ez da bi astetan bakarrik lortzen, ezta hilabete bakar batean ere, ohitura berriak barneratzearekin etortzen da. Elikadura ohitura berriak bereganatu beharko ditugu eta astean 3-4 saiotako kirol jarduera egin. Argi eduki behar dugu dieta magikorik ez dagoela, azkar galtzen diren kiloak azkar berreskuratzen direla. Gainera, gure helburu nagusia gorputza osasuntsu mantentzea izan behar da; beraz, kontuz iragarkietan saldu nahi diguten argaltzeko metodoekin.

Jarraian, bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko jarraitu beharreko hainbat gomendio eta kirol jardueren aipamena egingo dizuet. Gainera, zuen osasun egoera zein den jakiteko bi test ere azaltzen dira. Kirola eta jarduera fisikoa urte osoan zehar egin dezakegun praktika izan arren, udaberriarekin aukera berriak zabaltzen zaizkigu, momentu bikaina delarik gure osasun ohiturak hobetzeko. Gaurkoan, instalazio estalietatik kanpo egin daitezkeen jarduerei emango diegu tartea. Ea zuen gustuko jarduera aurkitzen duzuen.



Udaberria sasoi egokia da kanpoko kirol jarduerak egiteko, txirrindularitza esaterako. ARIZMENDI

**KIROLA** > ARIKETA OSASUNGARRIAK

# Udaberria, aukera berriak

### JARDUERA BATZUK

**> Mendi irteerak:** Familia edo lagun giroan egiteko oso aproposak dira. Gogoratu garaiera ezberdineko mendiak dauzkagula eta gure mailaren arabera bat edo beste aukeratu dezakegula.

**> Ibilaldi lauak:** Mendia oso gogorra egiten zaienentzat aproposak. Debagoienean aparteko parajeak ditugu eta inongo maldarik ez duten ibilbideak aukera ditzakegu. Besteak beste, Urkuluko urtegia. Erritmoa norberak jartzen du, ibilbidea oinez edo korrika egin dezakegularik.

**> Bizikleta:** Garai aparta bizikleta hartu eta mendi buelta bat egiteko. Hasiberriendako ere badaude aldaparik gabeko ibilbideak (trenbide zaharra, adibidez). Errepidera ateratzen ausartzen denik ere badago; segurtasun neurriak hartzea eta zentzuz jokatzea nahitaezkoa da horrelakoetan.

**> Uretako jarduerak:** Itsasoa gustuko duzuenondako ere pixkanaka-pixkanaka badator uretan murgiltzeko garaia. Oraindik ura oso hotza egongo da, beraz, neoprenoarekin sartu behar da. Surfa, urpekaritza edo piraguismoa praktika oso interesgarriak dira. Inoiz egin ez duzuenondako, kostako herrialdeetan hastapeneko ikastaroak ematen dituzten taldeak badaude eta piraguismoaren kasuan, gure eskualdean bertan badaukagu kirol elkarte bat: Bergarako Beti-Busti.

**> Patinajea/Skate:** Gero eta jende gehiagok praktikatzen dituzten kirolak dira. Oso garrantzitsua da babesgarriak eramatea: kaskoa, ukondoko, belauneko eta eskumuturreko babesgarriak. Kirol horiek praktikatzeko zona espezifikoak ditugun arren (U izenekoak), zoru leunetan ere ederto irristatzen da, bidegorrietan, esate baterako.

**> Kiroldegi eta fitness zentroetako aukerak:** Kirol jarduera norbere kabuz egiteko borondaterik ez dutenendako edo jarduera antolatuak gustatzen zaienendako aproposak dira. Bertan aukera ugari izango ditugu; aerobica, batuka, tonifikazioa, spinninga, mantentze soinketa eta beste hainbat.

## Gomendioak

> Edozein jarduera fisiko egin aurretik, garrantzitsua da zure osasun egoera zein den jakitea. Komenigarria da azterketa medikua egitea. Zure egoera fisikoa ezagutzeaz gain, hobetu beharrekoak ere ezagutuko dituzu-eta.

> Jarduera fisikoa egiten hastea edo mantentzea kosta egiten zaion horietakoa bazara, saiatu kirola egiteko lagun bat aurkitzen. Horrela, lagun horri hutsik ez egitearen alferkeria alde batera utziko duzu.

> Guztion beharrak asetzeko adina kirol-praktika dauzkagu, aukera ezberdinak probatuz gero, zure beharrei egokitutako jarduera aurkituko duzu.

> Luzaroan kirolik egin gabe egon bazara poliki hasi, gorputzari jarduera berrira ohitzeko denbora eman.

> Bizimodu aktiboa mantendu, ahal izanez gero oinez edo bizikletaz egin eguneroko joan-etorriak, igogailua ahalik eta gutxien erabili…

### ZEIN DA ZURE OSASUN EGOERA?

**GORPUTZ MASAREN INDIZEA**

**GMI = Pisua (kg) / Altuera (m) 2**
Gorputz masaren indizeak pisua eta altueraren arteko erlazioan gorputz masa egokia dugun edo ez esango digu, nahiz eta gantz portzentajea ez duen kontuan hartzen. Adibidez, nire pisua 65 kilokoa bada eta nire altuera 1.69 metrokoa, horrela aterako dugu: GMI = 65 / (1.69 x 1.69) = 22.75 da.

**BAREMOAK**

| GMI | EMAITZA |
|---|---|
| < 15 | Muturreko argaltasuna |
| 16-19 | Pisu baxua |
| 19-25 | Tarte egokia/desiragarria. |
| 25-30 | Gehiegizko pisua |
| 30-35 | Gizentasuna |
| >35-40 | Gizentasun morbidoa |

**RUFFIER INDIZEA**

**RI = [(BM0 + BM1 + BM2)-200]/ 10**
Sistema kardiobaskularraren entrenamendu egoera eta horren errekuperazioa kalkulatzen duen indizea da. Horretarako ondorengoa egin beharko dugu:



> Proba egin aurretik, bihotz maiztasuna hartuko dugu (minutu baten zenbat bihotz taupada ditugun, bi atzamarrekin eskumutur edo lepo inguruan ukituta aurkitu ditzakegu taupadak). BMn.

> Hanken 30 flexio egin beharko ditugu, 45 segundo baino gutxiagotan.

> Proba amaitu ondoren berriz ere bihotz maiztasuna hartu. $BM_0$

> Minutu bat lasai egon ostean berriz ere bihotz maiztasuna hartu.$BM_1$

> Gauza bera bi minutu pasa ondoren. $BM_2$

| RUFFIER INDIZEA | ENTRENAMENDU KARDIOBASKULARRA |
|---|---|
| < 3 | Bikaina |
| 3 - 7 | Oso ona |
| 7-12 | Nahiko ona |
| 12-17 | Nahiko txarra |
| >17 | Txarra |

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> ANTERO APAOLAZA**
Bergaran eta Antzuolan botika izan zuen idazlearen biografia egin du Jerardo Elortzak > 31



**> THE WET BAND**
Danbakako talde irabazleak emanaldi bikaina egin zuen zapatuan Eskoriatzan > 32



**> UNE**
Aitor Uriartek gidatutako taldeak intentsitate handiko kontzertua egin zuen Oñatin > 32



Eszenaratze ikusgarri batean, iraultza aldarrikatu zuten antzezleek argazkiko unean eta ikusleek txalo zaparradekin, aulkitik altxatuta, erantzun zieten antzezleei. JOSETXO ARANTZABAL

# Notarekin gainditu dute erronka oraingoan ere 'Miserableek'

Gozatu ederra hartu zuten zapatuan Udal Pilotalekura hurbildu ziren 1.500etik gora ikuslek

'Miserableak' helduagoak dira orain, ondu egin dira denborarekin

**NON:** Bergarako Udal Pilotalekua.
**NORTZUK:** Bergarako Musika Eskola eta Orkestra Sinfonikoa.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 14.
**ZENBAT JENDE:** 1.500, bi saiotan.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi inguru.

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Hogei eta bost urte ez dira alperrik joan Bergarako Musika Eskolarendako. Ibilbide eta jardun oparoa izan du. Hori badakigu bergararrok. Musika Eskolaren hamargarren urteurrenerako estreinatu zen *Miserableak* musikalaren euskarazko bertsioak bigarren loraldia izan du hamabost urteren ostean eta emaitza izan da hura baino ikusgarriagoa; helduagoa, baina, aldi berean, hasiberrien grinarekin.

Erronka ausarta zen eta notarekin gainditu dute bigarrenean. Talentua eta lana eskutik doazenean emankorra da fruitua. Oinarria da ona: munduko musikalik eder eta arrakastatsuena, kontatzen duena hunkigarria delako eta melodia itsaskor bikainak dituelako. Bestetik, osagaiak ditu primerakoak: ikuskizunean parte hartu duten guztiek maite dute musika eta sakrifizioz gainditzen dituzte profesionalen dohainak.

Une hunkigarri asko ditu ikuskizunak: dramatikoak, solemneak eta komikoak ederki uztartzen ditu. Hori da arrakastaren beste gakoetako bat. Eta bergararrek ederki moldatu dituzte libretoa eta partitura —bertsoak moldatzen egin dute lan aparta—: "Zizareak irrits, barraskiloak zintz...", "Etxeko jauna, nazkagarria, sasi filosofo aspergarria...". Eszenografia distiratsu bezain doiarekin.

**HELDUAGO ETA NEURTUAGOA**

*Miserableak* helduagoak dira orain, ondu egin dira denborarekin, eta hori oso nabaria da: Karlos Etxaniz (Javert inspektorea), Maria Jesus Ugalde (Fantine), Argiñe Agirrezabal (Cosette), Mireia Osinaga (Eponine) eta Xabier Zabaleta (Jean Valjean) protagonistak dira erakusle nabarmenenak. Bordatu egin dituzte paperak. Orkestra ere nagusi egin zaigu. Hori bai altxorra! Sendo, Gonzalez Chirlaqueren batutapean. Umeak dira berriak, Miren Gutierrez, Miriam Moñux eta Biken Larrañaga protagonista direlarik, eta horiek erakusten dute xalotasun liluragarria: "Txikia naizelako denek adarra jo....". Heldutasuna, grina eta xalotasuna ederki uztartzen jakin izan du Valen Moñux nekaezinak.

**MUSIKAL ABERATSAGOA**

Musikalak irabazi egin du zati berriekin: Javert inspektoreak (Karlos Etxaniz) bere burua Sena ibaira botatzen duenekoa da adibide garbia. Sekula baino hobeto Etxaniz. Une komikoak dira bikainak. Esaterako, Therandier andre-gizonen tabernakoa, Valen Moñuxen eta, batez ere, Maria Angeles Larrañagaren interpretazio magistralekin; edo prostituten eta eskaleen artekoa. Une dramatikoak dira gehiago, halere: Fantijeren heriotza, barrikadako amaiera aldekoa...

Maria Jesus Ugalde, Mireia Osinaga eta Xabier Zabaleta (ematen du haren neurrira egindakoa dela musikala) hirukoak elkarrekin abesten dutenekoa da bikaina; baita David Azurtzak (Marius) —ileorde eta guzti orain—, eta Argiñe Agirrezabalen artekoa; Xabier Barriolarena: "Aizue barrikadakoak...". Asko dira ederrak.

Heldutasuna erakutsi du publikoak ere, honelako ikuskizunekin gozatzera ohituago, eta, hala, txaloak izan dira neurtuagoak, baina sakon eta egiazkoak era berean. Eta urteak joan izanak mesede egin dio ikuskizunari alde teknikotik: pilotalekua benetako auditorio bihurtuta, inoiz ez bezala apainduta eta sekula baino soinu hobearekin. Txalotzekoa, eszenatokia erdierdian jartzeko erabakia.

Hondarribian dute orain aukera ikusi ez dutenek, han eskainiko dute-eta maiatzaren 9an, berriro ere *Miserableak*.



*Miserableek* iraultza aldarrikatu zuten eszena. JOSETXO ARANTZABAL



Musikala amaitzean familia argazkia atera zuten eszenatokian parte hartu zuten 150 lagunek. ENEKO AZKARATE



Valen Moñux *Thenardier* jauna antzezten. JOSETXO ARANTZABAL



Gaztetxoek emanaldi borobila eskaini zuten. JOSETXO ARANTZABAL



Prostitutek barre algarak eragin zizkieten ikusleei. J.A.



Marije Ugaldek eta Xabier Zabaletak antzeztutako pasartea. J.A.

**MUSIKALA** > 'MISERABLEAK'

# Txalo zaparradak eta barre algarak izan ziren nagusi

Musikalak sentsazio ugari eragin zituen ikusleen artean. Une askotan, drama eta umorea tartekatuz, txaloak nagusitu ziren

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Ikusleen artean gehien errepikatzen zen esaldia hauxe: "Zoragarria, ikusgarria izan da". Guztiek txalotu zuten herritarrek egindako lana. Emanaldiaren amaieran ikusle guztiek, zutik, txalo artean hartu zituzten parte hartzaileak. Karlos Etxanizen eszena, Jevert inspektorearena, aurtengo berrikuntzetako bat zen. Eta ikusleei, eszena ikusgarriena iruditu zitzaien. Txalo ugari jaso zituen Karlos Etxanizek.

**GAZTETXOEN LAN BIKAINA**

Baina zalantza gabe gaztetxoek egindako lanak sortu zuen ikusleen mirespena eta barre algarak eragin. Umorez eta ironiaz, eszena paregabea antzeztu zuten. Marije Ugaldek azaldu zigun oso aberatsa eta ezker onekoa dela umeekin lan egitea eta azkar ikasten dutela.



Alfredo Gonzalezek gidatu zuen Bergarako Orkestra. J.A.

HERRITARREN IRITZIA

## Zer iruditu zaizu 'Miserableak' musikala ?



**M. Jesus Zabaleta**
Bergara

"Asko gustatu zait. Lan polita egin dute; orain dela 15 urte ere egon nintzen eta oraingoa hobea izan da. Ahotsak oso garbi entzuten ziren".



**Pedro Zafra**
Bergara

"Zoragarria izan da herriko jendeak egindako lana ikustea. Oraingoan, gainera, iloba izan da parte hartzaile gazteena zazpi urterekin".



**Josu Linazisoro**
Donostia

"Denak batera amaierako eszenan ikustea ikusgarria izan da. Asko gustatu zait elkarrekin abesten ikustea. Umeak oso ondo egin dute".



**Rosana Gutierrez**
Bergara

"Duela 15 urte ikusi nuen; oraingoa ere itzela izan da. Zati berria ere oso ondo egon da. Baina gehien nire ilobak egindako eszena gustatu zait".

AKTOREEN IRITZIA

## Eskainitako emanaldiekin gustura?



**Xabier Zabaleta**
*Jean Valjean*

"Urduritasun puntua izan dugu guztiok, baina gustura gaude egindako lanarekin. Jendearen harrera ere bikaina izan da eta asko gustatu zaie".



**David Azurza**
*Marius*

"Orain dela 15 urte baino esperientzia eta segurtasun handiagoa daukagu; teknikoki maila altua izan du emanaldiak eta azken emaitzan igarri da".



**Karlos Etxaniz**
*Javert inspektorea*

"Eszena berriko protagonistaren papera gustura egin dut. Aukera polita izan da bakarrik abesteko. Guztia primeran irten da eta pozik gaude".



**Marije Ugalde**
*Fantine*

"Elkarlana ezinbestekoa izan da emaitza ona lortzeko. Lan handia dago atzean, baina oso ondo pasatu dugu. Esperientzia ere igarri da".

**ARGITALPENAK** > LIBURUXKA

# Antero Apaolazaren gaineko biografia aurkeztuko du gaur Jerardo Elortzak

Apaolaza botikaria izan zen Bergaran eta Antzuolan, eta baita hiru bat hilabetez Bergarako alkate ere

Biografia 'Bidegileak' proiektuaren baitan aurkeztuko du Jerardo Elortzak gaur goizean Donostian



Orain arte ezagutzera eman bariko argazki honetan, Antero Daniel Apaolaza ageri da 1905 urte inguruan Oñatiko Etxaluze etxeko llorategian. APAOLAZA FAMILIA

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Jerardo Elortza irakasle eta historialari oñatiarrak Antero Daniel Apaolaza zenaren gaineko biografia aurkeztuko du gaur Jaurlaritzak Donostiako Andia kalean duen egoitzan, 10:30ean.

Elortzak idatzitako biografia Jaurlaritzak urtero kaleratzen duen *Bidegileak* proiektuaren baitan dago. Proiektu horretan euskarari bultzada ematen ahalegina egin duten pertsonak omentzen dituzte.

**BERGARAKO ALKATEA**

Antero Daniel Apaolaza Urretxun jaio zen 1845ean, baina 1869an, Madrilen Farmazia ikasketak egin ostean, Bergarako Bidekurutzeta kalean botika jarri zuen. Ordutik, 1908an Antzuolan hil zen arte, Debagoiena izan zuen bizileku. Are gehiago, haren seme Ignazio Apaolaza Oñatin mediku izan zen hainbat urtetan. Bitxikeri moduan, 1881eko uztailean Bergarako alkate izendatu zuten, baina Elortzak eta beste ikertzaileek jakin ezin izan dituzten arrazoiengatik, urte bereko irailean kargua utzi eta Antzuolara alde egin zuen. Han beste botika bat jarri eta idazteari ekin ziola uste du Elortzak.

**'PATXIKO TXERREN'**

Anterok idatzitako oso gauza gutxi agertu dira. Hain zuzen ere, Elortzak eta beste ikertzaile batzuek uste dute hil zenean senitartekoren batek haren idatziak erre zituela.

Hala ere, Antonio Truebak idatzitako liburuetako bat itzulita eta egokituta, Apaolazak *Patxiko Txerren* liburua kaleratu zuen 1890ean (Bergarako Lopez inprimategian egin zuten). Liburu hori, dagoeneko, beste bost alditan berrargitaratu dute.

Horrez gain, Apaolazaren seme Frantziskok 15 urte zituela Antonio Truebaren omenezko soneto batzuk argitara eman zituen; baina Elortzaren ustetan, aitak, hau da, Antero Apaolazak, ere egindakoak izango ziren poema horiek.

**ARGITARA EMAN BARIKO IRUDIAK**

Elortzak biografia egiteko hainbat artxibo aztertu ditu eta Apaolaza-Banister familiarekin ere hainbat alditan izan da. Horren ondorioz, Apaolazaren gaineko hainbat aurkikuntza egin ditu: besteak beste, Apaolazari *aurpegia jarri* dio; hau da, haren bi argazki aurkitu ditu: bata, 1880 ingurukoa; eta bestea, 1905 ingurukoa; orain arteko lehenak.

Horrez gain, jakin ahal izan du Urretxuko zein etxetan bizi izan zen, Bergaran botika non zeukan eta bestelakoak.

Elortzak nabarmendu du Apaolazak, liberala izan arren, euskararekiko erakutsi zuen jarrera; eta susmoa dauka sasoiko beste idazle edo euskaltzaleekin harremana izan zuela.

**KRONIKA** > BITTER HONEY

# Iraganeko dotoretasunera salto egin genuenekoa

**NON:** Arrasateko Jai Zale taberna.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 14.
**ZENBAT JENDE:** Taberna beteta.
**IRAUPENA:** Ordu bat.

**I.B.** > ARRASATE

Lehiaketek daukaten onena da sari nagusia eskuratu eta horri ahalik eta etekin handiena ateratzea; baina horrez gain, badituzte bestelako abantaila garrantzitsuak, oso kontuan hartzekoak: hain zuzen ere, taldea bera eta horren eskaintza jendaurrean ezagutzera emateko bide aproposa izatea.

Arrasateko Bitter Honey taldea Danbakaren hirugarren edizioan ezagutzeko aukera izan genuen, han estreinatu zen-eta. Taldearen lehenengo kontzertua izan arren, arrasto handia utzi zuen taldeak eta bat-batean zale asko batu zituen.

**(HARD)ROCK KLASIKOA**

Talde batek sariak jaso ala ez, ezinbestekoa dauka poliki-poliki entzuleak irabaztea; eta horretarako kontzertuak gogor borrokatu behar dira, ahal den guztia agertoki gainean emanez. Halaxe egiten dute arrasateko musikari horiek.

Urtebetetze ospakizun bat zela medio, Los Chicos Boom, Radio Wings, Black Sheeps eta Jukebox taldeetako kide ohiak agertokira igo ziren Bitter Honey.

Ziztu batean igarotako ordubetean taberna hankaz gora jarri zuten 70eko hamarkadako hardrock klasikoaren aztarna handiak dituen kantutegi batekin. Musikariak oso-oso finak, birtuosoak, eta abeslaria ere emozio, feeling eta indar puntu orekatuarekin. Garagea, hard-rocka eta maiuskulaz idatzitako rocka egiten dute. Opari moduan, Uriah Heep taldearen bertsio bat eta Motörhead taldearen *No class*.



Lau musikariak Jai Zaleko agertoki txikiaren gainean. IKER BARANDIARAN

**KRONIKA** > UNE ETA INLOGIC

# Zaleek hegan egitea lortu zuten

**NON:** Oñatiko Gaztelekuan.
**EGUNA:** Barikua, martxoak 13.
**ESTILOA:** Rocka eta metala.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.


UNE (Une Naren Eza) taldeak emanaldi borobila eskaini zien Oñatiko zaleei. JOSETXO ARANTZABAL.

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Inlogic taldeak rock doinu gogorrekin hasiera eman zion gauari. Berehala berotu zuten giroa eta taldearen gaineko gutxi izan arren, bertaratutako ikusleak poltsi- koan sartu zituzten lau madril- darrek. Aipatzekoa abeslariaren ahots indartsua. Tarteka oso goxoa, baina thrash oihu bortitzak egiteko gai dela ere erakutsi zuen. Eszenaratze bikaina eta emanaldia ikusgarria, salto eta guzti. Ingelesez abesten du laukoteak eta nazioarteko proiekzioa lortu dezaketela erakutsi zuten *Outside the show* azken lanarekin (2008).

Nabarmentzekoa baxu jotzailearen abilezia. Txundituta utzi zuen bat baino gehiago Muse talde handiaren bertsio batekin. Argi geratu zen bigarren ahotsa baino gehiago dela. Baina sorpresa eta opari gehiago izan ziren entzuleen belarriendako. Johnny Cash-en jarraitzaileak direla argi geratu zen eta bertsio originala eskaini zuten, Cashi omenaldia eginez. Country doinuek dantzan jarri zuten aretoa mendebaldeko filmetako oihu eta guzti. Une batez, Sam Peckinpah-en filmean barneratu gintuzten. Taldea oso ezaguna ez den arren, jendea abesten jartzea ere lortu zuten madrildarrek.

The Buggles talde britainiarraren *Video Killed the Radio Star* abesti ezagunarekin ikusle guztiak dantzan jarri zituen. Inlogic taldekoak gustura geratu ziren emanaldiarekin eta UNE taldeko Aitor Uriartek azaldu zigun bezala zeresana emango duen talde indartsua zela erakutsi utzi zuten zuzenekoan.

**METAL DOINUAK NAGUSI**

Zaleak urduri eta zain Oñatiko Aitor Uriarte musikariaren taldea entzuteko. *Hegalik gabe hegan* diskoko abestiak entzuteko prest. Erritmo aldaketak dira UNEren emanaldietan nagusi. Eta garbi geratu zen abesti berean melodia eta rock-metal gogorra bikain uztartzen dituela taldeak. Erritmo ezberdinak nahastuta oreka lortzen dute. "Ez zaigu estilo batean sailkatzea gustatzen, barrutik irteten dena egiten dugu. Abesti batzuk gorragoak eta suabeagoak, dira; azkarragoak edota lasaiagoak besteak. Denetik egiten dugu eta horrek ekartzen du gu gustura egotea eta kontzertuari intentsitatea ematea", azaldu zigun Uriartek kontzertu amaieran. Bi diskoetako abestiak izan ziren entzungai zaleen gozamenerako. "Kontzertua asko aberasten dute bi diskoetako abestiek. Ikusten dugu orain arte oso harrera ona izan duela bigarren diskoak. Hala ere, balorazioa egiteko testuingurua hartu behar da kontuan. Izan ere, kontzertu eta zuzenekoetan eragiten du. Egungo egoera kontuan hartuta, ordea, gure balorazioa oso positiboa da". *Hegalik gabe hegan* diskoan abestiak bortitzagoak dira. Hala, lehen diskoko abestiekin dinamismoa eta zuzeneko aberasgarria lortu zuen UNEk.

*Loti ederra* singelarekin zaleak aztoratu zituen UNEk. Tarte melodikoak eta Uriarteren ahots goxoak kontraste paregabea egiten du metal doinu gogorrekin. Aipatu beharra dago, kaleratu berri duten bideoklipa ikusgarria dela eta teknikoki maila altua daukala. Kike Foronda arrasatearrak lagundu die *Loti ederra* singelaren bideoklipa egiten.

**ESKUARTEKO PROIEKTUAK**

Hirugarren disko bat ez dutela baztertzen diote, baina une honetan bigarren diskoko biran daudela zentratuta eta helburua, kontzertuekin gozatzea dela aurreratu digu. Inlogic taldearekin Madrilen izango direla ere esan digu. "Jendeak ez zeukan erreferentziarik, baina berehala poltsikoratu dituzte gerturatutakoak".

**KRONIKA** > THE WET BAND ETA THE AUAMBAS

# Goxotasuna eta intentsitatea bat eginda

**NON:** Eskoriatzako Inkernun.
**EGUNA:** barikua eta zapatua.
**ESTILOA:** Rocka.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi bakoitzak.

**M.A.** > BERGARA

Inkernu taberna bete egin zen eta zaleen eta taldearen artean *feedbacka* izatea lortu zuen The Wet Band taldeak. Mutrikuarrek badakite publikoa nola poltsikoratu euren rock doinuekin eta barikuko emanaldian argi geratu zen. Abesti itsaskorrak eta Ainara abeslariaren ahots goxoak bat baino gehiago aho zabalik utzi zuten. Endika gitarra jotzaileak adierazi zigun taldea gustura geratu zela emandako zuzenekoarekin: "Giroa berotzea lortu genuen eta taberna bete egin zen. Bisak ere eskaini genituen eta amaieran jendeak beste bat eskatu zigun; benetan gustura sentitu ginen egindako lanarekin".

Taldea une honetan abestiak egiten dabil eta Eskoriatzan Danbaka lehiaketan abestu zituzten abestiez gain, kanta berriak entzuteko aukera ere izan zen. Taldeak zuzenekoetan bertsioak ere eskaintzen ditu eta zaleek gozatu ederra hartu zuten, besteak beste, AC/DC taldearen *You Shook Me All Night Long*, Led Zeppelin taldearen *You Shook Me*, The Cranberriesen *Zombie* edota James Brown handiaren *I Feel Good* abestiekin. Publikoak koroekin eta txaloekin lagundu zieten gainera. "Jendeak harrera bikaina egin zigun eta soinua ere oso ona izatea lortu zutela esan ziguten. Soinu teknikariak lan bikaina egin du".

Une honetan lokalean abesti berriak egiten eta ideiak berriak sortzen dabiltza. Gainera, kontzertuak eten gabe ematen dabiltza taldea. "Aste berean bi kontzertu jarraian eman ditugu. Bilboko Fnac-en jo genuen eta ondoren Eskoriatzan izan gara. Esperientzia oso polita izan dugu". Danbaka amaituta, jendeak taldearekiko dituen erreferentziak eta kritikak positiboak direla adierazi digu. Zuzeneko politak dituzte eta jendeak asko eskertzen duela nabarmendu du Endikak.

**THE AUAMBAS**

The Auambas taldearen dantza erritmoek bete egin zuten Inkernu zapatuan. Ikuskizun aparta eskaintzea eta publikoarekin jolastea gustuko dutela erakutsi zuten. Abeslaria *frontman* paregabea da eta badaki zelan erakarri ikuslea *show*-aren bitartez. Primeran batzen dituzte doinu rock-eroak eta dantza erritmoak.


The Wet Band-eko abeslariak txundituta utzi zuen publikoa. JOSETXO ARANTZABAL

# Baita zu ere.

**Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.**
Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero,
CIESek emandako datu berrien arabera.
Eskerrik asko, irakurle guztioi.

**> GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.**
**> Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.**




Goienkaria

# iragarkilaburrak.com

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
*http://www.goiena.net/sailkatuak*

Eguenera arte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metroko etxea, 20 metroko terrazarekin. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela handia, bi komun, sukaldea eta trastelekua. Garaje itxia. Jantzia. Bi urteko erabilera. Maria. 608 46 45 88

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38

**Beasain.** 55 $m^2$ko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. 194.000 €. 615 73 59 18.

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai. Sukaldea, sukalondo edo errekozina, egongela, 3 logela eta 2 bainugela oso. Lau argiko etxea, erabat berrituta. Interesatuek hots egin 630 15 99 54 telefonora.

**Mutriku.** 61 metro koadroko pisu berritua, altzariekin jantzita, gas naturalarekin, garaje aukerarekin. 32.000.000 pezeta negoziagarriak. Telefonoa: 626 83 33 33

**Oñati.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrietan. Terrazarekin. Eguzkitsua. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Ganbara eta garajea barne. 665 74 98 47

**Uharte Arakil.** Sukaldea, hiru gela, komuna, egongela eta 13 metro karratuko trastelekua dauzka. 100.000 eurotan. Interesatuek deitu 659 745 624 telefonora.

**Ziordia.** 3 gela, 2 komun. Berria. Lehen 176.000 euro, orain 146.000 euro. Interesatuek hots egin 622 760 355 telefonora..

### 103. ERRENTAN EMAN

**Alkiza.** Alkizan baserria alokairuan. Txukun-txukuna; bi gela, sukalde ederra, egongela eta komuna. Berritua. 3 solairu ditu; bi terraza, 30m2 eta 20m2 dituztenak. Terrenoa etxe aurrean, 5.000 m2. Zenbatekoa: 1.000€ Telefonoa: 619 34 93 85.

**Altsasu.** Jantzirik eta mustutzeko. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Interesatuek 637 209 662 telefonora deitu.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Larrea plazan. 70 metro koadro. Bi logela, bi komun, egongela handia eta sukaldea. 656 75 00 94

**Bergara.** Etxebizitza jantzia ematen da errentan. 943 76 46 15 edo 652 53 42 81

**Lasarte-Oria.** Lasarte-Oria zentroan pisua alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 67 45 52.

**Lizarraga.** Pisua alokatzen da Lizarragan. Interesatuek deitu 618 85 32 51 telefonora.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan hileka, Olakua auzoan. Ikasleentzat edo behar puntualak betetzeko. 660 40 06 75

**Vieux Boucau-N (le .** Landetan 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko Astean. Tel.: 943 37 05 34, gauez..

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxebizitza nahi dugu errentan. Bikote arduratsua. 615 73 79 11 edo 669 12 25 63

**Beasain, Ordizia.** Bi lagun gara non pisu bila gabiltzan Goierrin alokairuan bizitzeko. Nahiago genuke Beasainen balitz. Etxea alokatu nahi baduzu, idatzi email bat edo *saionajwa@gmail.com* edo deitu telefonoz 665 70 22 96. Saioa

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Deitu 669 12 70 98 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 91 33 40

**Bergara.** Familia batek errentan hartuko luke etxebizitza Bergaran, Antzuolan edo Oñatin. 645 72 92 87

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara.** Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. 669 64 76 28

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Debagoiena.** Bikote arduratsua baserri osoa edo baserri bateko logela alokatzeko gertu. 665 70 10 57

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. 658 70 19 53.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. 620 60 54 14

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 zenbakira.

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, egongela, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsua. 670 04 27 41

**Arrasate.** Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berogailuarekin eta ikasteko mahaiarekin. Toki lasaia.630 71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukalde eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. Deitu 666 75 73 21 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Oso egoera onean. Telebistarekin. 696 53 36 44

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Oso egoera onean dagoen etxebizitza da. 616 05 97 92

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, berogailua eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. 652 73 46 19

**Aulesti.** Neska euskaldun batek logela bat behar du Bilbon. Deitu 615 49 27 84 edo 639 87 02 90 zenbakietara.

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan Bergaran. Deitu 690 97 44 32 telefonora.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68

**Donostia.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Antiguan. Deitu 652 71 52 50 zenbakira.

**Donostialdea.** Hernani edo inguruan logela hartuko nuke errentan. Martxotik uztailera bitartean. 652 71 52 50.

**Lasarte-Oria.** Logela bat alokatzen da pisu partekatu batean. 627 55 69 32.

**Zumaia.** Gela baten bila nabil, Zarautz, Zumaia edo inguruetan. 29 urteko mutil langilea. Josu. 635 70 71 27.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Bergara.** Garajea salgai Zurradero 4an. 699 75 52 21.

**Etxarri-Aranatz.** Larrañeta elkartearen atzean dauden etxebizitzen azpian dagoen garaje marra bat saltzen da. 609 71 60 23. Xabier.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Garaje itxia ematen da errentan Portukalen. Deitu 943 78 23 91 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Lasarte-Oria zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 67 45 52.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Dendarako lokala emango nuke errentan erdigunean. Deitu 627 96 19 22 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Lasarte-Oria.** Pertsona bat behar dugu ume txiki bat zaintzeko Lasarte-Orian, astelehenetik ostegunera 17:30etik 19:30era. Harremanetarako zenbakia: 699 24 31 08.

**komertzialak**
Interneteko Zerbitzu Globaleko enpresak, **komertzialak** behar ditu Euskal Herrian lan egiteko.
**658-75 71 02**

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Altsasuko 50 urteko anderea astez nahiz asteburutan orduka lan egiteko prest dago (garbitasunean, sukaldean, zaintzan). Interesatuek hots egin 948 46 77 36 edo 651 47 27 21 telefonora.

**Altsasu.** Adineko pertsonak zaindu edo etxeko lanetan aritzeko prest. Informeak ditut. Interesatuek 687 38 75 50 telefonora deitu. Joane.

**Antzuola.** Arropak konpontzen ditut. 616 45 00 20

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Arrasate.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 618 00 08 28

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez lan egiteko. Garbiketa lanetan edo umeak edo adinekoak zaintzen. 618 34 09 35

**Bergara.** Pertsonanagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Paperak ditut. 686 99 59 41

**Bergara.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke 24 orduz. Era berean, etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia daukat. 606 05 07 93

**Bergara.** Bergarako mutil gaztea sukaldeko lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukaldea batu. Galdetu Manurengatik. 610 80 07 39

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55

**Bergara.** Bergarako emakume euskalduna lanerako gertu. Umeak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Goizez. 665 70 03 74

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, plantxatzeko eta bazkariak gertatzeko. 667 00 89 40

**Deba.** Emakume euskalduna hospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Zerbitzari lanetan esperientzia daukat. Deitu 667 94 07 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu 685 70 76 25 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. Deitu 647 87 28 31 telefonora.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 634 45 28 77

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 5 euro orduko. Deitu 669 53 02 92 edo 943 79 70 59 zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. Deitu 666 21 88 95 telefonora.

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko... Deitu 679 98 37 47 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Deitu 686 52 15 98 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. Adinekoaren etxean bizi izateko prest. Deitu 608 08 36 02 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 01 66 telefonoa.

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxerik etxe ile apaintzaile lanak egiten ditut. 650 59 93 91

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96

**Debagoiena.** Era guztietako jostun konponketak egiten ditut. 699 34 86 88

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Deiotu 667 20 56 29 telefonoa. Maria.

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala prest lan egiteko. Esperientzia dut. 617 73 09 02

**Debagoiena.** Bikote arduratsua gertu baserrietan, etxeetan, lokaletan edo elkarteetan garbiketa lanak egiteko. Autoa dugu. 665 70 10 57

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 628 93 79 39 telefonoa.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan jarduteko. Deitu 667 90 38 56 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. Deitu 628 40 58 27 telefonora.

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. 695 78 91 04 edo 695 78 41 14.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko. Deitu 699 63 12 02 zenbakira.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

ASTE SANTUA
KULTOUR
BIDAIAK
apirilak 8-13
**PARIS:** 279€ / **GALIZA:** 195€
**PARIS-HERBEHEREAK:** 309€
**BRETAINIA-NORMANDIA:** 319€/**TIROL:** 385€
**ALGARVE:** 229€ / **LISBOA:** 225€
**SEVILLA-GRANADA:** 389€
**SALOU 3*** mantenu osoan:
apirilak 9-13: 135€ / 13-19: 120€
**LANDAK:** apirilak 9-13: 200€
**ITALIA BUSEZ:** apirilak 4-12: 799€
**INDIA:** apirilak 5-18: 1.500€
943-29 70 25 • info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

**ALOKAIRUAN**
**GROS** Nafarroa hiribidea. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 1.100 €
**LASARTE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 690 €
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 775 €

**SALMENTAN**
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000 ANTIGUA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 41.950.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Estreinatzeko. 36.500.000
**AMARA** 70 $m^2$. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 42.500.000
**AMARA** Felipe IV.aren hiribidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 36.200.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000
**AMARA** Isabel II.aren hiribidea. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 46.500.000
**ALDE ZAHARRA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Berritua. 41.500.000
**GROS** Sagues. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 37.000.000
**GROS** Zabaleta. 80 $m^2$. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 72.500.000
**HIRIGUNEA** Azkenekoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**HIRIGUNEA** Arrasate kalea. Azkenekoa terrazarekin. Kalera begira. Igogailua. 56.950.000
**MARTUTENE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 43.500.000
**ALTZA** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Lorategia. Sartzeko moduan. 24.000.000
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kalera begira. Ikuspegi ederrak 31.300.000
**LEZO** Erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 34.950.000
**LEZO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Balkoia. Igogailua. 37.500.000
**LEZO** Bi bizitzako txaleta. 2 solairu. Lorategia. Berritua. 51.500.000
**PASAI SAN JUAN** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ikuspegi ederrak. 33.400.000
**PASAI SAN JUAN** 100 $m^2$. Duplexa. Terraza. Balkoia. Oso polita. 36.400.000

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientziahandia. 610 63 17 71

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 74 96

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin eta nagusiak egunez edo gauez zainduko nituzke. Esperientzia. Erreferentziaduna. Paperak ditut. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Edozein desbrozadora lan mota egiteko gertu. Euskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Deitu 678 24 94 24 zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ainhoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzaile edo garbiketa lanak egingo nituzke. 649 62 88 22

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko, lisatzeko eta josteko. 628 23 50 55

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 01 66 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. Deitu 680 30 24 64 telefonora.

**Debagoiena.** Zerbitzari lanak egingo nituzke asteburuetan. 617 73 09 02

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzeko prest nago. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutil gazte eta langilea gertu eraikuntza arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatatzaile aditua. 663 72 37 44

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 618 34 09 35

**Debagoiena.** Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 650 96 23 08 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan aditua eta esperientzadun neska lan bila dabil. Interesatuak idatzi helbide honetara a *nimilena1957@hotmail.com* edo deitu 943 79 04 69 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta gaztea goizetan eta aste bukaeratan lan egiteko gertu. 697 41 66 24

**Eibar.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientziarekin, nagusiak eta umeak zaintzeko eskaintzen da.

**Gernika .** Lehen hezkuntza, DBH edo DBHOko ikasleei, zientzietako klase partikularrak emateko prest dagoen neska euskalduna.

**Gipuzkoa.** Garbiketa, gizarte laguntzaile edota igeltsaritza lanak egingo nituzke. Legezko paperak dauzkat. Rolando Melgar. 672 25 92 18

**Goierri.** Umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Deitu 628 48 72 75 telefono zenbakira.

**Goierri.** 2 neska arduratsu adinekoak edo umeak zaintzen, eta garbiketa lanetan lan bila. Erreferentzia onak. Deitu: 690 70 63 39

**Lasarte Oria.** Pertsona adinduak eta gaixoak zainduko nituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 98 35 27 (Carlos)

**Lasarte Oria.** Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Telf: 639 60 12 22

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92

**Ordizia.** Ingeleseko irakasle titulazioan ikasketak egiten ari den neska euskalduna, goizetan eta arratsalde batzuetan lan egingo luke, umeak zaintzen, klaseak ematen edo edozein dendatan dendari moduan. Deitu 690 73 46 92 edo 943 88 62 63 telefonoetara.

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo 3 egunetarako. Esperientzia handia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgonetarekin aukeran. Informazio gehiago *lorazain@ozu.es* edo 679 60 04 44 telefonoan.

**Tolosa.** 49 urteko autonomoa naiz. Nik lokala jartzen dut eta zuk ideiak edo lana izanez gero harremanetanjarri mesedez.

**Tolosa.** 31urteko neska euskalduna. Tolosa inguruan lan egingo nuke dendaren batean. Astelehenetik ostiralera arratsaldez.

**Tolosaldea.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inolako konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04. Itxaso: 695 70 82 71

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 65 34 33.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Altsasu.** Irakaslea. Pertsona bat behar da DBH2 mailako neska bati klase partikularrak emateko. Interesatuek deitu 650 47 17 13 telefonora.

**Arrasate.** DBHko laugarren mailako matematika, fisika eta kimikako eskola partikularrak emango dituen norbait behar dut. 628 77 58 28

**Beasain.** Lehen hezkuntzako neskato bati laguntza eskolak emateko, ikasle edo litzentziatu bat beharko genuke. Deitu arratsaldez 18:00etatik 20:00etara, telefono honetara: 685 76 90 54

**Bergara.** Lehen hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 675 70 10 63

**Oñati.** Lehen hezkuntzako partikularrak ematen dituen norbait behar dut. Deitu 635 70 91 12 telefonora.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira Arrasate eta inguruetan. Taldeka edo banaka. Esperientziadun irakaslea. Maila guztiak. Deiotu 635 12 87 82 telefonora.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna astelehenetik ostegunetara eskola partikularrak emateko eskaintzen da. Deitu 636 12 05 79 telefonora.

**Arrasate.** Arrasateko neska bat LH eta DBHko ikasleei eskolak emateko prest. Deitu 628 51 20 64 zenbakira.

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest, Azpeitian. Informazio gehiagorako deitu 637 11 39 09 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeles irakasle ezaguna berriro ere eskolak ematen. Etxeko lanekin edo azterketak gainditzeko laguntza. Deitu 616 12 56 29 zenbakira.

**Debagoiena.** LMHko eskola partikularrak emango nituzke. Deitu 605 71 09 07 telefonoa.

**Hernani-Donostia .** LH eta DBHko ikasleei laguntza klaseak emango nizkieke (euskara, gaztelania, ingelesa, matematika...). EGA eta First-duna eta esperientziaduna. Kontakturako: *nalcorta001@ikasle. ehu.es*

**Lasarte-Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Deitu 646-71 76 76 telefonora.

**Oñati.** Ingeniaritzako eskola partikularrak emateko prest: matematika, fisika, kimika... 646 42 13 63

**Oñati.** Urte askoko esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. LH eta DBH. Ordutegi malgua, nahi dituzun orduak (aste osoan, astean ordu bat...) eta talde txikiekin. Deitu 943 78 28 43 zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALGAI

**Seat Ibiza salgai.** Motorra primeran duen autoa salgai. Deitu 656 77 20 26 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 300 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

**Basurdeak.** Orozkon. Deitu 678 72 75 72 zenbakira..

**Labrador txakurkumeak.** Pedigreea duten labrador txakurkumeak saltzen ditugu. Beltzak eta hare kolorekoak. Zoragarriak. Urtarrilaren 30ean jaioak. Oso prezio interesgarria. Deitu hona: 607 280483.

### 702. EROSI

**Aia.** Behitako zezen limousina erosiko nuke. 3-4 urtekoa. Harremanetan jartzeko deitu 658 73 08 08 telefonora.

**Basurdeak erosi.** Basurde ar handiak erosiko nituzke. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

### 703. EMAN

**Ardi txakurra.** Ezin atenditzeagatik. 678 61 50 40

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Landareak.** 5-6 urtekoak Thuja Alicata pinua eta Buxus (espela) arbustua. 667 91 55 90

**Agenda elektronikoa.** PDA, eskuko agenda elektronikoa salgai. Wifi, bluetooth, GPS... Hp Ipaq 114 Classic HandHeld. Berriberria, zozketa batean irabazia dago, kaxatik atera gabe. 230 euro. 615 72 47 43

**Altzariak .** zaharberritzea behar dute. Oso merke. 615 74 13 47

**Arropa lehorgailua .** Fagor etxekoa. Nahiko berria. 200 euro. 943 77 00 26

**Bidaia-kuma.** Parke moduan ere erabil daiteke. Koltxoia eta gordetzeko poltsa barne. Play etxekoa. 50 euro. Mari. 672 25 74 24

**Bizikleta beltza.** Oso polita. Mountain estilokoa. 120 euro. 679 74 00 61

**Brain training.** Joko berria salgai. 20 euro. 617 13 17 51

**Ume aulkia.** Chicco Synthesis etxeko autorako aulkia salgai. 0+ taldekoa. 13 kilo artekoa. 25 euro. 672 25 74 24

**Egongelako mahaia.** Altzairuzko gorputza eta kristalezko gaina du. Neurriak: 37 zm (altuera), 120 zm (luzera) eta 70 zm (zabalera). 635 72 58 14

**Eskiak eta botak.** Eski alpinoko eskiak eta botak salgai. Eskiak: Dinastar 1, 78 metro (60 euro) eta Head 1, 70 metro (60 euro). Botak: 43 zenbakia (60 euro). 617 61 58 01

**Eskiatzeko botak.** Salomon performa 6.99 eski alpinoko botak salgai. 38 zenbakia. Deitu 699 40 96 97 zenbakira.

**Etxetresna elektrikoak.** Urtebetez erabilitako hozkailua, garbigailua eta gasdun labea daukan pieza bateko sukaldea. Erositako erdi prezioan. Deitu 695 78 48 25 telefonora.

**Eskailera.** Haritzez eginiko eskailera salgai. Altuera 3m. Bi zati konpentsatuak. Telefono zenbakia: 658 70 65 39

**Hesiak egiteko landareak .** Thuyas, Leylandi, Nekosta... Euro batetik aurrera. 686 39 57 59

**Lowepro CompuDaypack.** Argazki kamera gordetzeko motxila. Edukiera: Reflex argazki kamera digitala, 2 edo 3 objektibo (tamainaren arabera), flash bat, 17 hazbeterainoko ordenagailu eramangarria, PDA, boligrafoak, kargadorea, baita iPodentzako poltsiko bat ere, gainera aurikularrak ateratzeko zulo bat du. Deitu 667 95 73 16 telefono zenbakira 20:00etatik aurrera.

**Jaunartzeko jantziak.** Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak saltzen ditut, oso prezio onean.60 eurotik aurrera. Tel.: 688 66 79 82.

**Jaunartzeko soinekoa.** Merke. 635 75 54 30

**Josteko makina industrialak.** Bata, Refley etxekoa, automatikoa. Bestea, Jack etxekoa, 757 modeloa. 677 04 26 73

**Kanpin denda.** Salewa markako iglu familiarra. Behin erabilita. 150 euro. 605 72 72 39

**Marinel jantzia.** 11 12 neurrikoa. Berri-berria. 90 euro. Narruzko oinetakoak barne. 679-74 00 61

**Motorrerako arropa.** Motorrerako arropa. Kaskoa: Arai etxekoa, S neurria. Eskularruak: Dainesse etxekoak, M neurria. Jaka: Dainesse, 46 neurria. Prakak: gore-texdunak, 52 neurria. Bizkarra babestekoa eta 39 neurriko botak ere Dainesse etxekoak. Oso egoera onean. 616 77 28 06

**Nintendo Ds Lite zuria.** M3 Rumble Ram Pack txipa jolasen kopiak erabiltzeko eta bibrazioarekin. 2 Gb Microsd. Funda eta guzti. Aukeratutako hamar jolas eta Opera internet nabigatzailearekin saltzen da. 220 euro. *radikalshop@gmail. com* 686 62 66 24

**Nintendo Ds Lite zuria, jokoen kopiak erabiltzeko txipa.** 2 Gbyte Microsd (30 joko sartzen dira). *Guitar hero* jolas orijinalarekin. Funda, aurikularrak, garantia... Nahi dituzun jokoak eta interneteko wi-fia. 199 euro. *konpuprest@gmail.com* 693 34 58 69

**Haurrentzako aulkia.** Olmitos Tri Acction haur aulkia saltzen da euritako plastiko eta guzti, oso egoera onean eta gutxi erabilia. 120 €

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 Mb Ram. Word, Excel, Access, Microsoft Publisher programak. Teklatua, sagua, cd irakurgailua, inprimagailua eta bozgorailuak. 150 euro. Deitu 666 24 86 40 telefonora.

**Ordenagailuko jokoak.** Jatorrizkoak eta dibertigarriak. Bakoitzak 15 euro eta denak hartuz gero 40 euro. 943 53 27 60

**PSPrako jokoak.** Bi joko. Oso interesgarriak. Bakoitzak 15 euro eta biak erosita 22 euro. 679 74 00 61

**Scalextric C4.** Oso gutxi erabilia. Prezio onean. Deitu 669 00 89 61 edo 686 81 03 23 telefono zenbakietara.

**Umeendako karroa.** Silver-cross etxeko. Urdina. Oso egoera onean. 300 euro. Deitu 615 74 13 47 zenbakira.

**Trabesiako eskiak.** 1, 85 m. Silvretta 405 fijazioak. Foka larruak eta kutxillak. 200 euro. Deitu 658 75 84 58 zenbakira.

**Trialeko bizikleta.** Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro. Deitu 943 79 54 21 telefono zenbakira.

**Trona.** Mahairako aulkia. Jane etxekoa. Ipini eta kentzeko erraza. 15 euro. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. Deitu konpromisorik gabe 618 62 83 11 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat: *garitxu70@hotmail.com*

**Umeendako aulkia.** Kapazo eta kapotarekin. Bebecar etxekoa. 2001ekoa. 100 euro. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Umeendako kuma.** Ohe bikoitza eta umeak eramateko motxila salgai. Deitu 688 80 13 38 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate** inguruan lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero deitu 696 32 63 13 zenbakira.

**Erremolkea erosiko nuke.** Neurria: bi metrotik aurrera. Deitu 651 70 79 96 telefonora.

**Eskiak eta botak.** Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. Deitu 608 77 38 59 zenbakira.

**Klarinetea erosiko nuke.** Klarinetea. Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. Deitu 655 74 89 19 zenbakira.

**Lursaila erosiko nuke Bakaikun edo Iturmendin.** Abeltzaintzan edo nekazaritzan aritzeko lursaila erosiko nuke Bakaikun edo Iturmendin. Deitu 639 28 47 91 telefono zenbakira.

**Nintendo DSrako kargadorea** erosiko genuke. Deitu 605 72 72 39 zenbakira.

**Oñati.** Lursaila erosiko nuke. Deitu 656 79 88 12 zenbakira.

**Ipar eski ekipo baten bila nabil.** Haur batentzat, bigarren eskuko fondoko eskiak (ekipo osoa) erosi nahi ditut. 30 neurrikoak.

### 803. EMAN

**Simaurra.** Untxi-simaurra ematen dut opari. Nahi duenak dei dezala 608 40 42 61 telefonora zenbakira.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak** galdu nituen Beroa okindegian. Armani etxekoak. Funda gorriarekin. 943 79 16 24

**Eskuko ordenagailua.** Eskuko ordenagailua utzi nuen San Andresko autobus geltokian, martxoaren 4an. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Deitu 680 96 69 40 telefonora.

**Eskularru gorriak Altsasun.** Artilezko eta oihalezko eskularru gorriak galdu dira Altsasun. Topatu dituenak hots egin dezala 948 46 84 62 telefonora.

**Eskumuturrekoa** galdu nuen Arrasaten. Urrezkoa da eta urtarrilean galdu nuen. Deitu 652 70 23 50 zenbakira.

**Graduatutako betaurrekoak.** Otsailaren 26an, herri erdian galdu nituen. 685 70 85 87

**iPhone bat Lakuntzan.** I-Phone bat galdu zen Lakuntzako inauterietan. Norbaitek aurkitu edo ikusi badu, mesedez deitu dezala 650 514 434 edo 649 527 484 telefonoetara.

**Kamara digitala.** Tolosako karnabaletan Olympus markakako kamara digital arrosa galdu nuen. Inork aurkitu badu deitu mesedez 600 74 58 46 zenbakira. Kamara ez bada ere, memoria txartela bueltatzea asko eskertuko nuke. Tabernaren batean edo udaltzanetan uztea nahikoa, baina abisua pasatzeko deitu mesedez. Eskerrik asko!

**Kamara digitala .** Kamara digitala galdu dut Tolosako osasun etxearen inguruan: kamara Olympus grisa da, eta zorroa, berriz, beltza. Aurkitzen baduzu, deitu 660 08 73 19 telefono zenbakira mesedez! Mila esker!

**Zorroa** Oñatiko Plaza aldameneko aparkalekuan zorro bat galdu nuen otsailaren 6an, ilunkaran. Barruan, eskiatzeko kaskoa, betaurrekoak eta ipurdia babestekoa zeuden. Aurkitu duenak dei diezadala. Deitu 649 96 92 96 telefonora.

**USBa** galdu nuen otsailaren 10ean, Oñatin. Grisa da eta Lg etxekoa. Mesedez, norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara: 670 52 58 74

**Zilarrezko apaingarria.** Etxarri Aranatzen zilarrezko apaingarri bat galdu da, bere kate eta guzti, medailoi erakoa. Aurkituz gero mesedez deitu 665 72 25 58 telefonora..

### 807. AURKITU

**Nintendo .** Ilargi plazan nintendo bat aurkitu zuten ume batzuek urtarrilaren 9an. 943 79 99 18

**Argazki kamara digitala.** Zarugalde kalean aurkitu dut. 639 88 85 63

**Giltza.** Fiat auto baten mandoa edo giltza topatu da Etxarri Aranatzen. Jabea pasatu dadila Beleixe irratitik.

**Mexikar txanoa.** Mexikar txanoa aurkitu nuen Oñatiko plaza inguruan inauterietako asteartean. Txanoan izena idatzia dago. Deitu telefono zenbaki honetara: 658 75 64 65

**Txano buff-a.** Aloña inguruan txano-buff grisa aurkitu dut. 670-61 77 27

**Txanoa aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean .** Txanoa aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean asteburuan. 943 71 46 50

**Zilarrezko erlojua.** Otsailaren bukaeran Gabiria dorrearen inguruan zilarrezko erlojua aurkitu nuen. 943 76 26 82.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz** joan etorria. Egunero Arrasatetik Gazteizera joaten gara. 8:00etarako etortzen gara eta 17:00etan irten. Interesatuz gero deitu 635 20 33 14 telefonora. Automobila banatzeko zerbitzua: *http://www.compartir.org*

**Donostia alde zaharreko joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail .com*

**Neska euskalduna ezagutzeko irrika.** 41 urteko irundar batek neska euskaldun (33 39 urte bitarekoa) bat ezagutuko nuke, erakargarria ahal dela, modelo bat ez, ni ez naiz eta. Ni kirolzalea eta bertsozalea naiz, baita parrandazalea ere, hori bai, neurrian. Ez lotsatu gehiegi, ez du merezi eta. Ausartu zaitez nirekin sikiera kafe bat hartzera, ez dugu ezer galtzeko eta.

**Oñatitik Legazpira joan behar dut egunero.** Astelehenetik ostiralera. Autoa partekatuko lukeen norbaiten bila nabil. Deitu telefono zenbaki honetara: 619 38 62 56

**Sasi-musika** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. *sasi-musika.blogspot. com.*

**Musika talde bat osatu nahiko nuke.** Musika talde bat osatu nahiko nuke: bateria bat, gitarra elektrikoa eta baxua. Interesatuok deitu: 688 63 68 31 telefono zenbakira. Johana

Bidaia Agentzia bidaide sercom
Hasi Aste Santua prestatzen,
Ibizara 334 eurotik hasita
Pragara 689 eurotik
Alpeetara eskiatzera 249 eurotatik, forfait-arekin
Erniobea kalea 6 behea • 20150 Villabona
Tel.: 943-69 26 93 - Faxa.: 943-69 25 10
e-posta: bidaide@gruposercom.com
www.gruposercom.com
zuretzako moduko eskaintzak dauzkagu.

Jarduna
administrazio zerbitzuak
KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK
bai euskarari
Euskara denon kontua da kontuak ere euskaraz
Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:
Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net
www.jarduna.net

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | | | 1 | | 8 | |
| 5 | | | 2 | | | | 7 | |
| 1 | | | 3 | | | | | |
| | | 9 | | 8 | | 2 | | |
| | | 3 | | | | 6 | | |
| | | 6 | | 1 | | 4 | | |
| | | | | | 4 | | | 5 |
| | 2 | | | | 7 | | | 3 |
| | 8 | | 6 | | | | 9 | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- * Irudiko harribitxia
- Erromatarren Irun
- Putzua
- Espezialista
- Pl., iskilu mota
- Begirada
- Nafarroako udalerria
- Gurari, irrika
- Molde
- Galtzada
- Pl., anega laurdena
- Arraunaren euskarri
- Bokala
- Intsektu mota
- Makina mota
- Militatzen du
- Ogi, hitz elkartzeetan
- Nauka
- Xabier..., olerkaria
- Ahalketuak
- Gipuzkoako herria
- Kontsonantea

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Non dago eraikita hotela?



## hizki salda

5 hilabete

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | E | X | U | Z | E | O | I | A |
| Z | B | L | O | B | N | T | M | P |
| T | S | B | K | O | T | S | A | I |
| U | Z | T | A | I | L | A | E | R |
| N | T | E | A | R | P | I | O | I |
| U | R | R | I | A | K | L | M | L |
| N | S | E | R | I | O | A | L | A |
| B | N | E | U | L | O | M | N | E |
| N | M | E | Z | A | T | U | K | L |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | E | X | U | Z | E | O | I | A |
| Z | B | L | O | B | N | T | M | P |
| T | S | B | K | O | T | S | A | I |
| U | Z | T | A | I | L | A | E | R |
| N | T | E | A | R | P | I | O | I |
| U | R | R | I | A | K | L | M | L |
| N | S | E | R | I | O | A | L | A |
| B | N | E | U | L | O | M | N | E |
| N | M | E | Z | A | T | U | K | L |

**Hieroglifoa:** Urkiola.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | E | X | U | Z | E | O | I | A |
| Z | B | L | O | B | N | T | M | P |
| T | S | B | K | O | T | S | A | I |
| U | Z | T | A | I | L | A | E | R |
| N | T | E | A | R | P | I | O | I |
| U | R | R | I | A | K | L | M | L |
| N | S | E | R | I | O | A | L | A |
| B | N | E | U | L | O | M | N | E |
| N | M | E | Z | A | T | U | K | L |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | D | ■ | O | ■ | M |
| | | | O | I | A | S | S | O |
| | | | ■ | A | D | I | O | S |
| ■ | E | ■ | I | M | I | N | A | K |
| E | S | T | R | A | T | A | ■ | E |
| ■ | T | O | R | N | U | ■ | O | T |
| M | I | L | I | T | A | N | T | E |
| ■ | L | E | T | E | ■ | A | I | A |
| L | O | T | S | A | T | U | A | K |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Ekintza-askatasuna eta komunikazioan segurtasuna izango duzu. Ez geratu gora begira eta prestatu hurrengo pausoa. Erronka berriak hartzeko momentua.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Eutsi azkenengo igoerari, ekiteko oinarri berriak bilatuz. Besteen menpean ipiniko zara. Hartu denbora bat zure premiazkoak diren gauzak antolatzeko.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Gaindi itzazu proba guztiak, eta egon prest erronka berriak onartzeko. Eraginkortasuna bilatu. Finantza-gaiek ustekabean harrapatuko zaituzte.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Lasaitzeko eta hobetzeko izango dituzun aukera berriak aprobetxatu. Ez zaitez geldi-tu jarrera zaharkitu eta ohikoetan. Aldaketa komeni zaizu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Menpekotasuneko eta zerbitzuko lanak egin beharko dituzu. Erakutsi zure gaitasunak eta lagun hurkoa hobeto sentiaraz ezazu. Lana oso garrantzitsua dela badakizu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Hartutako arriskuko erabaki batzuetaz damutzeko zorian zaude. Badakizu damu zaitezkeela, baina badakizu baita benetan behar duzunarengatik ihes egiten ere.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Zure ekimenak eta interesak gutxituta geratuko dira, ingurukoen interesak eta helburuak direla-eta. Ez etsi eta jarraitu zure proiektuak gauzatzen.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Aste honetan etxeko lanek buruhausteak ekarriko dizkizute. Barne-barneraino hunkiturik, erraza izango zaizu emaitzak lortzea, baldin eta zure buruari entzuten badiozu.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Egun hauetan lantokian ohi baino erantzukizun handiagoa eskatuko dizute, eta zure buruari galdetuko diozu: horretarako prest ote nago?

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Inguruko lagunen animuak baretu beharko dituzu. Zure lagunen artean gauzak objektibotasunez ikusten dituen bakarra zu zeu zara.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Saiatu gauzak kontsultatu aurretik ez egiten, bestela damutu egingo zara. Neurtu berbak, eta ez zaitez neurriz kanpokoa izan gauzak esaterakoan.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Modu praktiko eta zehatzean ekitera beharko zaituzten alderdi batzuk garatuko dituzu, eta konturatuko zara horrela ekitea ez zaizula zaila egiten.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Liburuak argitaratzeko beka.** Informazio eta Administrazio Elektronikoaren Gizarterako Europako Fundazioak 35 urte beherako gazteek liburuak argitaratu ahal izateko beka antolatu du. Epea: 2009ko iraila arte.

**LANA**

**> Orioko Udala.** Udarako lanpostuak. 5 zaindari kanpinerako, kabinen garbitzaile bat, 4 kanpineko komunen garbitzaile eta bost udaltzain laguntzaile. Epea: Martxoaren 9etik 31ra.

**> Begiraleak eta sukaldariak.** Txatxilipurdi Elkarteak uztailean lana egiteko begiraleak eta sukaldariak behar ditu. Kontutan hartuko dira: esperientzia, ikasketak eta aisialdiko begirale edo zuzendari tituluak. Epea: Maiatzak 8.

**> Begiraleak.** Ekin Bi Elkarteak aisaldiko zuzendari eta begiraleak behar ditu Errenterian udalekuetan lan egiteko.

**> Begiraleak.** Ikastolen elkarteak euskarako eta ingeleseko udalekuetarako begiraleak behar ditu. Epea: Apirilaren 5a.

**EKINTZAK**

**> Euskadiko Gazteak Lankidetzan.** Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan garapen-ekintzetan parte hartzeko programa. Epea martxoaren 14an irekiko da eta 20 egunetan zehar egin ahal izango da eskaera.

**> 'Gaztemaniak'-en kontzertua Gasteszenan.** Spectrum + The Legendary Tiger Man + Gora Japon kontzertuan. Donostiako Gasteszenan martxoaren, 26an 20:30ean.

**LEHIAKETAK**

**> Graffiti.** Zarauzko Udalak 14 urtetik gorako gazteentzat graffiti lehiaketa antolatu du. Epea: Martxoaren 27a.

**> Diseinua.** Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurrena ospatzeko logotipo lehiaketa. Lanak edozein motatako euskarritan aurkeztu daitezke. Epea: Apirilak 30a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 16



**> Al Andalus elkartea 'Goiena Magazinea'-n 19:45**

Txomin Madinak Arrasateko Al Andalus elkartera hurbilduko gaitu, eta elkarteko jarduna ezagutuko dugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Erlo klip.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ikasberri krossa
15:45 Erreportajea.
16:15 28 klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Wazemank.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Golb tb.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Harmailatik.
23:00 Erreportajea.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

### Martitzena, 17



**> Etxeko ospitalizazio zerbitzua 19:45**

Debagoieneko Ospitaleko Etxeko Ospitalizazio Zerbitzua erakutsiko digu Arritxu Barrusok Arantzazu Ugarterekin.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ikusten: Birbira.
14:15 Eltze beroa: Risotoa.
14:45 Berriak.
15:10 Harmailatik.
15:50 Solaskide.
16:20 Erloklip.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Wazemank.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean: Aitzol Zubizarreta.
23:00 Wazemank.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

### Eguaztena, 18



**> Blanca Roncal legebiltzarkidea 'Magazinea'-n 19:45**

PSE-EEko legebiltzarkide Blanca Roncal izango da datorren eguaztenean *Goiena Magazinea*-n. Egunero bezala, 19:45ean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ikusmira.
14:15 Gure saltsan.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Zaharrak berri.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
22:45 Mugaz kanpo.
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Emisio amaiera.

### Eguena, 19




**> Lendakaris Muertos taldea 'Musikantoi'-n 20:45**

Iruñako Lendakaris Muertos taldea izango da datorren eguenean *Musikantoi* saioko protagonista. Hori, 20:45ean.

08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Golb tb.
12:00 Euskal herria lau haizetara.
12:30 Ikusmira.
13:00 Eltze beroa.
14:30 Trikitraka trikitron.
15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Erreportajea.
18:30 Solaskide.
19:00 Erreportajea.
19:30 Berbaire.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 Ilunpean.
22:15 Musikantoi.
22:45 Erreportajea.
23:30 Wazemank.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 20



**> Debagoieneko albisteak Goiatz Aranarekin 14:45**

Debagoieneko albisteen berri izango duzue egunero Goiena Telebistan, Goiatz Aranaren eskutik. 14:45ean izango da.

08:00 Trikitraka trikiton.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Erloklip
12:30 Ikuskizuna.
13:00 Erreportajea.
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
15:15 Gure saltsan.
15:45 Marrazki bizidunak.
18:15 Trikitraka trikiton.
19:15 Erreportajea.
19:45 Solaskide.
20:15 Wazemank.
21:15 Euskal Herria lau haizetara.
21:45 Berbaire.
22:45 Golb tb.
23:15 Ilunpean.
00:00 Itsasora begira.
00:30 Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> 3.60 aretoko asteburuko kontzertuak ikusteko eta masajea hartzeko aukera Arrasate Irratiarekin 10:30**

Egubakoitzean hainbat opari zozketatuko ditugu. Besteak beste, egubakoitzean OST, Rotten Teenagers eta Kudai taldeek egingo duten kontzerturako sarrerak; eta baita zapatuan izango dena ere. Ez ahaztu, gainera, masaje bonoak ere badituguIa.

**Zapatua**
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > CUATROK EROSI DU 'PERDIDOS' TELESAILA

# TVE-tik Cuatro telebista katera pasatuko da 'Perdidos' telesaila

'Perdidos' telesaila eskaintzen hasiko da Cuatro telebista katea, telesailaren denboraldi guztien eskubideak erosi ostean

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Cuatrok eskuratu du *Perdidos* telesaila eskaini ahal izateko eskubidea, telesailaren denboraldi guztiak erosi eta gero. Orain arte TVEk eskaini ditu lehen hiru denboraldiak eta hemendik aurrerako guztiak, beraz, Cuatro telebista kateak eskainiko ditu. TVEk, lehenengo katean eskaini zuen lehen denboraldia eta gainontzekoak La 2 kateak eskaini zituen. Gazteei zuzendutako telesail horrek, baina, ez zuen arrakastarik izan TVEk katez aldatzeko apustua egin zuenean.

Cuatroko edukien zuzendari Elena Sanchezek eman du aditzera, *Perdidos* telesaila indartu eta ikusleak gehitzeko bideak badituela kateak; adierazi du, telesaila indartu egingo dela Cuatro eskaintzen hastearekin batera.

**'PERDIDOS' BIZIRAUPEN ISTORIOA**

815 Oceanic Air hegazkina Pazifikoko irla misteriotsu batetan erori eta bizirik geratutakoei gertatzen zaizkien istorioak dira telesailaren funtsa. Irlak sekretu mordoa ditu eta horiek aurkitzen joango dira pixkanaka protagonistak.

> TELEBISTA

### Georgiak Eurovision 2009rako aurkeztu duen abestiak ezin izango du lehiaketan parte hartu

Georgiak Eurovision 2009ra eroatea erabaki duen abestiak ezin izango du lehiaketan parte hartu antolakuntzak hala erabakita. Abestiak *We don't wanna put in* izenekoak, antolakuntzaren arabera, ez ditu lehiaketara aurkeztu ahal izateko baldintzak betetzen eta beraz, martxoaren 16ra arteko epea eman dio Georgiari, abestia moldatzeko.

Antolakuntzak argudiatu du, Stephane eta 3G-ren abestiak, Errusiako lehen ministro Vladimir Putin iraintzen duela eta hori dela lehiaketan ez aurkezteko arrazoia. Errusiako komunikabideen arabera, abestiaren letrak *ez dugu Putin gura* bezalako esaldiak erabiltzen ditu.

> TELEBISTA

### Ivvone Orsini, Miss Mundo 2008 da 'Supervivientes' saioko partaideetako bat

Datozen asteetan emango diote hasiera Tele 5 katean *Supervivientes* saio arrakastatsuari. Oraindik ez duten lehiaketan parte hartuko duten pertsonaia ospetsuen zerrenda jakitera eman, baina hasi dira izen batzuk agertzen. Besteak beste, 2008ko Miss Mundo lehiaketako irabazlea izango da lehiaketako parte hartzaileetako bat. Puerto Ricoko Ivonne Orsini Espainian da dagoeneko, lehiaketa hasi aurreko mediku probak egiten. Aipatu diren beste bi ospetsu dira Alvaro Muñoz Escassi eta Daniela Blume. Saioa aurkezten Jesus Vazquez hasiko da, baina ez da bukatu artean egongo, *Operación Triunfo* hasiko delako laster eta hura aurkeztera pasatuko delako.

## zorion agurrak


ARRASATE
**Nerea Otaduy**
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak Nerea, ondo pasatu zure urtebetetzean.


OÑATI
**Oihana Elortza**
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.


ARRASATE
**Amaia Iriarte**
Martxoaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, *Takolo*! Kriston tirakadatzarra eta patxo handi-handi bat! Eguna earto pasatu! Kuadrilakuen partetik!


ARETXABALETA
**Andoitz Iztueta**
Martxoaren 10ean. Zorionak eta urte askotarako, *Gaiztotxo*! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo handi bana. Araitz eta Doltza. Ostiralera arte!


ARETXABALETA
**Igor Kortajarena**
Martxoaren 11n, 33 urte bete zituen. Zorionak, umetxo! Elektrako lankideen partetik. Ondo pasatu eta gutxi gastatu.


ARRASATE
**Itziar Ugarte**
Martxoaren 11n. urtebetetzea. *Zoriyonak Rubi*! Besarkada, tirakada eta patxo galant-galanta! Ondo-ondo pasatu zure egunien! Kuadrilakuen partetik!


OÑATI
**Amaia Txintxurreta**
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik. Segi kantuan eta halako sasoiakin!


ARRASATE
**Fernando Ozaeta Fernandez**
Martxoaren 12an, 35 urte bete zituen. Zorionak familiakoen partetik!


BERGARA
**Fernando Fernandez Alvarez**
Martxoaren 12an, 91 urte bete zituen. Zorionak familia guztiaren partetik!


OÑATI
**Marta Leturia**
Martxoaren 13an. Zorionak Mar. Argazkiko gau ahaztezin hori ea noiz errepikatzen dugun!! Baina oraingoan ezer apurtu eta urgentzietara joan gabe, eh...


ARRASATE
**Xabier Urtzelai**
Martxoaren 13an urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik. Tortilen zain gaude oraindik!


ARRASATE
**Aitor Mondragon Azkarraga**
Martxoaren 13an, 41 urte. Berandu baina seguru...Zorionak eta patxo asko, etxekuen partetik. Eskoriatzatik ere zorionak!


BERGARA
**Jasone Zabala**
Martxoaren 14an urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik. Utzi bufanda autoan, eguraldi ona dator-eta!


ARRASATE
**Jon Berezibar**
Martxoaren 14an urtebetetzea. Zorionak jontxuu! ondo pasau ta gutxi gastau. Gora benetako odola! Zure banpiresak!


BERGARA
**Iker Ugarte Gabilondo**
Martxoaren 14an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu familixaren partetik.


ARRASATE
**Eritz Iparragirre**
Martxoaren 14an, 9 urte. Zorionak Eritz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo pila Jokin, Ainhitz, Jurgi eta familiako guztien partetik!


OÑATI
**Juan Joxe Barrena**
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Unai, Jou eta Edurne.


ARETXABALETA
**Urko Egia Barandiaran**
Martxoaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.


BERGARA
**Raimunda Askasibar**
Martxoaren 15ean, 97 urte bete zituen. Zorionak familiakoen partetik.


BERGARA
**Begoña Barrutia**
Martxoaren 16an, urtebetetzea. Etxekoen partetik zorionak!


ARRASATE
**Lide Ezpeleta Sanpedro**
Martxoaren 16an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, sorgintxo! Zure lau urteak ospatzeko hori baino lau aldiz handiagoa den izozkia jan beharko dugu!


ARETXABALETA
**Iker Seijo Fernandez**
Martxoaren 16an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.


ARETXABALETA
**Iratxe Bengoa**
Martxoaren 17an, urtebetzea. Urteak betetzeak guapatu egiten zau. Arratsaldeetan zure falta igartzen duten lankideen partetik.


ANTZUOLA
**Jone Garitano**
Martxoaren 17an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat aita eta amaren partetik.


ARRASATE
**Maria Cristina Duque Paunero**
Martxoaren 17an, 47 urte betetzen ditu. Zorionak senar eta seme-alaben partetik!


BERGARA
**Danel Gantxegi**
Martxoaren 17an, 7 urte betetzen ditu. Danel, zorionak etxekoen partetik. Ondo pasatu eguna.


BERGARA
**Unai Irizar eta Maria Antonia Pacheco**
Unaik, martxoaren 18an, 7 urte. Maria Antoniak, martxoaren 20an, urtebetetzea. Zorionak familiakoen partetik.


OÑATI
**Irati Galparsoro**
Martxoaren 18an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak, maittia. Ondo pasatu zure urtebetetzean aitatxo, amatxo eta Ekainen partetik. Patxo handi bat.


BERGARA
**Maitane Gomez**
Martxoaren 20an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, etxekoen partetik!


ARRASATE
**Eider, Iker Eta Alaitz Arkauz**
Martxoaren 19an, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.


OÑATI
**Irene Gartzia**
Martxoaren 21ean, 11 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola eta urte askotarako. Besarkada eta patxo handi bat etxekoen partetik.


OÑATI
**Ane Txapartegi Altuna**
Martxoaren 22an, 17 urte betetzen ditu. Zorionak, *prexioxa*! Egun berezi hau ondo-ondo pasatu, merezi duzu-eta! Patxo handi bat maite zaitugun denon partetik.


ARETXABALETA
**Iker Perez Gaztañaga**
Martxoaren 22an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak, txapeldun! Xabier, amatxo eta aitatxoren partetik hamaika muxu zazpigarren urtebetetzean. Ondo pasatu!


ARRASATE
**Amets Arexolaleiba Erretolatza**
Martxoaren 22an, 5 urte. Zorionak, Amets, ondo pasatu egune! Patxo bat etxekuen partetik.


BERGARA
**Gaizka Gantxegi**
Martxoaren 22an, 8 urte betetzen ditu. Etxekoen partetik zorionak.



## kuxkuxeroa



Goiatz Arana

# Minutu batzuk garrantzitsuak dira, edo ez

Asteburu garrantzitsua izan da hau bergararrentzat, ***Miserableak*** ikuskizuna taula gainera eraman dutelako, berriz. Hunkituta agertu ziren parte hartzaileak eta baita herritarrak ere. Zazpietako emanaldia ez zen puntuan hasi, zain egon zirenean eta apur bat ilundu arte, antzezlana behar moduan ikus zedin. Baina zer da minutu batzuetako atzerapena, 15 urtean zain egon denarentzat?

**BTLS** eta **Antzuola**ren arteko derbia ere ez zen puntual hasi. Epaileak bi kamiseta eraman zituen, baina ez zuen asmatu, beltza zelako bat, BTLSko mutilena moduan; eta gorria bestea, Antzuolakoek soinean zeramatena bezalakoa. Zein jantzi erabaki ezinean ibili ostean, gorriarekin hasi eta morearekin bukatu zuen partidua.

**"Zer da minutu batzuetako atzerapena 15 urtean zain egon denarentzat?"**

Frantziarrak ez dira atzeratu, horiek ez. Duatloia irabazi asmoz etorri ziren Oñatira eta baita irabazi ere! **Nicolas Capoferri**k bisera kendu eta txapela jantzi zuen podiumean. Ondoren, Bergarako pizzeriara joan zen afaltzera, Frantziako lagunekin batera.

Zapatu gauean Arrasateko Jai Zaleko sozietatean zer jan zuten ez dakigu. Dakiguna da 50 bat lagun batu zirela **Txiti** eta **Mery Mayren** urtebetetzea ospatzeko eta musika ez zela falta izan.

## asteburuko albuma




**Kintada.** 1957an jaiotako antzuolarrak Errioxara joan ziren zapatuan, egun pasa. 18 lagun batu ziren eta primeran pasa zuten eguna. Bi upeltegi bisitatu zituzten: goizean, Pierola (Moreda) eta arratsaldean, Ostatu (Samaniego). Ardoa nola ekoizten duten ikusi zuten eta baita dastatu ere. Eta, trago eta trago artean, mokadutsoa ere egin zuten. Aurrera begira, beste irteera batzuk egitekotan dira: afari batekin hasi ziren, egun pasarekin jarraitu dute, eta, badirudi, hurrengoan asteburu pasa joango direla.

## jaiotakoak



**Andoni Fernandez Egia**
Abadiño > 2,960 kilo. Martxoaren 6an. Gurasoak: Goretti (Abadiño) eta Jose Antonio (Abadiño). Argazkian, Andoni jaioberria, amarekin.



**Auri Esteban Atxa**
Arrasate > 3,430 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Gema (Arrasate) eta David (Barakaldo). Argazkian, Auri jaioberria, sehaskan.



**Daniela Boyero Remedios**
Arrasate > 3,190 kilo. Martxoaren 11n. Gurasoak: Carmen (Aretxabaleta) eta Adolfo (Aretxabaleta). Argazkian, Daniela jaioberria, gurasoekin.



**Josu Anduaga Fernandez**
Oñati > 4,320 kilo. Martxoaren 11n. Gurasoak: Edurne (Oñati) eta Pedro (Oñati). Argazkian, Josu jaioberria, amarekin.



**Maialen De Miguel Perez**
Aretxabaleta > 3,000 kilo. Martxoaren 6an. Gurasoak: Laura (Arrasate) eta Gaizka (Bergara). Argazkian, Maialen jaioberria, gurasoekin.



**Unax Gartziaetxabe Errasti**
Aretxabaleta > 3,000 kilo. Martxoaren 10ean. Gurasoak: Amagoia (Eskoriatza) eta Oier (Aretxabaleta). Argazkian, Unax jaioberria, aitarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**



URTEURRENA

## Mikel Elorza Colinas

Hamargarren urteurreneko meza gaur, astelehena, martxoak 16, 20:00etan, Oñatiko Bidaurretan.

*Gurasoek, anaiek, osaba-izebek, gainerako senideek eta adiskideek maitasunez gogoratzen zaitugu.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-03-16

Anjel Lertxundi > Idazlea

# "Idazten bai, baina egun, saltzen jakin behar da"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Bizitza osoa, ia geratu barik, egin du idazten Anjel Lertxundik. *Otto Pette* eta *Zorion perfektua* gazte askorentzako nahitaezko irakurketa-liburuak izan dira eta hark ere jakin badaki askok bere izena etxeko lanekin lotzen dutela. Haren azken eleberriek ere –*Ihes betea* eta *Zoaz infernura, laztana*– harrera beroa izan dute.**

**Anjel, Andu eta baita ere Iñaki moduan ezagutu zaitugu.**

Nik Anjel moduan sinatzen ditut liburuak, baina jendea Andu erabiltzen hasi eta geratu egin da. Iñaki Aldai goitizena liburu baterako erabili nuen, baina ez dakit zehazki zergatik aukeratu nuen izen hura orduan.

**Blogari oparoa eta idazlea. Erabiltzen duzu bloga zure liburuen propaganda egiteko?**

Ez, eta ez dut gustuko, gainera. Egia da gaur egun ez dela aski idazle ona izatearekin edo liburu bat idaztearekin, saltzen ere jakin beharra dago. Egia da badaudela blogak erabat egolatrak direnak, baina nobelisten artean ere badaude eleberri erabat egolatrak eta baita beste alorretan ere, aurkezle edota kazetariak dauden moduan.

**Nahasten dira blogeko iruzkinak eta eleberrietako fikzioa?**

Joan-etorrian dauden bi mundu dira, ez dira konpartimendu estankoak. Niri asko gustatzen zaizkit joan-etorriko kontu horiek: literaturan, kazetaritzan...

**Eta gustuko ere, bereziki, elkarrizketak.**

Ez da behar bezala lantzen eta niretzat berebiziko garrantzia dauka elkarrizketak. *Goenkale*-n ere idazleen plantel on batekin hasi ginen. Jendearekin sintonizatu gura genuen, hizkuntza naturala egin.

**Zure eleberri bat ere aurki ikusiko dugu pantailan?**

*Zorion perfektua* da. Gidoiaren moldaketan ere hartu dut parte. Moldaketa polita egin du Aizpea Goenagak.

**Nork bultzatu zintuen lehenengo irakurtzera eta gero idaztera?**

Amak pasatzen zizkidan liburuak eta hasiera baten hura izan zen nire gidari ere. Etxean denbora luzea egiten zuen gaixo, eta asko irakurtzen zuen. Idazteari dagokionez, gazteleraz hasi nintzen, baina ahalegin berezia egiten nuen euskaraz irakurri eta arrotz egiten zitzaidan hizkuntza hori nere egiten. Gogoan daukat oraindik ere nola azpimarratzen nituen Hauspoa saileko liburuetako hitzak, gero horiek ikasi ahal izateko.

TESTA

**Herria:** Orio. **Adina:** 60 urte. **Txoko bat:** Zarauzko hondartza eta Orio inguru guztia. **Azken liburua:** *Zoaz infernura, laztana*. Tratu txarrak jasan dituen emakumearen istorioa da ardatza. Aspaldiko zor bat kitatu dut. **Idazterakoan maniarik?** Ez askorik, baina oso goiz jaikitzen naiz idazten dudanean, ordu horiek dira onenak. **Txikitako liburürik gogoan?** Zehazki bat ez, baina Hauspoa sailekoak ditut bereziki gogoan.



FILMA Aurten estreinatuko dute *Zorion perfektua*-ren moldaketa. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Etorkizuneko autoa

Diseinu modernoko auto horrek erregai gutxi kontsumitzen du eta dirua aurrezteko dago egina. Hiru gurpil ditu eta Estatu Batuetako ikertzaile batzuek sortu berri dute. Modelo merkeenak 20 mila euroko kostua dauka.

http://www.20minutos.com

## biharamuna

Oier Bolibar

### Itsutasunari buruzkoa

Izango dira jada hiru bat urte José Saramagoren *Ensayo sobre la ceguera* irakurri nuenetik. Harrigarria zein miresgarria era berean, iruditu zitzadan Saramagok itsutasunak jotako mundua detaillean deskribatzeko azaltzen duen ahalmena, *giza kondizionea*-ri buruzko metafora bikaina.

Aste hontan, berriz etorri zait gogora, tartean liburuari lotutako *A Ciegas* filma estreinatu delako agian. Nik ordea, ez dut ikusiko. Nahiago dut liburuak utzitako oroitzapenak, biziriko pasarteak eta neronek irudikatutako egoerekin gelditu. Nire egin dudan istorioa mantendu nahi dut.



Hainbat izan ziren egunerokotasunarekin lotzen nituen pasarteak, gizatasunari loturikoak; ezezaguna eta ulertezina dena, itsutasunak sorturiko degradazio iraunkorra eta salba bedi ahal duena.

Bada pasarte bat non izenik ere galdetzen ez dioten elkarri, zertarako, zakurrek ere ez dute jarritako izenagatik elkar ezagutzen, usaimenaz baliatuz baino. Zeren bizitza hontan denok zakurrak bezalakoak omen gara, zaunka egiteko moduagatik ezagutzen baitugu elkar, ez hitz egiteko moduagatik.

PSOE itsu, eta PP usainean.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +14 | +4 |

Goizean fresko samar egingo du. Baina zerua urdin mantenduko da egunean barrena eta tenperatura dezente igoko da.

www.euskalmet.net

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

